


Joxe Mari Aranalde

Xalbador pertsularia



Xalbador pertsularia

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Mari Aranalde

Xalbador pertsularia

Auspoa Liburutegia
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-22-4

Legezko Gordailu: S.S. 993/96

Eskaintza:

*Zuri, A. Zavala. Zurea du
Auspoa bertsoak.*

Ohar bat eta beste

Hemendik hasten baduzu liburuxka hau, irakurle, ohituraz edo hala gertatzez, jakizu nik bane-kiela, idazten hasi baino lehen, nontsutik abiatuko nintzen eta nontsu bukatuko nuen alde-aldera, baina biderik ez nekiela. Hori ibilian egin dut, Machadoren aburuz beti egiten omen den bezala. Nere kasuan egi guztizkoa gertatu da olerkariaren ustea.

Eta nondik nora eraman nauen ibilian egin dudan bideak? Plazarik plaza eraman nau. Batbatetokotasunaren arrastotik atera gabe ibilia nauzu. Hildo horretan aurrera egiteko behar nuenetan bakarrik ikuitu dut Xalbador bertsojartzailea. Botatzailea du gai liburuxka honek.

Horrenbestez, inor esaten aritu gabe, edozei- nek bazekikeen, beraz, irakurle, motz gelditua naitzela Xalbadorren obra aurkezterakoan. Komeni zen ala ere, nik uste, neronek jakinaren gainean jartzea bertsozalea.

Beste ohartxo bat: nik handik eta hemendik hartu ditudan bertsoak ez dira agertzen hemen guztiak beren jatorrizko lekuetan zeukatzen lerrokera berdinarekin. Batez ere lau eta bost lerrotan zeuden asko, zortzi eta hamar lerrotan ipini dira hemen. Liburuen neurrien beharreatatik izan da hori.

Eta orain zure eskuetan uzten dut, irakurle, nik nekez bezain pozik eta maitez idatzi dudan *Xalbador pertsularia*.

Lehenengo oroitzapenak

BANEKIEN Donostiako *Victoria Eugenia* antzokia zela, nik Xalbador lehenengo aldiz ikusi nuen lekua. Eta gogoan nuen, argitu orduko iluntzen duen abenduko egun horietako bat zela; baina ez nekien zenbakarrena zen. Hori *Kulixka Sorta* bildumak argitu dit. 43-44 zenbakian daude bildurik, lehenengo aldiz osoan jaso diren Euskal Herriko bertsolarien txapelketa bateko bertsoak.

Abenduaren 18a zen nik Xalbador ezagutu nuen eguna. 1960a urtea. Hotza eta tristea zen, urepeldarraren bertsoak begiak erdi itxian, harek kantatu ohi zituen bezala, entzuteko modukoa.

Harek nere begietan utzi zuen irudia, gizon luxexka, mehaxka eta baldaxkarena izan zen. Txapel eta guzti, jakina! Gorputza nekez darabilenaren itxura ematen zuen Xalbadorrek, alde banatara bazihoakiokeen bezala gorputza. Ikusi izan bazenu, irakurle, etxe atariko malda piko haretan behetik gora mandoa erremolatik zuela! Hankak errestan, aldarka-maldarka, erdi alderoka. Alde banatara zeriola zirudien haren gorputzak. Itxura horixe hartu nion nik Xalbadorri lehenengo aldiz ikusi nuen egun beretik: gorputza nolana eta nolahala darabilenarena.

Alde ederreko planta erakusten zuen *Victoria Eugenia* haren ondoan kantatzen zuen Azpillaga gazteak, bere lepabuelto bafanda eta guzti. Hura gizasemea! Gaztea, ongi jantzia, lerdena, neurri ederretakoa, dizdiratsua eta bikaina benetan.

Begietako bi irudi horien erdian dago ni xalbadorzaletu ninduen bestea. Horiek baino barrukoagoa da, jakina. Begiak liluratzeko hainbat dizdira ez zuen harek, bihotza liluratu baitzidan egun harentan, 1960ko abenduaren 18an, Donostiako *Victoria Eugenia* antzokian, lehenengo aldiz ikusten eta entzuten nuen egunean, eta goizpartean.

Gogoan daukat, Azpillagak eta biek, pelotari eta futbolari kontuak nola erabili zituzten. Baita “dugulakotz” aditz jokoa lehenengo aldiz bertsoetan nola entzun nuen ere, “hotz” eta horrelakoekin erri-ma eginez. Baina gogoan, batez ere, herri haundiko eta txikiko bi apaizen arteko elkarrizketa daukat. Hau ere gipuzkoarrak eta urepeldarrak egina. Herri txikikoa Xalbador da.

Noiztik naizen xalbadorzale galdetzen zaidan guztian erantzuten dudana gauza bera esango dut hemen ere. Herri txikiko apaizarena eginez kantatu zuena da nik biziaren gogoratzen dudana egun hartakotik. Neroni apaiza naizelako akaso? Baliteke. Ez dakit.

Hirugarren bertsoaren bukaera neukan sartuenik. Gogoan nuen “zerura” hitzarekin bukatzen zela, eta desio bat agertzen zuela. Osoa ez nuen gogoan.

Hona hemen:

Indarra duen gizona beti
jasotzen dute kargura,
nik indar gutxi daukatala
daukat neure arrangura;
zuk lanik asko baduzu eta
eldu zure elburura,

konten nindalke nik ditudanak
bidal banitza zerura.

Herri txiki bateko zein apaizek adieraz zitzake-
en hobeki bere bihotzeko ilusio eta grina Xalbado-
rrek bertso horretan baino? Apaiz zintzo bat bezala
mintzo zela hor gure artzaina iruditu zitzaidan, gaia-
rekin ederki identifikaturik eta apaiz batek zeuzka-
keen sendimendurik zinezkoenetan murgildurik.
Itxura egitea baino zerbait gehiago sumatu nion.

Badu besterik ere, ordea, bertso horrek, ure-
peldarraren beste askok eta askok bezala-bezalaxe.
Bertsoa betetzeko modua da beste hori. Badakit
norbaiti gehiegizkoa dirudiokeela lehenengo puntu-
ko "beti" hori. Ez da harritzekoa. Halaholako jende
gehiegi ikusi ohi da karguetan, haietakoren batean
bere burua ikusi nahiko lukeen zenbaitek uste aina
ez bada ere. Bada, ordea, bakarrik! Ederki dago,
hala ere, Xalbadorren pentsamendua, hala dena
edo hala beharko lukeena aldarrikatuz eta bertsoari
oinarri zabal-zabal bat emanaz, gero gainean pentsamendu mugatuagoak eta hurbilagokoak ezartzen dituela, azkenean punta-puntan bukatzeko, zugatz bat bezala. Guztiz berea du bertsoaren egituraketa hori Xalbadorrek. Egun haretan sumatu nion zerbait izan zen hori ere. Betelan gutxi eta lan bete asko egiten zuela ohartu nintzen.

Horrelakoxe alderdiak ikusi nizekion nik abenduaren 18 hartan urepeldarrari, eta horrelaxe bildu ninduen bere zaletuen taldera "Urepeleko artzainak".

Hurrena entzun nuenerako urte oso bat bazen pasea. 1962ko Errege Eguneko txapelketa moduko batean izan zen. *Victoria Eugenia* antzokian berriz ere. Han berritu zitzaidan aurreneko haretan utzi zidan ahoko gustu goxo hura. Zeini ez, izan ere, harako agur paregabe hura entzunda? Eta museko

ihardun xotil hura? Eta ijito kontuetan Uztapide zenari eman zion kankarrekoa? Errez berritu zitzaidan lehenengo eguneko ikutu goxo hura.

Urte hartan bertan entzun nuen hirugarren aldiz “abendu ondarrean”, niri inpresio atseginena egin zidan bertsoan berak zioen bezala. Lau oinak eskaini zizkioten bertsoa egiteko. Hona laurak: *bihotza*, *okotza*, *gorotza* eta *hotza*. Errima horiek entzunda, egiten nuen nik neure buru: “Nola lotu behar ote ditu *okotza* eta *gorotza* eta *bihotza*?”. Hola nengoela, hor hasten da: “Abendu ondarrean da / neguko bihotza...” kantari. “Asmatu dik!” esan nuen neure baitan. *Bihotza* hitza entzunda lehenengo burura etortzen den hori alde batera utzi eta beste bihotz mota bati heldu zion. Askatua zegoen mataza eta berdindua koska. Hona bertso osoa:

Abendu ondarrean da
neguko bihotza,
eta aurten goiz xamar
hasi zuen hotza.
Atzo're ni han nindagon
daldaran kokotza,
ta hormak gogortu zuen
soroko gorotza.

Nik jo nizkion txaloak ez ziren makalak izan. Oraindik ere gogoan izan ditzake *Victoria Eugenia* antzokiak.

Horra, irakurle, nere lehenengo oroitzapenak Xalbadorrez. Orain badakizu noiztik eta zergatik xalbadorzaletu nintzen. Errezena egin dut. Bertso-laritzan zer izan den adierazi nahi nizuke orain. Asmatuko banu!

Urepel(e)

XALBADORREN etxera kamioz edo errepidez doanak, herriaren izena *Urepel* ikusiko du sarreran idatzia. Baina *Odolaren mintzoa* liburuan harek bere herriari eskaini bertso andanaren izenburua *Urepele* ikusiko du. Hirugarren bertsoa irakurtzen badu, berriz, “Ni urepeldarra” entzungo dio koblariari.

Zertan gara? Urepel edo Urepele da? Nola du izena gure artzaina sortu zen Naparroa Behereko herrixka horrek? “Eta... zer inporta dio” esan deza-kezu zuk, irakurle. Eta arrazoi duzu. Zuk eta nik aski dugu hor sortu zela jakitea, 1920ko ekainaren 19an, eta hor bertan hil zela 1976ko azaroaren 7an, iluntzeko 6ak inguru hortan. Hura heriotza Xalbadorrena! Gero aitatuko.

Sortetxeak Xalbador du izena. Haatik esango du gure bertsolariak etxeari eskainitako kantu hartan “zuri zor dautzut naizena: izana eta izena”.

Fernando Aire zituen bere izen-deiturak; baina herriak hartu diona etxearena berarena du: Xalbador. Hor sortu zen eta hor eman zituen mundu honetako egunik gehienak. Ez zen beraz aldatu, esateko, ez etxez, ez sorterriz eta ez herriz. Ibili bal, leku askotan ibili zen. “Jainkoak berak daki / ni ene bizitzan, bertze zonbat herritan / ibilia nizan” esaten du haundiki bere herriari eskainitako ber-



Urepele.

tsoetan. Hor sartu behar dira, Eskual Herriko ia zoko guztiak aparte, Paris, Madril, Ipar Amerika... Bi aldiz behinik-behin bixitatu zuen Amerika. Batean Mattin lagun zuela, eta bestean bakarrik "semeak sustaturik / haren ikustera".

Ez zen beraz beti etxe xokoan egona gure artzaina. Bazuen beste bazterrik ikusirik eta bestelako bizimodurik ezaguturik. Ez zitzaion, ordea, inoiz haietan bihotzik itsatsi. Hala aitortuko digu *Sortetxeari* izeneko bertsoetan: "Nabilalarik kanpoan / ez naiz sosegu osoan: / beti etxea gogoan". Eta han hemen ezagutu eta dastatu edertasun eta aberastasun guziengatik honela dio: "Hau da guk deraukuguna / zu baitan eskas duzuna / etxeko goxotasuna". Badirudi Xalbador, landare baten antzera, ezin dela bizi bere lurretik kanpora.

Aldiaren eta aldearen mugak ezarri dizkiogunez gero gure artzainari, eman ditzagun bere bizitzako zenbait xehetasun adierazgarri, zer moduzko gizona genuen ikusteko.

“Hameka urte inguruan...”

BAZUKEEN Xalbadorrek bere berrogeita hamasei urtetako mundualdian erabakiak hartu beharrik, eta bazitzakeen hartuak bere kolko ondorik gabe hartan ongi pentsaturik. Nori ez zaio tokatu, izan ere, bere bizitzan pauso erabakiziozkoak eman beharrik! Baina kostako da haren egunetan, eta beste edozeinetan, harek bere hamaika urtetan eskolarekiko izan zuen jokabidea baino urrats bortitzagorik bilatzen.

Gure muttikoa, bere kideko nexka eta muttiko gehienak bezelaxe, eskolan eta katiximan dabil. Bai batean eta bai bestean, bi maila daude: ttipiena eta haundiena. Eskolan errients edo maixtra, euskalduna da, baina eskola prantsesez egiten da. Hala ere, behar orduan eskuara sartzen du maixtrak. Katixima, berriz, eskuaraz egiten dute serorek edo mojek. Hemen hobeki dabil gure muttikoa eskolan baino.

Gure haurra ez dago ordea geldi. Haunditzen ari da, eta eskolaz ere aldatu egin behar. Katiximaz ere berdin. Ttipienetik haundienera pasatzen da, bai eskolan eta bai katiximan. Hauetan ere, nor nahik dakikeen bezala, hizkuntza ezberdinak erabiltzen dira: eskolakoa prantsesa da eta katiximakoa eskuara. Honetan lehenean gara. Zerbait aldatu da ordea gure mutikoarentzat.

Katiximara gustura doa eta eskolara desgustura. Batean maixu erdaldun bat du irakasle, eta bestean herriko erretora, gizon euskalduna eta euskalzalea, baina irakasle garratza. Ikasle erakartzaile txarra beraz. Hala ere gure artzaingaiak trankil doa apaizarengana. Ez hala errient edo maixuarengana. Gogo gaiztotik dabil eskolara bidean. Zer gertatzen ote zaio? Entzun dezagun beraren erantzuna:

“Errientaren eta ene artean, aldiz, frantses hizkuntzak egiten zuen harresi bat ikaragarria. Etzen ez nuelakotz konprenitzen; bainan ez nuen deus ere egiten haren ikasteko. Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu; eta frantsesez mintzo zelakotz eta eskuara hastio, nuen nik ere ene aldiaren gure errienta hastiatu”.

Horra hor gure mutikoaren buruaustea eta desgustuak. Ez zen, ez, motza zelako. Nahi ez zuelako zen. Bestela, ikasi beharrak trankil ikasten zituen. Egoera tristea benetan haur batentzat! Gure herri honetan hamaikak eta hamabik jasan behar izan dugu ezjakintasunaren ondorio negargarri hori. Eta zer egin, nolabait antolatutako gizarte baten zamape hortan? Hona urepeldar xankagorri honek egiten duena:

“Hameka urte inguruan utzi nituen alde bat eskolako alkiak. Errienta gure etxean ibili zen aldi bat baino gehiagotan, ni ait'amen bidez berriz bildu beharrez, baizik eta ikasteko ahala banuela eta pena zela hain goizik eskola utz nezan. Baina ene ait'amek etsitua zuten enekin eta ez ninduten gehiago bortxatu”.

Zenbat buelta eman ote zizkion bere burutxo hartan mutiko galtzamotox harek eskolako arazo hari, hartu zuen erabakia hartu baino lehen? Gero ere maiz estu ibiltzen ziran ezpain haiek, bilduak ibiliko ziran pausu haundi hori eman aurretik eta ondoren! Eta nolako lasatua hartu ote zuen bihotz

harek horrelako zama gainetik astintzean! Ia-ia zorionak emateko gogoia etortzen zaio bati; baina nolaz zorionak eman adin horretan eskolari betiko agur egiten dion norbaiti? Zer egin behar du haur horrek, haundia egiten denean, eskola gehiagorik gabe? Ez al da ba eskola pertsona askatzen eta aurreratzen duena?

Ez. Zorionak ematen ez gara ausartzen. Eskolara joandako damurik ez daukagu, urte luzeetan han ibili garenok. Hori egia da; baina zeinek ez du ikusten, gure herriarentzat galtzeko arrisku haundi batetik libratzen dela Xalbador erabaki horrekin? Mutiko argi hura, maiorazko ere ez zenez, eskola haundiago batetarako hartu izan balute, izango al genuen gaur maila hortako bertsolaririk eta idazle paregabe-rik? Galderak hor gelditzen dira. Berak ez dut uste eskola utziaren damu apertekorik agertzen duenik; baina ixil gaitezen gu eta mintza dadila bera:

“Gauza guti ikasirik gelditu nintzen, bainan etzaut behin ere damutu. Gaur ere nahiago dut erdaldun jakintsun bat baino, euskaldun ezjakin bat naizen”.

Ez; berak zorionez ez du damurik agertzen; baina ez da hori kontua. Egia da nik ere nahiago dudala Xalbador “euskaldun ezjakin bat” Xalbador “erdaldun jakintsun” ez-euskaldun bat baino. Nik, ordea, Xalbador “euskaldun jakintsun bat” nahiko nuen, izan zitekeen bezala, gure artean eskola behar zukeen bezalako izan balitz. Norbaitek, akaso, ez dugula ezer galdu usteko du. Ez zigula ezer hoberik emanen urepeldarrak, eskolatua izan balitz. Ez dakigu; baina oraindainokoa, berezkoa duenari, salmantikak ez dio kalterik egin.

Ez gaitezen, ordea, hortan luza. Ez gabiltz hemen, zitekeen Xalbador bat aztertzen, dena baizik. Eta honek ez du eskolarik izan. Ez gai ez zelako, nahi izan ez zuelako baizik, gure Herriak ez bait

zuen artean hari zegokion eskolarik ezagutzen. Ez da, ez, euskaldunak izan duen zapalketa ikusteko ere muestra txarra aitatzen ari garen gertakizun hau. Jainkoak bakarrik daki zer sufrimendu izan den eskola gure herritar asko eta askorentzat. Baina bego hori horretan. Hemen Xalbadorren nor-tasuna ikusteko aitatzen dugu gertakizun hori.

Bada, gero, erabakia hamaika urtetan eta giro hartan eta garai haietan hartzeko! Zeinek izan du bekokirik eta indarrik adin hortan bere gisara tamaina hortako pauso bat emateko maixuaren eta gurasoen eta abarren ustearen eta nahiaren aurka? Egun izan balitz ere, haurrarentzat errespetoa ekartzen hasiak garen garai honetan, tira. Baina orduan? Masaileko batez “haizekeria” horiek denak konpontzen ohituak zeuden garaietan?

Ez zuen, ez, errient edo maixu harek ere, mutikoa ez omen zetorrela gehiago eskolara eta, asko pentsatu berriro bilduko ez zuenik. “Ekarriko haut, bai —zerasakeen bere baitan—. Ikusiko duk nola etorriko haizen, nik gurasoei esaten diedanean”. Baina alperrik. Joan zen, bai, Xalbadorrenera esatera lastima zela mutiko hura eskolarik gabe geldi zedin, ikasteko balio zuela eta. Legea ere aitatuko zuela pentsatzen dugu, baldin legerik bazen gai horretan. Gurasoen erantzukizuna ere aitatuko zuen, horrelako kasoetan ohi den bezala. Baina ez zuen “gehiago nehork eskolarat moldatzen ahal izan”. Gurasoek ere ez zuten behartu. “Ait'amek etsitua zuten enekin eta ez ninduten gehiago bortxatu”.

Eta horra hor gure gizonttoa eskolatik libre eta bere bidea egiten. Neurri hortako lokarriak iadanik eteten dituenak eginen du geroan. Ez ote dagoenez hasia bere lekua egiten? Nik baietz uste.

“Ait'amek etsitua zuten enekin”

ESKOLAKO auzia ebaki zuen bezala ebaki eta gero, inork ez zuen “gehiago bortxatu”. Maixu edo errientaren ahaleginak alperrikoak izan ziren, eta ait'amenak ere bai. “Ait'amek etsitua zuten” beren hamaika urteko semearekin.

Ez al da haundi xamarra noiznahai ere, baina garai haietan eta nekazarien familia batean batez ere, eskola bezain garrantzizkoa den auzi bat hamaika urteko haur batek erabakita uztea bere inguruko guztien nahiaren aurka? Ez ote zegoen mutiko hura bere lekua egiten hasixea bere etxean ere, adin horretan ohi den baino zerbait gehixeago eta bortizkiago? Eskolako hesia honela urratzen duenak ez ote zeukan hurbilagokoren bat ere urratu-rik? Nik baietz esango nuke.

Eta norberaren neurriko leku egite hori, ez da beti eroso eta gozoa izaten, ez norberarentzat eta ez ingurukoentzat. Gizartean, hurbileko eta urruneko elkarteetan, lekuak hartuak egon ohi dira, sareak antolatuak, bizimodua eratua eta bizi-legeak eginak. Berriarentzat leku jakinak daude. Eta datorrenak beste zerbait nahi badu? Eta behar badu? Eta komeni bazaio? Egin zaion kafia edo kabia ez datorkiola ondo sumatzen badu? Bestelako zerbait nahi

badu? Orduan zer? Orduan... komeriak! Ondoez edo ez-ontsa bat norberetzat eta ingurukoentzat. Dantza gazi-gozo bat. Hori da orduan gertatzen dena. Berriak lekua eskatzen du, bere lekua, eta ingurukoek aldatu egin beharra daukate lekuz. Eta hori beti mingarri gertatzen da. Eta datorrenak zenbat eta lehenago eta bortizkiago egin nahi duen bere txokoa, orduan eta mingarriago. Eta bere "hameka" urtetan ain tente eta firme jartzen denaren bueltako ingurutxoa? Haren konpasean dantza egin beharrak ez ote zituen behin baino gehiagotan minberatu albokoen orpozainak? Nik, berriro ere, baietz esango nuke.

Baina zertan ari naiz nere irudipenak erakusten? Xalbador zenaren izaera nolatsukoa zen jakiteko ez da asmaketan ibili beharrik. Berak jakin erazi du argi eta garbi nor eta zer zen. Eta esan du, ohar-tuz eta oharkabean, jite bereziko gizona zela.

Bada *Odolaren mintzoa* liburuan kapitulu bat —kapitulu diot, eta ez bertso-saila edo andana, besterik ere bai baita hor—, beste inon ez bezala Xalbador bere buruaz mintzo dena. Hona hasera: "Nihaur ohartua naiz ene jitearen aitortza askotan egin dudala, ezarri ditudan pertsuetan".

Irudi luke konturatu gabe bezala egindako aitortza izan dela bertsoetan zehar egindako hori, eta oraingo hau dela hartara jarrita egina. Hala dirudi eta hala da; baina lehen aitortua besterik ez du aitortzen. Lehen idatzia zeukan: "ni ere ez naiz sortu aingeru umila". Edo: "nehoiz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria", eta hori bera da hemen errepikatzen diguna. Berretsi egiten du lehengo aitortza.

Bere izaeraz edo jiteaz, beraz, ez du ezer berri-rik esaten. Izaera horren ondorioez dihardu batez ere.



Xalbadorren gurasoak.

Bere jite horrek ondorio nolahalakoak ekarri dizkio gure gizonari. *Ene aita zenari* izeneko kapitulu horretan badakar bertso bat “liburu huntan agertuko ez diren kantu batzuetako pertsu” bat omen dena. Hona zer dion:

Nire ait'et'amek hain ninduten maite,
baina nik ez nituen atseginez bete.
Pena hauk haien manuz datozkita ote?
Hala bada ederki gaztigitzen naute.

Ezda dudarik ondorio saminak sortu dizkiola Xalbadorren bihotz beratzari bere izateko moduak. Eta bereziki aitamak “atseginez” ez bete izanaren harra hor dauka gure gizonak. Horregatik zigortua ote denaren irudipena ere berekin darama. Zergatik galdegin, bestela: “pena hauk haien manuz datozkita ote?”. “Hala bada ederki gaztigitzen naute” bukatzen du. Bertso hori idazten duenean nozitzen ari den “pena” haundiak, bai bihotzekoak eta bai gorputzekoak, bere jokabidearen zigor izan ote daitezkeenaren susmoa ageri da hor. Ez nolana hikoia, gainera. Susmo garratza ageri da. Zeinek duda, “hameka” urtetarako beren mutikoarekin “etsitua zuten” guraso haien eta beren semearen arteko harremanak ez bide izan zirela errazak?

Baina hori bezain egia dela dirudi batarekiko eta bestearekiko harremanak ez zirela berdinak izan esateak. Zergatik dago, bestela, *Ene aita zenari* bertsoetan bere aitortza? Ez zitzaion horrelakorik bururatu *Ene ama zenari* izenekoetan. Han ez zuen esplikaziorik eman beharrik izan; hemen dira esplikazioak. Gainera, bertsoen tonua ere guztiz ezberdina da.

Aitari eskaintzen dizkion bertsoek errespetoa erakusten dute. Jaun bati eginda bezalakoak dira. Nortasun biribila aitortzen dio:

Aita nuen gizon bat tatxarik gabea,
haren seme hau baino aunitzez hobea.
Bera hainbat bertute garbiren jabea,
nola ote dagokit zerutikan beha?

Eta zion zorra ere aitortzen du, daitekeen mol-
derik zuzenenean eta trinkoenean. Hona:

Zerurat igaitean, gure aita zenak
berekin joan zituen dohain gehienak.
Eni eskastu zauzkit kasik heiek denak,
kantua ta fedea ditut aitarenak.

Horra hor jaunaren irudia. *Odolaren mintzoa*
liburuan ageri den argazkiak ere, hor esaten den
horixe bera adierazten duela ezango nuke: gizon
egokia, osoa, zutia... Hitz batean, jauna.

Gainera, bertso hauei kunplimendu kutsu bat
ere ez al darie? Nik beste norbaiten bertsoengatik
esan izan dudan bezala, sortuak baino gehiago, egi-
nak edo jarriak ez ote dira? Hauek "eskaini" egiten
dira; hauek esplikazioak behar dituzte; hauek osa-
garri dirudite. Etxeko beste guztiak kantatuta nola
utzi aita kantatu gabe? Kunplimendu keru hori
hartzen diet nik bertso hauei.

Ene ama zenari kantua hartzen denean, berriz,
beste aire bat sumatzen da, ez musikazkoa baka-
rrik, baita sikolojiko ere. Bihotza libreago dabil
hemen. Haserako hitzetan bertan, zeinek ez du
sumatzen bularreko haur baten freskura eta tran-
kiltasuna? Hona lehen bertsoa:

Ama, nola zure belaunetan
nindadukazun denboran,
utz nezazu zure bularrean
burua pausa dezadan;

ene bihotzak zer sendi duen
nahi baiterautzut erran,
zure ezpain sakratuetarik
ikasi nuen mintzairan.

Magalean amaren begietara beha dagoen haur bat bezala hasten da hemen Xalbador. Amari ari zaio. Ez da amaz ari, *Ene aita zenari* bertsoetan bezala. Hango lehen bi bertsoak ez dira aitari ari dela eginak, aitaz eginak dira.

Hemen dana elkarrizketa da. Igeri bezala dabil amazko amets goxoan eta bere izate osotik dario sendimenduzko olerkia amarentzat. Han aitaren giza-kalitatea aitortzen du, eta dion zorra ere bai; baina aita-semegoan dagokeen harreman ezirik ez du aitutzen. Hemen bai. Ama-semegoaren grazia eta gozoa hor daude. Ikus hirugarren bertsoa:

Orroit naiz, inozent bat bertzerik
ez nintzaneko bizitzan,
ama, zer artak eta pilpirak
nitaz zinituen izan;
kartsuki miresten ninduzula
zeruk'aingeruen gisan,
ez aingeru bat nintzelakoan,
bainan zurea bainintzan.

Hori samurtasuna! Eguzkiak jotako lore bat dirudi Xalbadorrek, amaren oroitzapenak zabaldua eta guztizko edertasun-jario. Hori ixuria gure bertsolariarena.

Bere hutsak aitortzeko ere hemen ez dago zailtasunik. Nola, maitezko giro horretan? Ikus:

Errezki konprenitu dut, ene
burrasogoko bizian,

ama, zer pairarazi dautzudan
ezagutza eskasian.
Kezka hori ene lagun duket
ene bizitza guzian,
hoinbertze damutzen zautan hutsik
ez baitut kontzientzian.

Horra bere kontzientziko harra garbi deklaratu, eta bere aitortza klarki egina. "Atseginenez bete" ez zituen gurasoekiko postura ez da berdina; baina bere aitortza egiterakoan, haiekikoa da salatzen duen bere jokabide nolahalakoa. Amari konfesatu egiten dio gainera. Aitari ez. Amodioa baita elkarrekiko hutsegiteak komunikatzeko girorik hoberena, eta hori garbi dago zeinen eta zeinen artean dagoen.

Egina dago aitortza bitxi hori, eta esana dago eta jakinarazia Xalbadorrek bere zein konportamendu gaitzesten duen bereziki bere bizitzan: "burrasoekikoa", "hameka" urtetarako harekin "etsitua zuten" haiekikoa. Ez zen, ez, elkar maite ez zutelako. "Hain ninduten maite" dio haiengatik, eta "nik ere maite nituen" berarengatik, eta ohar psikologiko polit hau eransten du: "oraino ere, nitan zerbait onik ba ote den iruditzen zautan bakarretan, heieri pentsatzen dut, zerbait goxo partekatze duenak bere maiteneri pentsatu ohi duen bezala".

Fina oharra, Polita pentsamendua. Ez da maitasun falta. Beste zerbait da.

Jite edo izateko modu ezberdinen arteko konponezina da. Nonahi eta noiznahi eta edozeinen artean gertatzen den hori. Eta "hameka urte inguruan" "alde bat eskolako alkiak" uzten dituenarekin gertatzea harritzekoa ez dena. "Azkarra heldu da" benetan gure mutikoa, berak zerasakeen bezala, eta zenbait eta azkarragoa heldu, orduan eta triskantza eta ondoez gehiago bere inguruan, berari dagokion lekua egiterakoan edo hartzerakoan. Hori

da guztia eta horri zor zaio harako “nik ez nituen atseginez bete” aitamak hura.

“Eta zer egin gure jite horren kontra?” galdegiten du. Eta erantzuna bihotz beratz bati dagokion hauxe da: “gure inguruan sofri arazten dugula ohartzearekin, behar bada heiek baino gehiago guhaurek sofritu!”. Horra mina minaren gain: norberaren nolahalako jitearena bat eta horrek besteengan sortzen duen minak norberari ematen dion minarena bestea. Ederra zela bagenekien urepeldarraren bihotza, inoiz baino ederrago ageri da hemen, besteren minak minberatua. Ez al duzu inoiz senditu, irakurle, maite mindunaren lekuan zerorri jartzeko gogorik? Hala bada, ez zinateke bakarra. Orduan zara zoragarriena.

Ezin da, ordea, hori; eta zer egin? Sofritu besteren minaren minez. Hori da Xalbadorrek egiten duena, ihes ezinaren fatalismo batez dioen bezala.

Gizonaz beste zerbait

NIK Xalbador gizonaz ez nekien deusik, bertso-lariz liluratu ninduenean. Eta “hameka” urteko haurraz gutiago. Baina gertakizun hori irakurri nuenean, haren gizatasunaz garrantzizko zerbait ikasten nuela iruditu zitzaidan. Orain ere hala dirudit. Eta guri, zuri eta neri, irakurle, bertsolaria bada ere interesatzen zaiguna, gizona ezagutzea ere ez dagokeela alperrik uste dut. Horretan lagundu nahi nizuke orain, aurrekoari jarraiki; eta, nik uste, haren harira.

Guk Xalbador esaten genion gizon hura, ez zen beti hala izendatua. Amezketarraren izen bera zuen, dakizunez, eta honela ere esaten zioten zenbait tokitan. Baina bazuen norbait ez Xalbador, ez Fernando edo Pernando edo Perrando esaten ez ziona. Emaztea zen. Leonik “Ferranddo” izendatzen zuen. Guk ere ikasi genuen hori, eta hala esaten hasi gintzaizkion: “Ferranddo”. Eta ezetz esan zigun. Ez zuela nahi guk hala izenda genezan. Hori emaztearentzat uzteko. Guretzat Xalbador zela bakarrik.

Gu ere, gure ustez, baginen norbait eta zerbait etxe haretan; baina ez gintezkeen sar Xalbadorrek beretzat egina zeukan lekuan. Debekatua geneukan haren sailetan ibiltzea. Biziro eskurakoi ez zen “hameka” urtetako haur hura, guztiz bere eskukoi agertzen zaigu gizonetan. Ez dakit bi alderdi hoiek

txanpon beraren bi aldeak bezala diren, batak beste eskatzen duela, derriorez hala izan beharrekoak, izaera modu edo jite bat beraren bi aurpegiak bezala. Nik ezagutu izan dudala uste dut jende ez-eskurakoia ez-eskukoi zena. Ez da beti segurra izaera modu edo jite jakin batek araberako izan modua dakarrenik. Eskurakaitz eta ez-eskukoi izan daitekeela uste dut nik aldi berean, eta eskurakoi eta eskukoi ere bai. Urepeldarra eskurakaitz edo ez-eskurakoi agertzen zaigu haurretan, eta biziki bere eskukoi gizonetan.

Eta aldi berean bere askatasun-zale. Baduela esango nuke zer ikusirik bere eskukoi izatearekin, berdin-berdina ez bada ere. Etxe hartan sekulan ez nuen inor agindurik ematen sumatu. Bazirudien berez funtzionatzen zuela elkarte harek. Bakoitzak bazekiela zer egin behar zuen. Beti harritu izandu ninduen jokabide harek. Horregatik edo, nola asal-datu zelako behin gure Xalbador, etxekoa ez zen batek, "Ekatzu pala" esku-keinuz eta guzti agindu ziolako! Hura harridura gizonarena! Ordura arte etxe hartako erregina izateko egoki ikusten zuen neskato agindu-emaile harek, egun hartan galdu zituen merituak. Handik aurrera ez zirudion bere semearentzako moduko andregai. Hala agindu edo manatu, noski! Han bukatu ziren neskato haren graziak.

Askatasun-zale zen, eta askatasun emaile. Etxean ez ezik, mendian ere errespetatzen du askatasuna. *Artzaintza* izeneko bertso sailean, ardiaren udarako ibilera esatean, honela kantatzen du artzain askatasun zaleak:

Udak ardia derama
libro oihanean barna;
orduan ez naiz ni jauna.
Libertatea Jainkoak baitu

denen gogoan emana,
uzten diotet baimena.
Nola dezaket kondena
nihaurek maite dutana?

Berak maite duen eta beste guztiak beren baitan irrikatzen dutena, zaintzen du beretzat eta errespetatzen besteentzat, etxean eta kanpoan. Horra bere eskukoi eta bere askatasun-zale gure Xalbador.

Ez dira baldintza txarrak —zeinek uka?— eskurakaitz, eskukoi eta askatasun-zale izatea, norbaitek bere bidea ebaki eta egin dezan mundu honetan. Ez da gezurra ere hari horiek nahas daitezkeela eta norberaren nortasuna itota gelditu beroien sarean. Hori ere egia da, eta gizakion bizitza lekuko. Zeinek ez ditu, izan ere, kalitate horiek behin eta berriz galdu nahiz saldu beste moduzko zenbait alderdiren baitan edo truke edo ez dakit nik zeren zeretan? Urepeldarrak, nik esan behar banu, kalitate horien arabera ebakitzen du bere bidea, eta egiten bere bizitza.

Izan da, bai, esan duenik bere nortasuna saldu eta galdutako norbait genuela “Urepeleko artzaina”. Belejendeak omen zeukan sekuestratua. Horregatik omen ziren haren Jainko hotsak eta otoitzak eta ez dakit zer guztiak. Apaizen berettar edo mezalaguntzaile bat omen zen. Haiiek, batez ere Iparraldean, deitzen zutelako, eta pagatzen eta goستن, haien girora eroria bide zegoen, beste nolabaiteko joerak eta eskakizunak eta herriaren beharrak alde batera utzita. Horra gure haur eskurakaitza eskurakoi eginik, eta zeinen eskuko, eta belejendearen eskuko. Hori izan zen abertzale aurrerakoiren baten susmoa, eta salaketa ozena.

Guk geuk ere pentsatu izan genuen, ez sekuestro konturik, bertsoa errezago osatzeko helduleku-

ren bat ote zuen Jainkoa aitatzeko eta erregutzeko maiztasun hura. Zeinek ez daki, izan ere, bertsolariak adreilu asko erabiltzen duela bertsoaren hornigintzan, eta ez dela dena kantatu ainean landua izaten? Hori ote zitekeen Xalbadorren Jainko hots hura pentsatu izan genuen guk ere inoiz. Sekuestro konturik bururatzea ezinezkoa zen, zinezkoegia eta berezkoegia baitzen Xalbadorren iharduera.

Gaur ez dut uste inork, saldukeria salatu zue-nak berak ere ez, horren burutazio aldrebesik izan-go duenik.

Betor nahi duena eta irakur beza *Jainkoa eta ni* kantua. Zeinek ez du ikusten hor garapen erlijioso baten historia paregabe bat? Zeinek ez du ikusten hor bere burua garai bateko gure elizetako trumoi eta tximista pean? Ez da bakarra, ez, Xalbador "gaztiguaren labe gorria baizik" ikusten ez zuena, eta inpernuaren beldurrez hozkitua eta okitua egon dena eta beldur-losa ikaragarri horren pean sofritu duena. Ez da bakarra; baina bai ote besterik haren bihotz beratz harek hainbat padezitu duenik? Mendiko bere bakar-solas haietan zenbat itzuli eman ote zizkien bere kezka haueri, eta zenbat auhena ez ote zizkioten sortarazi bere baitan? Nolaz ez ote zuen leher egin itolarriz, gero amodioz leher egin zuen bihotz harek? Entzun zer dion:

Legeak zuen erakaspena
hausten nuen guzietan,
okaztagarri aurkitzen nintzan
Jainkoaren begietan,
nitaz betikotz etsi zuela
iduritzen baitzitzautan;
desgustaturik damuz betea
egon izan naiz bortzetan,
ez sorturikan Jainkoaz deusik
ez dakiten tokietan.

Hori egoeraren gorria! Hori itolarria eta itonahiezaren auhena: “Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan” ez sortu izanaren damua! Berriz esanda ere, nolaz ez ote zuen leher egin bihotz harek estura haretan?

Baina entzun ditzagun, irakurle, hurrengo bi bertsoak, eta atera gaitezen “labe gorria” honetatik haizerik goxoenera:

Orai ez dakit, Jauna, Zu edo
ni aldatu ote naizen,
etzira egun ene gogoan
lengo itxuraz agertzen;
gertatzen denaz, o Nagusia,
kartsuki zaitut eskertzen,
gure arteko hoztasun hartaz
hasia nintzan aspertzen,
Jainko maitea, ordu zen noizbait
lagunak egin gintezen.

Zure laguna eginez geroz
enetzat ez da nekerik,
zure behako samurak eman
nau fidantziaz beterik;
deusen galderik ez dautzut bada
egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun,
ez eta sari eskerik;
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen
amodioaz besterik.

Hori da inpernutik zerurainoko saltoa! Hori da kartzelatik askatasun muinorainoko jauzia! Horri esaten zaio beltzetik zurirako aldaketa! Zer gertatu da tarte horretan? Zer izan da hor? Zer izan den ez dakigu; baina gertakizun zorabiagarri bat izan dela, bai, badakigu.

Eta non du parekorik? Nik dakidala, bertsolaritzan inon ez. A. Estefaniak Orixengatik *Barne-muinetan* liburuaren hitzaurrean diona datorkit burura. Hala dio orexarraren liburuxka horretako olerki erlijiosoengatik: “Droste-Hilsshoffs, Verlaine, Manzoni, Verdaguer, Gabriel y Galán eta olakoen era ontako olerki-sortak ez dute Ormaetxearen onekin katoliku izatea beste arr-emanik”. Gauza beratsua esan daitekeela uste dut Xalbadorren hauengatik. Hauek beste iturri bat dute oraindai-noekin konparatuz: isilik egon ez zitekeen bihotz bat dute sorleku eta bestek ez bezalako zerbait sumatu duen bihotz bat.

Horiek kunplimenduz eginak? Horiek sekuestratzaileen engainagarri jaulkitako hitzak? “Bo, bo, bo!”, berak esango lukeen bezala.

Gutziz alderantzizkoa da horiek aditzera ematen dutena. Ez da saldukeria kantu horien eragile. Ez saldu eta ez erosi egin ez daitekeenaren nortasuna dago hor. “Hameka” urtetako haur hura dago hor gizondua. Hori dute beren iturri, ez modaren haizeek eta ez beste ezerk agorrrarazi ez duten iturri oparoa.

Zeini bururatzen zaio urte haietan horrelako kantuarekin eta kantuekin —bat eta bi baino gehiago baitira— agertzea plazara? Ez al ziren, bada, gure herriaren galgarri eta alienazio izan kontu horiek? Ez al ziren erre eta garbitu beharrekoak gure sailetatik? Ez al genuen Euskadi gorria behar?

Ez dakit nik zer beharko genuen. Nik dakidana da Xalbador ez zela saldua eta galdua izan garaiko joera eta moden artean. “Hameka” urtetako haur bortitz harek bere bidea ebaki zuela. Ez ziola inork markatu ahal izan biderik, ez eginbiderik, ez ezer. Hori haunditasuna eta hori berezkotasuna!

Baina utz dezagun alde batera haur eta gizon eskurakaitz, bere eskukoi eta askatasun-zale hura, eta goazen haur pertsuzale harengana, bertsolaria baitugu hemen interesatzen zaiguna.

“Pertsuzalea”

“**H**AMEKA” urteko haur azkar hartatik gizon bere eskukoira joan bagara ere, berriro haurraren gana itzuli beharra daukagu, gure gaia bertsolaria baita, eta horren hasiera haur “pertsuzale” bat. Eta nolako “tirria” autematen edo sumatzen omen zuelako gure mutikoak! Zoragarria da *Pertsuzalea* izeneko kapitulotxo hori, Xalbador hura ezagutzeko ez ezik, edozein haurren sikolojiara hurbiltzeko ere. Txikiak bere burua non duen ikusteko, paregabea da urepeldarrak bere haurtzaroaz egiten duen deskribapena.

Hamaika urtetan eskola uzten du; baina ez ikasketa guziak. “Katiximari jarraiki nintzaion bururaino” esango digu. Dotrina edo Kristau-ikasbidea ez du uzten. Bukatu arte segitzen du. Eta bitarte horretan beste ofizio bat hasten du: berrettar edo mezialaguntzaile. Eginkizun horretarako hartzen du apezak hamaika eta hamalau urte bitarte horretan. Hortik aurrera ez dezake lan horretan segi, artaldea bere gain uzten baitute hamalau urte inguru horretan: “hamalau urtetako ene gain hartu nituen ardien lan guztiak”. Artzain eta berettar ez dago izaterik, orduan behintzat ez zegoen izaterik, bietan ere goiza baitzen ordurik sakratuena. Eta elizakoa utzi eta mendikoarekin gelditzen da.

Elizako ofizio horretan bada zerbait berak adierazten duena eta seinatu beharreko. Bere eginkizuna ez da meza laguntzea bakarrik. Meza kantatzea ere bada. Berak dioen bezala, "orduak meza kantatuak emaiten ziren aste egun batzuetan ere". Egia. Hilen aldeko meza eta abar kantatuak izaten ziren. Eta Xalbadorrek kantatu egiten du meza "apezaren lagun". Herriarena edo koruarena gure mutikoak kantatzen du apaizari erantzunez. Gure berrettarra ez zen, beraz, binajerak aldarera eramanez eta erretiratu bakarrik egiten dituen horietakoa. Askoz ofizio aberatsagoa du.

Eta aproposagoa ere bai, nik uste, geroko ofizio zail hartarako. Ez al zen ihardun egokia "apezaren lagun" kantatze hori bere ahotsa egiteko, finkatzeko eta geroko kantuzko ofiziorako prestatzeko? Zeinek duda? Hare gutxiago, "kantuz gustu bainuen ordutokoz" berak esaten badigu. "Gostukoa" du, beraz, eta egokia gure mutikoak bere berrettar ofizioa gero izango duen bertsolaritzarako. Kantuak "denak latinez emaiten" zituen, baina berdin balio zuten ezterria eta belarria egiteko, eta norbera bere ahotsaren lagun egiteko.

"Hortik laster hasi nintzan kantu euskalduneri ere oharitzen" dio hurrena. Kantuan ikasten ari da eta berari dagozkion kantuak ikastera ere badator. Zeinek erakutsia ere badu. "Artzain lagunen ganik ikasi nituen zorbait" dio. Zernahitarako astia, zorbait aldiz, duen ofizioa da artzantza, eta Xalbadorrek kantuak ikasteko hartzen du bere lagunen ondoan. Baina ez dira bere maisu bakarrak.

Xalbador pertsuzalearen ondoan bada norbait espreski aitatu behar dena. "Artzain lagunen ganik" nola ikasten zituen esan digu; "bainan gehiago handik eta hemendik bildu kopia batzuetarik" ikasten omen zituen. Eta nondik etorritako kopiak? Berez? Haizeak ekarriak? Ez. "Hauetarik

gehienak izeba Marianak eskuratzen zauzkitan". Bazen norbait andre hau. Bazukeen "gostu" kantuetarako eta bertsoetarako, eta badu Xalbadorren bizitzan lekurik. Zer ikusten ote zion bere iloba zorrotz hari izeba Marianak? Sumatzen ote zuen bazegoela mutiko harengan dohain bereziren bat? Sumatzen bazuen, ez bazuen, ez du gutxi balio "tirria" hura zeukan ilobari zegokion bezalako azkurria eman izanak. Mariana zuen izena gure andreak.

Hor, bada, gure eskolako desertorea kantuzko eta bertsozko eskolan bete-betean sartua. Non kantatua badu eta zer kantatua ere bai, dela latinez elizan eta dela euskaraz mendian. Eta nola baliatzen delako mendiko bakardadeaz! "Badut zorbait xaramela aterarik nere ardien inguruan" dio espantu puska batez. Eta nola ez kanta halako publiko ezti batentzat? "Iduritzen zitzautan heieri ere laket zitzaiotela kantua". Burua altxa eta jateari utzi ere egiten ote zuten beren artzaintxoaren kantuairengatik? Edo ondo janda hausnarrean ari zirenean ematen ote zien bere konzertua gure artzainak? Pintore on batentzat baluke gaia Xalbador bere artaldearen inguruan kantari ikuste horrek. Hori da, hori, zeru-errainua!

"Kantuz gostu" bazuen ordurako, eta gustuko kantuak ere bai. Entzulego maitagarrikerik ere ez zitzaien falta. Nolako gozatuak hartzen ote zituen bihotz harek bere izpirituaren ahoan, hain janari gustagarriak behin eta berriz erabiliz! Zein harri daiteke, beraz, Xalbador miresmenez betea ikustean kantu horien egileentzat? "Xoraturik egoiten nintzan mixteriozko gizon horiek gogoan". Hori amestegia gure artzainarena mendikoa.

Zeinek ez dio hartzen gure mutiko horren bihotzekoari halako udaberri-giro zoragarri bat? Dena kantu, dena argi, dena amets, dena bizi?



*Xalbador, hamalau urtetan, bere lagun
Manex Goienetxe zenarekin.*

Berriz esanda ere, zeru-errainu bat badu gure artzaiaren mendiko egoera horrek.

Eta, jakina, bihotzekotik ari bada mihia, erraz da jakiten Xalbadorrena zertan ariko den, hartarako aukerarik duen bakoitzean. Eta izan horretarako laguna! Beste artzain bat du. Ofizio berekoa, beraz, eta berarengandik hurbil dabilena. "Berak ere maiz pertsulariak zituen mihian" dio lagunarengatik. Eta gero "bainan harek aipatzen ez bazituen, nik ekartzen nuen horietaz elea" gaineratzen du. Horra, bada, gure Pierre eta gure Perrando bertso kontua dariela! Batarenak atertzen direnean, besteak ematen dio giltzari eta etengabeko jarioa badu bi artzaien artean bertsoak.

Izeba Marianaren hurrena, hau du irakasle gure artzain ttipiak. Bata errients edo maixtra, eta bestea errient edo maixua. Ari da eskolako desortea irakasle berriz eta egokiz hornitzen. Maixtrak lezioak bildu egiten dizkio bakarrik. Maixuak esplikatu ere egin diezaizkioke. Hau ez da zalea bakarrik; hau egilea ere bada. "Nik ezagutzen ditut hunek egin kantuetarik bida hasteko" dio lagun horrengatik. Aparteko laguna du hau Xalbadorrek.

Gainera, gure Pierre Hegoaldean bizi izana zen, eta hemengo bertsolari haundien berri ikasia zegoen. Ikus zer aitormen egiten dion urapeldarrak: "Txirrita eta haren lagunak ezagutzen zituen. Ardurara mintzo zitzaukun heietaz, eta heiek eman pertsu famatu guziak bazazkian. Nik horren ganik ikasiak ditut". Zer maixua gure Pierre bere artzain-lagun ttipiarentzat! Hori bertso-eskola tokatu zaiona Xalbadorri! Zer bertso almazena ariko den bilakatzen gure artzaintxoaren gogoa! Badu materialik mendiko bere hausnarketarako. Badu zertan eta zerekin gozaturik bere bakardade betean.

Eta nola ote dago gure artzaintxoaren barnea? Bere ametsetako bertsolariekin "xoraturik" dagoen

gogo hartan zer sendimendu ote daude? Erantzuna asmatzen ez litzateke zaila, noski; baina ez gaitezen sar ustekeriatan, eta entzun dezagun zer dion bertso-munduak horditurik daukan mutikoak: "Gizon horrekin elekatzen nintzan guziz, hautemaiten nuen nihaur pertsulari izaiteko tirria bizi bat".

Ez bide zara harritu, irakurle, Xalbadorren hitz horiek irakurrita. Bazenekikeen zertsu grina zegokeen bihotz gazte haretan. Zer besterik egon zitezkeen, beste konturik eta solasik ez darabilen mihi haren atzean? "Tirria" bat zegoen derrior. Eta tirria hori pertsulari izatekoa da. "Esperantza izpirik" ez omen zeukan, ordea. Baina horrelako tirria eta sua eta grina eta joera eta zaletasuna dagoenean, esperantza jaio egiten da, eta mamitu eta egi bihurtu. Esperantzarik hoberena barneko indar hori bera da. Horrek du pertsona eramaten eta uste ez zen lekuetaraino helarazten. Xalbadorren su horrek ere egingo du berea. Ez bide dago urrun ordua

“Kasik nihaurek nahi ez nuela”

ZER diozu, Xalbador jauna? Zer da “kasik nihaurek nahi ez nuela” hori? Ez zenuela nahi? Eta non da “pertsulari izaiteko tirria bizi” hura? Esan ezazu, nahi baduzu, oharkabean bezala atera zitzaizula; baina ez, Jainkoagatik, nahi ez zenuela. Zer dagoela uste duzu bada barnean, mihiak beste konturik ez darabilenean, gogo eta grina eta tirria eta, hitz batean, errendi ez daitekeen nahi ikaragarri bat besterik? Nahi zenuen, bai, Xalbador. Eta nola nahi ere! Uste gabean zerorreri gainez eginarazteraino. Zure ahotik ihes doan bertso hura, nahi kontrolakaitz batek botarazi dizuna da. Ikusia zegoen lehertu behar zenuela, eta lehertu egin zinen, jauna, ordua iritxi zenean. Horregatik “pasatu zena pasa” zen, Xalbador.

Ordua eta egokiera bereziak eta aproposak ziren. “Lehen aldia zen” pertsulariak entzuten zituela. Entzuna zuen bazirela hor elgarri pertsuka artzen zirenak ostatu horietan. Leher egiten zutela heiekin irriz. Baina berak ez zituen artean entzuna, ez baitzen “orduan oraino ostatuetan ibiltzen”. Hura baino lehen tabernetan sartzen hasiak ziren lagunak bidez jakin izan zuena, egun hartan begien bistan zeukan.

“Lau edo bortz gizon” ari dira ostatuko sukaldetan “pertsuka”. Hor dauka bertsolaritza bizi-bizian. Harek bihotzean eta mihian eta ia-ia bere solas guztietan darabilzkien jaunak, hortxe dauzka aurrez-aurre. Entzun ditzake, eta ikus, eta suma berari deika bezala, tartean sar dadin eta bere ametsetako ofizioa estreina dezan. “Tira ahala ari” dira, “kasik aldiarik ezin hartuz”; baina hari egingo diote tartea.

“Ixilduxe” dira. Oraintxe da ordua. Eta ordua iritxi denean, Xalbadorren ahotik badoa bere “lehen pertsua”, bertsolariak lehenengo aldiz entzun zituen egunean kantatua. Ordu berezia zen hura, eta hantxe lehertu zen Xalbadorren “pertsulari izaiteko tirria”. Hamasei urte zituen artzainak.

Artean ez omen zuen bertso bakar bat ere kantatu. Eta ezta saiatu ere “baten moldatzerat”. “Tirria senditzen” zuen; baina beldur zen asmatuko ez ote zuen; edo, behintzat, haren ametsetako bertsolari haien aurrean lotsagarri gertatuko ote zen. Nola hasiko zen, bada, harek zekizkien kantu eder haien parekorik egiten, eta zekizkien Hegoaldeko bertsolaririk haundiienen bertso eder, herriak ederragotuak batzuetan, haietakorik “entseatzen”? Ederregia zeukan bertsolaritza, “gazte mukuzu bat heien artean” sartzen ausartzeko. Horregatik ez bide zuen artean bertsozik kantatu, ez egin, gure artzainak.

Egun hartako haiek, ordea, “harrapatua” zuten haiek, horretarako ainaxe ziren: “tirria bizi bat” zeukan bati tentazioa emateko ainaxe. “Bainan etziren —dio— nik amensten nituen heietarik; ez beti ere, nik nazkien kantuen egileen hainekoak. Harrapatua nintzan. Ez nituen dudarik gabe pertsularitzat hartu ere. Bertzenaz ez zen pasatu zena pasatuko”. Han ez zegoen gaizki gelditu beldurrik, haiek ainean kantatzea ez baitzen zaila, eta haiek baino okerrago kantatzea ere ez erraz. “Bertzenaz” hasiko

zen bertsoan! Ordua berezia izan zen, eta egokiera aproposa. Norbera baino hobeak ez aurrean. Haatik esan zion bere buruari: "Horiek bezanbat nik ere egin nezeakek". Eta hasi egin zen, eta bota egin zuen bere lehen bertsoa.

Gainera, gainera... ez ote zuen zirikatzailearen bat ere izan?

Ez zen bakarrik ostatuko sukaldeko leihoaren kanpokaldean. Han zuen alboan bere "betiko lagun Lorentzo". Elkarrekin ziren mendira joatekoak, eta Lorentzoren etxolarat gainera. Ez ote zion aldamenetik esaten: "Botaiek" Botaiek"? Ez ote zuen lagunaren bultzadak murgilarazi bertsozko itsasoan gure Xalbador? Ordu hau gogoan zuela kantatu ote zuen urepeldarrak 1965eko txapelketan honako hau?

Ni erantzuten zuri, Alfontxo,
orain bainago hasia,
Jainkoak eni ere eman daut
bertsolarizko grazia,
gauza bat bada denen aurrean
hortako premi hartzia:
segurtamena bere buruaz
ta gainera ausartzia.

"Ausartzia". Uretara salto egitea. Menturatzea, Une hau zeukakeen ere gogoan, bere lagun Mattini *Dohaina eta lana* kantuan honako hau esatean:

Orroit naiz egun batez senditu nuela
dohain berezi hori, Mattin, zuk bezala.
Hasi nintzan artoski lantzen bereala,
baina gelditu banintz uzkur ta gibela,
segur naiz pindar hura ilaunduko zela.

Ez zen gelditu "uzkur ta gibela", Egin zuen salto menturazko ofizio berrira. Eta izan dugu ber-



*Xalbudor, Angelesaineko leiho ondoan, here lehen bertsoa bota
zuen tokian.*

tsolaria. Ez zen “ilaundu” “pindar hura”. Ez zuen hautsak itto eta jan prasa. Lagun Lorentzoren bulzadatxoa? Ez nuke ezetzik esango.

Eta seguru esango nukeena zera da: ez zela haserre joan gau hartan gure Lorentzo bere lagun bertsolari jaioberriarekin etxola aldera. Nolako poza eraman ote zuen bere laguna gai zela pentsatuz? Amets ere, Xalbador, ez dakit zer zerutako plazan txalotzen zuela egin bide zuen gau hartan Lorentzo gazteak. Bertsolari berri baten jaiotzaren testigu izan zela bazekien “besta bigarreneko” gau hartan. Eta laguna zuen bertsolari jaioberria.

Etxolan beraren aldamenean etzan zen harek ez zuen halako amets gozorik egingo gau hartan. Hartu ote zuen lorik? Barnean sosegurik ez dagoenean loarentzat ez dago lekurik, eta bertso haren ondorengo orduak Xalbadorrentzat ez bide ziren soseguzkoak izan. “Zakur batzu bezala oldartu” zitzaiykiola sukaldeko entzule haiek, bere bertsoa, tiro bat bezala, beren artean senditu zutenean?

Jakin nahi nuke nolako irakina sortu zen tira-tzailearen barnean. Zenbat halako eta halatsuko bertso pasa ote zituen burutik etxolako kamainan? Eta bota berri zuena? Nolakoa iruditu ote zitzaion? Zer esan behar zuela, ondo izatera, pentsatzen ote zuen, eta zer ez? “Zer pertsu eman nuen ez naiz orroitzen” esaten badu ere *Odolaren mintzoa* liburua idaztean, han orroituko zen, eta hura ez bezalakoak egiten ere saiaturiko zen bere ohatzean bueltaka, hartzik ere ez baitzen izango, urte sasoi horretan, etxolako kamainan.

Eta... zer tirria piztu ote zitzaion, eta zer bildurra, herrian notizia nola zabaldu zen jakiteko? Zer ote zioten bere lagunek, eta zer besteek? Pierre ere jakinaren gainean izango zen. Eta izeba Mariana? Noiz itzuli ote zen jende artera gure Xalbador bertso hura bota eta gero? Izan ote zuen ausardirik “zakur

batzu" bezala jarri zitzazkion haien aurrera azaltze-ko hurrengo egunetan?

Ez dakit; baina seguru nago ordu hartatik aurrera, bere burua bilutsik bezala ikusten zuela jende aurrean. Bukatu zen bere bakardadeko eta ametsezko bertsolaritza liluragarri hura. Puskatu du arroltzearen axala. Atera da mundura. Denak beha ditu. Ez da gehiago bere eta beretzako bakarrik. Publikoarentzat da.

Eskola berrira

“**B**ESTA bigarrenian” gertatu zen hau ere. Gazte batek sukalde barnera leihoz kanpotik bertso bat bota zuela. Eta hantxe bukatu zen Fernando Aire hamasei urtetako gazte artzaina. Hantxe jaio baitzen, eta orduantxe, Xalbador, bertsolaritzaren izar bat.

Baina jaio egin da bakarrik. “Munta haundiko” ordua izan zan hori. Noizbait leher egin behar zuen, eta egin du. Bota ditu, murgildu aurreko ikarak. Esan du bertsolari nahi duela izan. Erakutsi du “tirria”, lehenengo aldiz bertso biziak entzuten zituen orduan. Hori egina dago. Orain igeri ikasi behar du. Eta hori ez da egiten besteren bertsoak buruz ikasiz eta haiekin gozatuz eta egileak mires-tuz. Hori, bertsoak bat-batean eginez eta hutsseginez eta ezinez ikasten da. Eta non entseatu horretan? “Sukalde” barnean. Non atera zaio lehenengoa? Zerk leherrarazi du? Hurrengoak ere horretxek berak jalkiaraziko dizkio. Utzi leihoz kanpokaldetik kantatzeari, eta barnera sartu behar du. Han dago entrenamendu eskola. Ariketak non eta norekin egina bada. Hor du eskola berria.

Sar gaitezen berarekin barnera. Eskola zahar eta txar hartako berri berak eman zigun, eta utz diezaiozun berrikoarena ere ematen. Hona zer dion:

“Beraz, ene lehen `pertsua leihoaren kanpotik eman banuen ere, hortik laster hasi nintzan barneko alderat ere sartzen, bai eta pertsu gehiagoren emaiten.

Ez dakit noiztik, bainan aldia hartan Urepele'ko ostatuetan izaten ziren, bi trago eginez geroz, pertsutan hasten zirenak karraskan. Ez dut nehor izendatuko, hainbertze baitzen entseatzen zenik. Gero ahatik denak ixildu ziren.

Ikusi izan ditut artzen, eta nihaur ere ba ari izan, lau edo bortz lagun jarri mahain baten inguruan, arnoa ekar arazi eta hori: pertsua bururatzen etzuenak paga. Eni etzaut behin ere gertatu pagatu behar izaita; zerbait gisaz moldatzen nintzan beti bururatzeko.

Ostatuan pertsutan artzeko ohidura hura, uste dut Gipuzkoa'ko Zaldibi'tik hunat jin artzain batek ekarri zuela. Joxe Tolosa deitzen zen gizon hori; baina guk Joxe Epele erraiten ginion, Epelea izeneko etxean bizi izan zelakotz. Gipuzkoarra zuen emaztea ere, Gabiria'ko alaba eta Eusebio Igarzabal pertsulari ezagunaren izeba. Jadanik aipatu Lorentzoren aita eta ama ziren. Biak zenduak dira.

Lorentzoz bertze hiru seme eta alaba bazituzten, bizi diranak gaur ere: Balentin, ene arreba batekin ezkondua, Martin eta Piarre, eta alaba Teresa.

Gure Joxe maitea, ostatuan papoa berotzen zitzaioneko, berak erraiten zuena, bertsoan hasten zen. Badugu zombait irri eginik harekin. Batere etzuen molderik, bainan beti ari zen. Bertzea frango ere hasten zen haren inguruan, haren seme zombait ere barne.

Eta, nik uste dutan bezala, harek ekarria bazen ohidura hori hunarat, ni ere hari esker hasi nintzan. Beraz, nahiz ez dutan dena horien gain emaiten, gipuzkoarrek badute haste hastetik parte haundia

ene pertsulari izaitean. Berek erran lezaketena, "ondoren zer esanik ez".

Horra zer eskola, eta horra bertako maisu nagusia: Joxe Tolosa. Ikus zenbat gauza esaten digun Xalbadorrek gizon horretaz. Ez da dudarik esker onez betea dagoela maisu honentzat eta bere eskolarentzat. Ez dauka ukatzeko jaun horri eta bere eskolari eta bere sorterri eta eskualdeari dion zorra. Badaki Xalbadorrek bere bertsolari izateak non dituen sustraiak.

Eta badakigu, taberna afizioz baino lehenago ofizioz ezagutu dugunok, ez dela gezurra Urepeleko ostatuko kontu hori. Joxe Tolosak Zaldibitik bezala, beste hamaika "Joxe Tolosa" modukok eraman zezakeen Gipuzkoako edozein herritatik ohidura hori, Urepelera ez ezik, beste mila herritara. Zeinek ez dauzkagu begietan "papoa berotzen" hasi orduko bertsotan ekiten zioten jendeak, zahar nahiz gazte? Zenbait garaitan ba al zen hasten ez zenik? Eta gero zeinek isildu? Askok ez al zuan uste izaten azkena isiltzen zena zela irabazle? Eta zeinek ez du txapeldun izan nahi izaten? Bai; ongi ezaguna da ihardun hori. Sagardotegietakoen parekoa, nik uste. Eta haien ordezkoa?

Gaur beste moduzko bertso-eskolak dauzka "tirria" duen batek; baina orduan ez zen horrelakorik. Eta eskola guztietan hoberena, gaur, bertsolariak ikus eta entzungailuetan da. Orduan hau ere falta zen. Xalbadorrek ez al digu esan lehenengo aldiz bere hamasei urterekin egun hartan entzun zituela bertso biziak? Gaur atero eta orduoro dauzka entzuteko eta ikusteko eta ikasteko eta bere "tirria" asetzeko edozeinek.

Leihoz kanpotik estrainatu zen bertsolaria, orain sukalde barnera dator. Han dago maisu jendea. Haien artean eta aurrean frogatu beharko du "tirria" hura tirri hutsa den ala beste zerbait gehia-

go ere baden. Berez dakarkeen hori landu beharra dago. Ez da aski haziarekin. Ederki adieraziko dio bere lagun Mattini sukaldar berri honek *Dohaina eta lana* bertsoetan:

Zonbaitek uste dute, sortuz geroz behin,
bihia segur dela hazi onarekin.
Ez badugu laguntzen handi ta ont dadin,
landare hoberena galduko da berdin:
uzta nahi duenak behar du lan egin.

Lan horri ekiten dio gure artzainak Angelesai-
nea ostatuko sukaldean.

Hamasei urteko "gazte mukuzu" harentzat izango zen han tirorik eta ziririk eta zirtorik. Lehen-lehenik esplikazioak eskatuko zitzaizkion leihoz kanpotik bota zuen bertso harengatik. Ea an bertan etorri al zitzaion ala menditik prestatua ekarri zuen eta abar. Zergatik ihes egin zuen mendira eta ez zuen han segi ere galdetuko zitzaion. Eta harro an-txean zekarren tontor hartan akaso izango zen ubelduren bat egun hartan, eta zimikoren bat ere ez fidatu, amets goxotan bizi zen bihotz hartan.

Baina sartutako damurik gabe atera bide zen presentazio hartatik, artean ostatuan izan gabea zen harek handik aurrera "kobratu" baizituen "den-bora galduak". Inguruan zeuzkanak ez ziren haren "amentsetako" bertsolariak; baina ari egiten ziren; eta gure artzainak hori behar zuen: ari eta ari. Eta ari eta ari, haren "hamalau hamabortz urtetako amentsa erdi egi bihurtua zen". Lehen "tirria" baka-rrik zuen, "esperantza izpirik" ez "pertsulari izaite-ko"; baina orain badaki izan daitekela.

Ariketa horiek eman dute beren fruitua; bertsoetan jarri dute gazte amenslaria. Orain mendian ere bertsoetan ari da. Entzun:

“Bakarrik nintzanean, alde guzietarat entseazten nintzan. Bat batean egiten, zuzen edo makur; bai eta, denbora hartuz, hobexago batzuen moldatzen ere”.

Hori da bertso-jarioa hasi zaiona “gazte muku-zu” honi! Eta hori ahalegina berarena! Zeinek ez du ikusten gure Xalbador momentu horretan puntu-puntu plazara ateratzeko?

Baina plazak itxaron beharko du oraindik urte batzuetan. Iparraldeko plazak soldaduek hartu dituzte eta ez da “pertsu aro”. Bigarren Gerla Mundiala hasi da, bost urte iraungo duen gerla. Gainera gure bertsolariari aita hil zaio “kasik egun berean”. Hain ederki datorren landare hori igartuko ote da? Ekaitz horrek ondatuko ote digu? Arriskua izan zuela esango digu berak:

“Handik goiti ez nuen funtsik kantatu. Gerla denborako egoera gogorrek kasik itzali zuen, nitan doi doia indartzen hasi su hura; etzen pertsu aro. Ez da dudarik kalte haundia egin ziola horrek ene pertsulari izaiteari. Edozoin landarek ere ez du bear den uztarik emanen, hazi bear zuen sasoinen ekaitz pean egona bada”.

Zer nahi duzu argiagorik eta garbiagorik, irakurle, fruitua emateko puntura etorri eta landare harek bererik eman gabe gelditzeko izan zuen irriskuaz? Ia-ia ito zuten etxeko ardurek eta kanpoko gerlak.

Ia bai, baina oso ez zuten ito. “Kalte haundia” bai, egin omen zion haren “pertsulari izaiteari” egoera horrek; baina galdu, ez zuen galdu. Bizirik iraun zuen “tirria bizi” harek, eta “dohain berezi hori” ez zen hil. Zorionez! Noizko ote dugu plazartzeko ordua?

Izena zure kontu

AHALEGINDU, gara, adiskide, gure haur “pertsuzalea” ezagutzen. Ikusi dugu bere “tirria bizi” hura nola landu duen. Jakin dugu bere tirria asetzeko bazka zeinek biltzen zion. Noiz eta nola lehertu zaion lehengo bertsoa ere ikusi dugu. Geroko ariketen berri ere izan dugu. Hitz batean esanda, ikasiak gaude nola garatu eta heldu den gure bertsolaria. Izan dugu haren buru-bihotzetako giroaren berri eta horri erantzunez egin duen ihardunarena. Jabetu ote gara guztiaz? Nik badela uste dut besterik.

Neri beste horren susmoa sortarazi zidana, ondorengo bertso hau duzu. *Ortzirale saindu bateteko gogoetak eta otoitza* du izena bertso sailak. 4.a da ondorengoa. Entzun:

Zure Aitaren eskuetatik
badut kargu bat ukana:
bertutearen predikatzea
gizonen artean barna.
Alegiazko kartsutasunez
egiten dut ene lana,
baina zu eta ene burua
ezin dezazket engana.

Aurreko orrialdeetan aitatu ez dugun zerbait ez al du sumarazten bertso honek? Oraindaino “dohain” bat zela esan digun bertsolari-grina hura, orain ez al digu eginkizun sakratu bat bezala definitzen? “Zure Aitaren eskuetatik badut kargu bat ukana”. Eginbide bat jarri zaio. Eta ez nolana hiko! “Bertutearen predikatzea gizonen artean barna” du bere zeregina. Zeregin haundia!

Baina, ai!, berak betetzen ez duena. Bere pre-kikua ez da benetakoa. Itxurazkoa da bakarrik. “Alegiazko kartsutasunez” predikatzen du bertutea. Hitzak eta egintzak elkarrengandik urrun dabilta. Ikus 7. bertsoa:

Ixildu dut zure borregoer
elgar zagutzen dugula,
horra naizen dohakabe hunen
bertutearen ahula!
Badakit Jondoni Petrik ere
lan bera egin zautzula,
baina nik haren urriki minik
ez dut senditu sekula.

Borrego bat da. Ukatzaile bat, “Jondoni Petri” bezala. Eta, gainera, ez dauka damurik, “urriki minik”, apostoluak bezala.

Horrelakoxe konfesioa egiten du gure artzainak bertso sail horretan. Leize haundi bat bada hor hitzen eta egintzen artean. Eta, jakina, hartu duen kargua ez du betetzen. Hitzez itxurak egiten ditu; baina bere bizitzaz ukatu egiten du bere esanez predikatzen duen bertutea. Hori kontraesana!

Xalbadorrek bere baitan senditzen duen eginbide edo obligazio hori, zer dela esango zenuke, irakurle? Izena zure kontu utzi baitut, zer izen eman-go zenioke? Nik, alde-aldeko bat asmatuaz, hauxe: profetagoa edo profetatza.

Nornahik dakien bezala, profeta, norbaiten partetik mezu bat dakarren pertsona bat da. Ez da geroaren igarle eta iragarle. Norbaiten partetik eta partez zerbait aldarrikatzen duen bat da. Eta gure artzainak eginbide horren pean ikusten eta senditzen du bere burua. Badu “kargu bat ukana” eta bete beharra dauka.

Badirudi, gainera, ez dela berarena bakarrik eginkizun hori. *Uztapideri* izeneko bertso sailean honela mintzo zaio lagunari: “Jaunak gure gain utzi lan hontan...”.

“Lan” edo “kargu” hori ez da Xalbadorri bakarrik dagokiona. Ez du “nere gain” esaten; “gure gain” esaten du. Ofizioa bera ote zeukan profetagozat? Bertsolaritzari berari zegokion zerbait ote zen “bertutearen predikatzea”, eta ez bertsolari jakin bati edo besteri bakarrik? Beraz, haren profetagoa ofiziori zor zitzaion zerbait zen, eta ez dei pertsonal bat?

Egia zera da: bere lehengotako profeta-oihua bertsolaritzaz egiten duela. Eta nolakoa gainera! *Dohaina eta lana* du izena kantua. Bere lagun Mattini ari zaio munduko errespeturik eta mirespenik zoragarrienarekin. Zer bihotz-ixuria erakusten duen! Ikus lehen bertsoa:

Agur eta ohore, Ahetze'ko Mattin!
Ea non bizi ziren nahi nuke jakin;
ez gira aspaldian egon elgarrekin,
egun gogoa zeraut zure alderat jin;
hurbilago bazintut banuke atsegin.

Hori da begirunea gizonak gizonari eta lagunak lagunari. Nola puztu eta poztu ote zen Ahetzeko ttipia, agur hori irakurri zuenean?

Agur eta hurbilketa hori ez da hutsaren truke. Lagun eta laguntza bila dator urepeldarra. Entzun:

Geroztik izan zaitut adixkide mina,
zure ganatzea da ene atsegina.
Zarelakotz pertsutan osoki jakina,
lagun bila naiz egun zure ganat jina,
biek bururatzeko ene etsamina

Bertsolaritzaz du etsamina urepeldarrak. Eta horretarako lagun bat nahi, eta Mattin hartzen du, "pertsutan osoki jakina". Nolako igurtziak ematen dizkion aheztarrari!

Zer dela eta ekiten dio urepeldarrak bere predikuari bertsolaritzarekin, Mattin lagun hartuta eta Jainkoari otoitz honela eginez: "Jauna, zuk, otoi, zerbait zerutik egizu, / gure behar orduen berri baitakizu"? Zer pasatzen da? Hona:

Koplariak metaka ziren lehenago,
bihi bat ere ez da sortzen gehiago.
Gauza hori ikusiz, gogoetan nago,
aintzina joanago eta tristeago,
pertsulari arraza gutan den akabo.

Hori trajedia! Bertsolaritza akabo! "Bihi bat ere ez da sortzen gehiago"! Mendiko bakardadean "senditu" eta karesatu eta disfrutatu eta mirestu eta landu eta praktikatu duen "dohain berezi hori" galtzeko arriskuan? Ez da posible! Nola egin behar de "bertutearen predikatzea", horretarako tresna galtzen bada? Zer da hau?

Arrisku horren aurrean ez daiteke ixilik egon. Barruak ez dio agintzen. Eta ekin egiten dio bere predikuari, bertsolaritzaz egundaino bertsoz eman den lezionerik biribilenetakoa emanaz. Baina lanaren haundiaz jabeturik, ez du bakarrik abiatu nahi, eta lagun bila dator, "pertsutan osoki jakina" den lagun bat. "Etsamina" haundia da eta ongi "bururatzeko" laguntza behar du. Bera hasten da; baina

nahiko luke Mattinek ere segi dezan “suieta” edo gai berarekin. Hona gonbitea:

Nik zerbait erraiteko aldia zen egun;
Mattin, zurea ere ez ahal da urrun.
Ez baizaitut ikusten gehiago nehun,
urrunetik bederen nahiko dut entzun
ene gaurko suietaz zer pentsatzen duzun.

Beti harritu izandu nau, Xalbador bertso horiekin estrainatu bezala izanak idatzizkoen sailean. Ezin esango didazu, irakurle, ohizko suieta edo gaia denik hori, bertsolariek beren kantuak egiterakoan erabili dituztenetan. Bestelakoak dira astindu dituzten gaiak. Xalbadorrek bertsolaritzari berari heltzen dio bere lehenengo predikuan. Eta nola heldu ere!

Harritu izandu nauen bezala mezu horrekin ateratzeak Euskal Herri osora Urepeleko zokotik, inork eskatu eta agindu eta galdetu gabe. Eta zein, eta bera. Zer da Xalbador garai hartan horrelako prediku batekin hasteko? Gero bai, badakigu nor eta zer eta zenbat izan den bertsolaritzan; baina orduan? Zeinek ezagutzen du? Zer itzal dauka?

Hor ez da dudarik, nik uste, “kargu bat ukana” hura dabilela Xalbadorren kontzientzian eta harek manatzen diola hitza ateratzea. Ez daiteke ixilik egon. Predikatu beharra dauka, eta hori egiten du *Dohaina eta lana* bertso andana zoragarriarekin.

Baina ez ezazula uste, irakurle, berak senditzen duan mezu hori zabaltzea beti gustoko gauza duenik. Entzun beraren aitormena:

Badakit askoz ere nukela hobe
neheri ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.

Zer nahi duzu profetaren zeregina hobeki adieraztea? “Kasik nihaurek nahi ez nuela” hura bezala da hori. Bai nahi eta ez nahi; baina leher eginarazten barneko zera horrek, eta ari egin behar.

Eta ari, gustatu edo ez gustatu. Nola izango du bada gustoko, adibidez, Ipar Euskal Herriari egiten dion salaketa, euskara salduz eta galduz, bere buruaz beste egiten ari omen dela eta? Nola izango zuen bada gustoko lana Eliza salatzea, erdaldunei predikatu beharrez, euskal anima hiltzen ari omen zela eta? Haur-erditze bat bezain mingarri gerta zekioken Xalbadorri mezu hori eman beharra; baina eman egiten du. Eta ez dio barkatu Herriari, ez Elizari, ez familiari eta ez inori. Mandatua mandatu da, eta ez daiteke “eduki gordea”, nahiz hori errezago eta atseginago izan.

Kexatu bezala ere egiten zaio Jainkoari urepel-darra, eginbide edo obligazione hori eginbide ilun eta triste bat delako. *Nigarra begian* izeneko bertso sailean, honela hasten zaio Jaunari kantari:

Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun
munduan zabaltzerat zerbait alaitasun;
ez dakit betidanik zergaitik naukazun
gutarteko berri txar guzien oihartzun.

Hona Xalbador, profetaren patuaren pean, eman beharra daukan mezuaren esklabo. Ez du eskaporik. Ari beharra dauka eta ari egiten da bere nahiaren eta gogoaren gainetik.

Baina gure profetaren predikua ez da bere uestezko zintzotasunaren araztetik edo kulpittutik egiten den horietakoa. Profeta umila da gurea. Pekataririk seinalatuenekin lerrokatzen du bere burua, dela Jondoni Petri, direla borreroak eta dela beste edozein. Nonahi eta noiznahi egin izan du

Xalbadorrek bere bekatuen eta akatsen aitormena, eta, batez ere, *Ortzirale Saindu batetako gogoetak eta otoitza* hartan. Eguna ere halakoxea, eta hura du bere kofesionerik haundiena eta biribilena. Ez zaigu bere predikuan zu pekatari-ka ari da.


Hala behar zuen nahi eta nahi ez. Erlijioa harek bezain sakonki sumatu duenik ez daiteke zintzotasunaren kulpittutik harrika eta tximistaka eta su dariola ari. Hori sasi-igarleentzat utzi behar da. Jainkoaren hurbiltasuna sumatu duenak bada-ki ez dezaiokeela harririk tira inori. Jainkoaren betargia ikusi zuenak —“Jainko maitea, ordu zen noizpait lagunak egin gaitezen”— ez zezakeen ohiko kondenatzaileen posturarik har. Eta ez du hartu. Prediku umila egin du, nahiz eta salatu dituen, minez eta saminez eta “nigarra begian”, bere eta besteren erruak.

Plazan: egun “munta haundikoa”

SEGITU diogu, urratsez urrats, “haur pertsuzale” hari, eta ikusi dugu nola landu duen bere bertsolari izateko “tirria bizi” hura. Trebatu da era guztietako ariketetan, dela bakarkako, dela lagunarteko. Eta badaki, “esperantza izpirik” ez zuen harek, bertsolari dela. Eta hala izan nahi ere du. Eta izan beharra ere badaukala uste du. “Kargu bat” eman zaiola pentsatzen eta senditzen du. Urepeldarrak ere ez al dezake galdegin, beste harek bezala, “zer gehiago behar dut nik”?

Guk erantzungo diogu haren galderari, eta oraindik baduela zerbait eskas esango diogu, bertsolari deklara dezagun. Plaza falta zaiola jakin behar du. Hango etsaminik ez du oraindik eman. Agiri hori falta zaio. Eta ez ditu danak onartzen plazak. Batzuk gizanditu egiten ditu, eta beste batzuk irentsi. Haren baiezkorik gabe ez daukagu esaterik bertsolari denik Urepeleko artzain prestu eta prestatua. Eta non da plaza?

Badator, badator. “Iritsi da ordua”. Heldu da gizon bat Urepeleko karrikara Xalbador pertsularia non bizi den galdezka. Eta erakutsi diote, keinuz eta guzti, etxea, eta harat daraman bidea ere bai. Han bizi dela esan dio karrikako andreak “pertsuka



Donibane-Lohitzune.

artzen” omen den mutiko gazte bat. Berak ez du oraindik inoiz entzun. Bera ez da ostatuetakozulo horietan ibiltzen. Pentsatzea ere!

Eta han doa bidean gora Hernandorena jauna, bertsolari bila etorri den gizona, medikua ofizioz —hagin konpontzailea—, hegoaldekoa izatez, baina iparraldean bizi dena aspaldian. Galdera bat bakarra darama orain buruan: “Baietz esango ote dit?”.

Baina nondik daki gure Hernandorena jaunak bertsolari bat badela Urepeleko zokoan? Mendi eder haietan sortzen den urak eraman ote dio itsas heginaino artzain bertsolariaren mendiko “xaramela”? Oraindik “egundaino plazan kantatu” gabea da. Nondik eta nola ikasi du haren berri gure hagin konpontzaile xorrotxak? Plazan kantatu gabea izatez aparte, gainera, aspaldian ixilik baitago artzaina. “Bi gertakarik jo” zuten “kasik egun berean” duela bospasei urte: aita galdu zuen eta gerla hasi zen Frantzian. Harrez gero ez du “funtsik kantatu”. Ez da “pertsu aro”. Galduxea ez ote dabil gure Hernandorena? Zeinek gidatu ote du Urepele aldera?

Norbaitek gidatu beharra dauka bada gure xaguak, halazankoa, euskararen eta bertsoaren xokoetan bazka bilatzeko! Aski ditu bere euskalzetetasuna eta bertsozetetasuna bide horietan ez erratzeko. Gainera, plazan kantatua behar al du izan batek izena eta sona biltzeko? Toki izkutuagoeetatik ere ez al dira zabaltzen hotsak eta lotsak gizartearen lau aldetaraino?

Plazetan kantatutako zenbait bertsok ainako zabalkundea izango zuen *Eskualduna* kazetan agertutako *Oilanda arroltzeño* delako harek. Arreba Marik “laudatu” zizkion. Eta izugarri “estimatu” zuen hori. Auzapezak edo alkateak emandako sosak baino ere gehiago. Bada estimua! Bizitzan lehenengo aldiz irabazten diran sosak gogoan izaten

dira gero! Xalbadorri berari, argitaratu eta handik hogeita hamairu urtera, bertsoak berriz irakurtzen dituenean, gerokoak bezain onak iruditzen zaizkio haserako hauek. Hona beraren aitormena:

“Nik, segurik, gogotik behatu diot ene “oilanda arroltzeari, eta badakizue zeri ohartu naizen? Hogeita hamairu urte horietan gauza guti ikasi dudala”.

Arreba Marik “laudatu” zizkion bertso haiek eta berari hain onak zirudizkionak, irakurriak zitzakeen Hernandorenak ere, eta artean ez ahaztuak, Urepelera bertsolari bila joan zenean. Ez ote zen ere iritxia haren belarrietaraino urepeldarrak Luhosoko *Panpale* harekin egindako saio hura? Luhosoa hala “loriatu” baldin bazen urepeldarrarekin, hotsak atereak zitzakeen ihardunak eta bazukeen Hernandorenak ere beraren berri. Ez al du aitortzen ere Xalbadorrek berak, bazela berataz “zerbait fama hedaturik”? Famak, onak eta txarrak, ez dira plazatik bakarrik zabaltzen. Hura ez zen artean plazan ibilia; baina bazegoen “fama hedaturik”.

Ez da, beraz, misterio gure agin konpontzailea Urepelerraino ere inguratzea bertsolari bila; eta bilatzea eta biltzea artzaina bere txapelketarako. Nolakoa egin ote zion harrera Xalbador gazteak? Nora behatu ote zuen, zeren galdez zetorkion gizona jakin zuenean? Egin ote zuen dudarik baietza eman aurretik? Edo “bere buruaz segurtamena” bazuen eta “ausartzia” besterik ez zuen egin? Ezagutza haren xehetasunak ez ditugu ezagutzen. Ondorioa ezagutzen dugu bakarrik: Hernandorenak baietza jaso zuela Xalbadorrengandik txapelketarako. Ez zen alper-beajea edo bidaia izan gure errefuxiatuarena. Ez zuen poz txikia ekarriko etxera bidean gure hagin konpontzaileak. Haundiagorik jasotzeko zegoen, egun hartan bere asmoetara biltzen zuen bertsolariarengandik. Zeinek duda!

Plazan dugu gizona. Tirriatzen edo irrikitzen zegokeen eta iritxi zaio ordua. Ilunpetan eta leihoz kanpotik bere lehen bertsoa bota edo tiratu zuen artzainak, badu egun argiz eta jendaurrean non kantatua. Donibane Lohizune deitzen da herria. Gogoan izateko lekua. Ez dakit baden bertan otoitarrik edo horrelakorik; baina ez legoke sobran, eta zapal lezakeen lurra ere ez alperretan.

Sinistu egingo al diogu urepeldarrari, “munta haundikoa” izan zela egun hura berarentzat esaten digunean? Harek esan gabe ere ez al genuen asma-tuko hala izan zela? Ez al zegoen plaza harrapatze-ko “tirria bizi” batekin? Ez al zuen bere “kargu” hura betetzen hasteko eguna? Bi aldiz esan gabe sinisten diogu Xalbadorri egun harek berarentzat munta edo garrantzi haundia izan zuela.

Ez da aurrenekoa urepeldarra bere lehen age-rraldia gogoan duen bertsolaria. Hamaikari entzun izan diogu kontatzen nola izan zen beraren estrainaldia bertsotan. Zertsu kantatu zuen ez dakit inork esaten duen; baina kantatu zuela bai, eta norekin eta non eta zeinek bultzata edo behartuta eta abar ere bai. Jendaurrean aritzea tokatu zaien guztiek dutela gogoan esango nuke nik beren lehenengo ihardun hura. Eta Xalbadorrentzat ere egun hura seinalatua da. “Munta haundikoa”.

Guk sinestu! Baiña zergatik izan zuela dio berak horrelako munta? Beldurrak bota zituelako? Plazak jan ez zuelako eta haren etsamina ongi pasatu eta plazagizon atera zelako?

Hori guztia gertatu bide zen, jakina! Bestela ez genuen Xalbadorrik izango. Haren esanetan, ordea, beste zerbaitengatik da haundia egun haren munta. Ezagutza bi egin omen zituen egun hartan: Euskal Herriarekin bata eta Mattin maitearekin bestea.

Bi ezagutza horiek dira urepeldarraren gogoan gelditu direnak egun hartatik. Horiengatik da



Parisen 1958an.

Ezkerretik: T. Hernandorena, Mattin, Xalbador eta Uztapide.

munta haundikoa. Gure artzainaren ustez, egun hartan zabaldu zitzaion bertsoarako atea Euskal Herrian. Eta zer nahi du horixe besterik mezu bat ematera datorrenak? Donibane Lohizunen hartzen du bere bertsolari katedra Xalbadorrek.

Eta beste ezagutza gero! Hori berriz hortik honerakoa! “Gure Mattin maitea ere han ezagutu nuen”. Ai, gure Mattin, gure Mattin! “Irriaren giltza” omen zen hura; baina lagun hoberik “non aurki” “non bila” gure urepeldarrak? Asma al zitekeen bikote elkar-osatzaileagorik? “Aurpegi iluna” urepeldarrak eta “arrai aurpegia” aheztarrak. Beren eta besteen bihotzetako sendimendu gazigozoak zeinek hobeki kanta argi-ilunez egindako bikote horrek baino?

Ez da harritzeko Xalbadorrek munta haundikoa izan zela egun hura esatea. Egun hartan aurkitu zituen batera bere publikoa eta bere ofiziorako laguna. Aurkikuntza bikoitza. Ezagutza bikoitza. “Munta haundikoa” izan bear derrior egunak.

Oraintxe bai esan dezakeela zinez gure artzainak ere “zer gehiago behar dut nik”? Badu plaza. Badu plazarako laguna. Orain haren bertsoak falta dira bakarrik.

Agurra

BERE lehenengo plazan egin zuen lehen agur hura eskuetan edukitzeagatik ez al zenuke zertxobait emango zuk, irakurle? Bertsozalea baldin bazara eta Xalbador zerbait ezagutua, ez dago dudarik eskusa haundirik gabe emango zenukeela zerbait. Nik ere bai. Eta are gehiago, entzun ere egiteko aukerarik banu. Ahots bero hura, jabearen bihotza urratuz eta besteonak urraraztera ateratzen zen ahots hura, nork ez luke entzun nahiko? Nola libratu ote zuen bere lehen plaza-egunean? Horixe emango genukeela zerbait. Eta zerbait baino gehixeago ere bai.

Zernahi ez ez nuke emango, Xalbadorrek bere leihoz kanpoko lehenengo bertsoa gogoan zeukaketenari emango omen ziokeen bezala ixilik gordetzeagatik. Hori ez. Ez naiz zernahiren jabe. Eta izanda ere... Gauza bera esan ote zezakeen gure artzainak Donibane Lohizuneko bere lehen plaza-bertso harengatik? Ez digu fitsik esaten egun hartako bertsoez, ez lehenengoaz eta ez hurrengoaz.

Prestatua ekarri ote zuen estraineko agur hura? Baliteke. Eta zekarren bezalakoa atera ote zitzaiion? Litekeena hori ere. Ez, ordea, segurua. Hamaika aldiz entzun izan diegu bertsoari, ustez prestatua zekarten harek nola hutsegin zien. Ez du biziro ona izan behar prestatuegia ekartzeak. Hala

ere, zerbait buruan pasa gabe etortzen den bertsolaririk ez dut uste denik.

Bainan agurrak banan-banan entzun edo aztertu ahala, garbi ikusi ohi da halako edo holako agurra ez dela etxetik ekarria, bertan sortua baizik, dela aurretik kantatu denen bati jarraiki zaiolako, dela plazan ikusten nahiz gertatzen den zerbaiti heltzen zaiolako, dela beste edozein ñabarduraren-gatik. Harek plazako seilua du; ez etxekoa.

Egia zera da: agurrari, sarrerakoari nahiz despeirakoari, beren eskerra ematen diotela bertsolariak.

Aurtengo udakoa esango dut. Sei bertsolari nituen jaialdian, eta hiruk bakarrik azken agurra egitea neukan pentsatua nik, bukaerako ihardunean puntuka jarri bait nituen beste hirurak. Hori adierazi egin nuen gainera, eta "guk ere egingo dugu agurra" esan zidan baztertutako hirukoteko batek,

Harek gauza bat adierazi nahi zion entzulegoari: alegia, bertsolari zahar eta berrien arteko topagune bat izan zela herri hartakoa. Eta egia zen. Bazen bat gaxte-gaxtea, bazen gaztea, bazen gazte txit heldua eta baziren hirurogeitan ondotxo pasatako beste hiru. Belaunaldien arteko gurutzaketa hori azpimarratu nahi zuen delako bertsolari harek, eta egin egin zuen. Ez zen etxeratu egun hartakoari seilu hori jarri gabe. Ederki! Garrantzia zuen zerbait zen hori harentzat, eta despeirako bertsoaz baliatu zen entzulegoari hori adierazteko.

Azkeneko honetan gehienetan, jaialdiari doakion seilu bat jarri bezala egiten dute. Ondo joan dela? Txaloak eskertu eta entzulegoa igurtzi. Nola-hala xamar ibili direla? Barkamena eskatu eta hurrengo batean hobeki ariko direla hitzeman. Norbaitek tokatu zaion gaia ez duela ongi burutu? Huraxe biribiltzen dizu azkeneko horrekin. Horrela-

xe izan ohi dira agurreko bertso horiek. Ia-ia, horiek bakarrik entzunda, balekike batek jaialdia zertsu izan den. Zein aritu den ongi, zein erdipurdi, gairik nabarmenena zein izan den eta bat eta beste. Bakoitzak bere zerbait izaten du esateko, eta bere ikuitu hori eman gabe ez du ia inork bukatu nai izaten eguna.

Eta honetaraz gero, nahiz eta hemen sarrerako agurkera dugun aitatzekoa, ikus dezagun Xalbadorren azken agur bat argigarri. Ez noiznahikoa. Egun seinalatu batekoa da, bai berarentzat eta bai bertsolaritzaren historiarentzat. Xixtuak jo zizkiotekoa da. Hona:

Ez dakit egun zer pasatu den
nik prontoi hunen barruan,
holako gauza ezberdin batzu
pasatzen dira munduan;
bertzen txistuak entzunik ez naiz
ni oso pozikan juan,
txapela beti ondo dagola
lenago zagon lekuan.

Posible al zen egun hartan Xalbador agur hori bota gabe gelditzea? Bertsolaritzak bere kondairan ezagutu duen egunik ikaragarrienetako hura ez al zen motz geldituko urepeldarraren kronika hori gabe? Txistuak, nahigabea eta txapeldunari aitormena. Ez zen posible. Zerbait faltako zitzaion egun gogoangarri hari. Eta ez zen ere nahikoa izango bestek egitea kronika hori. Gudu haren erdian, inolako errurik gabe —“errua ez daukat, ez, nik”—, bi aldeetako suaren erasoak nozitu zituenak berak egin beharrekoa zen kronika. Eta hala egin zuen, eta hala bukatu zen egun ahaztezin hura.

Gatozen, ordea, haserako agurretara, horretaz bait dihardugu orain. Nolakoa entzun ote zioten

Donibane Lohizunen bildutako jendeek Xalbadorri plaza estreinatzen zuen egunean? Prestatua? Buruan pasea? Bapatekoa? Prestatua edo ez prestatua, jantzia entzungo zioten. Ez zen ohiko "egunon" eta "zer moduz bizi zerate" eta horrelakoekin konformatuko. Kexu antzean sumatu izandu nuen nik urepeldarra, zenbaitek han eta hemen agur bera erabiltzen zuela eta. Harenak izango zuen bestelako mamirik.

Xalbadorren agurkerari tankera hartzeko, irakurle, hiru hautatu ditut nik.

1962ko Errege Egunkoa da lehena. Honela dio:

Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean hasi beharra;
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiren par-parean
gelditu zeraut izarra.

Ez dakigu bertsoa buruan pasea edo egina edo prestatua edo zer zekarren artzainak. Guk dakiguna, ederki sartu zala besteen arrastoan edo hildotan, eta bere ohiko argiz eta edertasunez, bai axal eta bai mami, egiten duela bere agurra Xalbadorek.

Erregeen eguna da, gogorarazi dioten bezala edo bazekikeen bezala, eta ez da harritzekoa sasoiko sentitzea. Gainera, haiek bezala, berak ere bidaia du. Bizkor abiatzen da, "azkarra". Eta ez zaio falta, erregeeri ez ezik, bideraskulerik: "gero Donostiren par-parean gelditu zeraut izarra". Hori gauza! Zeinen paralismo egokia eraikitzen duen Xalbadorrek

jaiaren eta bere bertso-egun haren artean, eta Erregeen bidaiaren eta berearen artean. Amaitu ere, izarra pausatzen den lekuan egiten zaie bieri.

Pentsatua bazekarren ez bazekarren, ohikoa ez den hornidura du bertso horrek. Eta bukaera hori? Noiz entzun da horrelakorik? Aparta! Eta zer nolako igurtzia ematen dion Donostiari eta egun horretan bildu den jendeari! Ez dut inoizko ospakizunetan edo horrelakoetan jaso eta gogoratua ikusi erremate hori; baina behin baino gehiagotan gogoratu beharko luke Donostiak Xalbadorrek nola kantatu zion behin “Donostiren par-parean gelditu zeraut izarra”. Ederra! Donostiari tokatzen zaion bezala-bezalakoxea.

Bigarren dakardan hau neronek jaso da. Behin behar eta, lagun baten lagun joan nintzen Elizondora. Guk errepidean ez genuen elurra zapaldu beharrik izan; baina alboetan bazen eta handik harago zer esanik ez. Horregatik ibilia izan behar zuen Mattin bera ere Irundik barna itzulian, Otsondotik etortzerik ezta, asmoa omen zuen bezala. Hotza zen eguraldia, eta bustia eta tristea.

Hala ere, nonbait, eragozpen horiek gorabehera, jende asko bildu zen Elizondoko trinketean, Xalbadorren iritzirako. Eta gertakizun horrek harrotu egiten du gure artzaina. Horren giro txarra eta hainbeste jende jaialdira! Egoera horretan egina da honako sarrera-agur hau:

Jaun-andereak, pozik ginauzke
gaur ez bagara erotzen,
otzarengatik ikusi ditut
entzule asko etortzen.
Ez dakizue gertakizunak
noradino nauen pozten!
Saiatuko naiz ene bertsoez
zuen bihotzak berotzen.

Hotzak eta bustiak eta halako giro tristeak jendea etxetxokoa kuzkurtuta eduki behar zuela zirudienean, jendetza hura trinketean. Ez al zen erotzekoa? Hala dirudio artzainari, eta horrela adierazten du kontrastea espantu puska batez. Berak, pozaren pozez, egin dezakeen gauza bakarra egin nahi du. Horretan "saiatuko" da: bere bertsoez haien bihotzak berotzen. Berak, jendeak erakutsi duen ezusteko zaletasunaren ordainetan, bihotzetan piztu nahi luke sua.

Ondoren datorrenak badu aurreko bertsoaren antza. Hirugarren honetan ere hotza eta beroa ditu bertsoa hornitzeko gaia. Ez ordea berdin nahastuak eta konbinatuak. Hemen bera da hotz-beroen arteko sуетoa, batak joa eta besteak suspertua. Eta nolako beroak! Hori da loxintxa egiten diona entzulegoari! Baina entzun dezagun artzainaren bertsoa, artzainarena baita, eta ez beste inorena:

Nere txokoan ikaraturik
edukia nau ni hotzak,
bainan zerbaitxo berotu ere
zuen ikusteko pozak.
Zuek zerate ene egungo
arkume edo bildotsak,
gorputzak hotzez badaude ere
bero ditzagun bihotzak.

Horra urepeldarraren hiru sarrera-agur. Horien antzik izan ote zuen Donibane Lohizuneko lehenengo harek? Hura ez dago liburuetan eta nola jakin guk?

Ez dago dudarik agur jantzia dakarrela Xalbadorrek. Ongi hornitua, lekuak eta egunak eta giroak eta abarrek eskaintzen dizkioten materialez baliaturik. "Nere xokoan ikaraturik edukia nau ni hotzak". Hori sarrera era hori esaldia! Luzea eta

betea eta hizketak dituen egokitasunez eratua. Zail da ezer berezkoagorik eta taju gehiagokorik bilatzen euskaldun baten hitzetan eta esanetan. Eta erans-ten dizkion beste hiru esaldiak berdin, “arkume edo bildotsak” sinonimo erabilketa barne, guretzat arkumea dena haientzat bildotsa baita. Sarrera-agur horietan eskaintzen zaiguna lilura bat ez bada, eta ondoko ariketetan maila horri eusten badio, badugu bertsolaria. Eta ez nolana hikoia.

Buruz-buru

AGURRA, zein eta ederra den, ez da jasotzen bertsoak neurtzeko pisuan. Haizeari uzten zaio eraman dezan, edo belarriren bati bere txokoren batean gorde dezan. Kunplimentuak egiteko izan ohi da bakarrik agurra.

Edo eztarria berotu alde, nahiz lehendik ere askok eta askok, garai haietan batipat, ez zuen hotza ekartzen, ez eta legorra. Gosari ederrik egin ohi zuten, gustuko lekuren batean elkarrengana bilduta. Garai bateko Donostiako *Bodegón Alejandro* harek bazekien zerbait horretaz, eta bertako nagusi zen Martin Berasategi zenak ez gutxiago.

Entzuna daukat, Basarri haundia bera ere, txakoliñarekin ederki gosaldu eta lagunuen baten kotxean kantari joaten omen zela txapelketetara, bertsoan bere burua probatuz.

Neronek ere egin izandu nuen gosari haietako-rik bertsolariekin. Behin Elgoibarko *Gorbea* jatetxean Xalbadorrekin eta Mattinekin egin nuen kokotx-jana ez daukat ahazteko. Eguraldia ez zen ederra, baina girotu genuen guk. Ez zuen Elgeta aldera ahuleri haundirik eraman gure bikote famatuak.

Ez haiek egun hartan, eta ez besteek besteetan, ez zuten eraman ohi gose-egarririk eta hotzik eta legorrik eztarri nahiz zilborretan beren lanlekuetara.

Txirrita zenari berari ez al zitzaion ondoeza egin bertsoara bidean, gaztarekin eta ardoarekin bapo gosalduta zihoala? Hala dugu aditzea.

Agurrak, beraz, kunplimentuzko eginkizuna besterik ez zuen, eta ez du. Eta bapatekotasunarekin zer ikusi haundirik gabea izan daitekeelako edo, ez da gogoan izaten bertsolariak neurtzeko orduan. Handik aurrerakoak edo atzerakoak dira neurrira biltzen direnak, eta guk horietan ikusi behar dugu orain zer moduz moldatzen den Urepeleko bertsolaria.

Zeinek duda buruz-buruko iharduna egineraziko ziotela bere lehenengo ertenaldi edo agerraldi hartan gure artzainari? Gehienetan hasierazi egin ohi dira bertsolariak ariketa horretatik; baina beste zerbaitetatik hasierazi badira ere, buruz-buruko molde horretan arierazi gabe nekez ospatuko da jaiandirik nahiz txapelketarik.

Gainera, ez ote da bera bertsolaritzaren molderik, ohizkoena ez ezik, berezkoena? Zer du, izan ere, bereagorik, buruz-buru bota dituztenen arteko hika-mika eta eztabaida eta kizki-kazka eta hartu-eman hori baino? Ez al dira bertsolariak berak ere behin baino gehiagotan horretxan bila ibili izanak? Eta entzulearentzat? Zertan ikusi eta entzun nahi ditu, apustu edo dema edo proba bezalako horretan ez bada? Dударik gabe hori du berezkoena bertsolaritzak, eta horixe ere begizkoena bertsozaleak. Ariketa horrek izena ere "teman egitea" du, tirabiran ihardutea alegia.

Urepeldarrak berak *Odolaren mintzoa* liburuan horrelatsu adierazten du buruz-buruko ihardun hori. Hala dio: "Hor gudu bat bezala ereman behar duzu alabainan; zure tokia ahal bezain ongi zaindu eta bertzearena mendratu". Ez al du ederki aditzera ematen ariketa horrek bere-berea duen borroka hori? Nork bere saila babestu eta bestearena jo eta zanpatu.

Nola atera ohi zitzaion lehehengo "gudu" bezalako hura Xalbadorri? Ez dugu Donibane Lohizuneko berririk. Gerozkoetaz baliatu beharko dugu. Gatozen 1960ko txapelketakoetara.

Azpillaga eta Xalbador dira burrukalariak. "Teman" egiteko ez zaie gairik ematen. Eguerdia da, eta hona nola hasten den urepeldarra:

Azpillaga, gaur ikusi gabe
emen denbora badua;
zonbaitendako nahiz ez den hau
izanen arras galdua.
Ni ez naiz barur, bainan ordea
zerbait aspaldi hartua;
noiz dela daukazu zuk gureztat
bazkaldutzeko ordua?

Bertsoak ez du inolako eskasiarik. Ederra da bai tajukeraz eta bai horniduraz. Galderatxo bat dakar elkarrizketarako, tripazorriak dantzan sumatzen dituen baten galdera. Azpilagak, hariari segiz, honela bukatzen du bere erantzuna:

Xalbador ezta errez aseko
jaten asitzen danian.

Xalbadorren goseak harritu duen Azpilagari honela hasten zaio urrengo bertsoan:

Zerbait modutan guk eginbidez
egin behar baitugu hitz,
hunen gainean denen aurrean
mintzatuko naiz ni bortitz;
ordutik kanpo, bai, nik jan gabe
sofritu behar dut ainitz,
ez naizake sofrituko ere
eskuaragatik ez balitz.



Mattin eta Xalbador.

Ederra zen lehenengoa, eta bigarrenak ez du haren lotsarik. Gosearen minarekin jarraitzen du eta ez dauka ukatzeko beraren haundia; baina badu min haundiagorik, gosearena gainditzen laguntzen dionik. Nolako leihoa idekitzen dion gaiari, lagunak gose berri horren sailalara hegan egin dezan! Baina lagunak ogi-gosearen kaiolan segitzen du:

Onek esan nai du bazkaitako
gogo itzala duela.

Eta badao hirugarrenaren bila urepeldarra.
Hor duzu:

Guk zerbait hemen esan beharra
ezin ditaike bestela;
ez pentsa gero, jende maiteak,
ni gosez ez nitaikela.
Egun eskuara maite dutenek
egin baitaukute hela;
hoinbertzeraino maite badute
gutarik ase ditela.

Berantetsia duen bazkariaren irrikitan dagoela ez dauka ukatzeko. Nola ote zegoen “aspaldi zerbeit hartua” zen gure gizonaren barruna? Bazegokeen, ordea, besterik ere haren egoera bertsuan edo beretsuan. Gehiago ere bazeudekeen bazkariarekin luzetsita. Baina haiek ere, bertsolariak ez ezik, badute beste irrika bat. “Eskuara maite dutenak” dira, urepeldarra bezalaxe. Honek amodio horren-gatik segitzen du lanean. Haiek ere horrexengatik segi dezatela entzuten eta gose horren zakua berdintzearekin konforma ditezela: “gutarik ase ditela”.

Hor bada gose batetik besterako saltoa edo jauzia, eta norberarenetik besteenganakorakoa, eta

biak eta bienak eta horien arteko gatazkaren eta auziaren konponbidea: "eskuara maitea". Amodio hori da nagusi egun hartan.

Lagunak berean eta lehenean bukatzen du bere saila:

Etzazu esan orrenbesteko
gosia dadukazunik.

Mutrikuarrak ez zuen jakin segitzen bide berria ebaki zion lagunari. Bere zuloan gelditu zen. Batetik besterako jauzi horiek egiten jakin behar da. Bestela ito egiten da elkarrizketa. Beti ez da tematu behar. Badira uneak eta guneak elkarri bidea zabalduz eta berriak ebakiz aurrera egitekoak. Hura hala zen, inork ez baitzituen behartzen halako edo holako papera egitera. Aukeran zuten gaia.

Orain datorren buruz-burukoa bai, temakoa da. Badute gaia eta bakoitzak berea "zaindu" beharko du, eta "bertzearena mendratu", ahal badu behintzat. Bere "ardureneko laguna" du alboan urepeldarrak. "Eskuara eta latina" dute gai. Kontzilioaren ondorenean mezak herri-hizkuntzetan ematen hasiberritakoa da. Xalbador euskararen aldekoa da, eta Mattin latinaren aldekoa. Artzaina hasten da. Entzun dezagun:

Giristinoak bizitzen ginen
lehenago amentsetan,
deus ez konpreniturikan ere
fede baitzen apaizetan;
nola latinez kantatzen zuten
batzutan eta bertzetan,
kontensko nago orai eskuara
dabilkatela mezetan.

“Deus ez konpreniturikan” bizi zen kristaua, “kontensko” da orain, ulertzen ez zuen latina utzi eta eskuara hartu delako mezetako hizkuntz. Ongi egina sarrera.

Mattinek onesten du lagunaren arrazoia; baina latinaren garaian “saindu geiago” izaten zela esaten dio. Ez da, beraz, dena abantaila. Bada galerarik.

Hona urepeldarraren hurrengoa:

Sainduak saindu utz ditzagun ta
ezta dena hortan fini,
gure gustua ere egin dadin
ez ote da ba komeni?
Oraiko meza aberatsago
ainitz iduri zait eni,
ez dea xuxen Jaunaren hitza
denek dezagun konpreni?

Errima sarkor eta finez hornituriko bertso horretan galdera batean biltzen du bere pentsamenduaren bidezketasuna: “ez dea xuxen Jaunaren hitza denek dezagun konpreni?”. Biribila da benetan perpausa, zentzuzkoa arrazoia eta zilar zuria bezain dizdiratsua galderazko molde horretan egiten dion ertza bertsoari. Aparta bukaera.

Aheztarrak aurkituko dio alderdi egokirik latina erabiltzeari eta haren alde segiko du bere hurrengo bertsoan ere, eta hala esango du: “lenago aise hobeki baitzen denak lenguaia berian”. “Lenguaia” bateko eta besteko fededunak biltzeko modua egiten du latinak. Batasuna dakar. Egoki gure Mattin.

Urepeldarrak berean segitzen du:

Zer lenguaietan meza entzun
Jainkoak ez dauku erran,

erran derauku egin dezagun
nork guhauren araberan;
mezaren balioa dezakete
latin hitz hoiek ereman,
eder zaut eni meza entzutea
bakotxak bere mintzairan.

“Mezaren balioa dezakete / latin hitz hoiek ereman”. Mamirik gabeko zerbait gerta daiteke, beraz, meza: hutsa.

Mattin ondorioetara biltzen da berriz ere, eta latina uzteak beste moduzko utzikeria batzuk ere ba ote dituen berekin uste du. Hona: “apaiz horiek uzten ai diztek / latina eta sotana”. Beldur da ahez-tarra, sakratuaren gordeleku daitekeen latina uzte-an, beste zerbaitzu ere ez ote diren ari uzten. Sotana, adibidez. Zenbat modutara ez ote zuten garai haietan bertsolariek erakutsi irudipen bertsua edo beretsua apaizen sotana zela eta ez zela? Eta ez bertsolariek bakarrik. Azpeitiko jaun batek hala esan zigun behin Aita Zabalari eta biori: “Hostrorik gabeko arbola bezala dira sotanarik gabeko apai-zak. Ez dute itzalik”. Mattinen burutxoan ere horre-lako pentsamenduren bat lebilke.

Urepeldarrak beste zerbait sumatu uste du Mattinen latina defenditu behar horretan, eta... botatzen dio berea! Hara:

Kontzilioko moda hau etzan
Mattinendako egina,
igande batzuz ikusten dugu
mezaren erdirat jina,
ukondoaren pausa-lekuan
emanik buru izkina...
Hunentzat orduan berdintsu da
eskuara eta latina.

Gure aburuen sorburu ez omen da beti izaten pentsamenduaren lojika, norberaren praktika baik. Usain hori hartzen dio artzainak aheztarraren latina defenditu behar horri. Nola ohartu behar du gure Mattinek euskararen abantailez mezetan, gogo gaiztotik bezala baldin badabil elizara bidean? Zer inporta dio latina izan ala euskara ala turkoa “ukondoaren pausa-lekuan / emanik buru izkina” erdi lotan dagoenari, “mezaren erdirat jina” gainera? Horrelako eliztar batek ez ditzake suma euskararen erabilerak dituen alderdi onak eta alper-alperrik da hura argitu beharrez urepeldarrak ari duen predikua.

Haundia bota dio urepeldarrak. Aheztarra ez da amutsa eta baduke gisako erantzunik. Ea zer dioen:

Xalbador hunek bere laguna
nunbait nai du zirikatu,
eta nik gauza horren gainian
eztiot nahi barkatu;
bere burua hola du eta
aise horrek karkulatu,
ire burutik ik etzakala
ire laguna jujatu.

Horri esaten zaio odolkiak ordainetan! Urepeldarrarena ez zen nolana hikoia. Nola pintatzen digun mezentzule zabarraren egonera! Haien elizetako galerietan, apezaren bistatik urrun eta erdi ilunpetan askotan, bazukeen, bai, ikusirik urepeldarrak eliztar bat eta bi baino gehiago Mattinentzat esaten duen egonera horretan.

Eta hura bestek Urepeleko elizako galeria haietan? Hori ere ez ote zen posible? Aheztarrak baietz dio. Ez duela mezentzule zabarraren egonera nola den ikasi Xalbadorrek Mattin ikusita. Bere “burutik

“karkulatu” duela esaten dio. Eta “aise”, jakina! Etxeko kontuak atera ditu, beraz, urepeldarrak.

Hori ere sikolojia da. “Zozoak beleari” hura ez da gaur goizekoa. Lapur batek ere, inori zerbait aurpegira bota nahi dionean, lapurra esaten dio agudo. Beraz, zein ote genuen mezentzulerik zabarrera: Mattin ala Xalbador? Bertsotako kontuen arabera, biak.

Gairik gabeko teman entzun dugu urepeldarra. Gaiakikoan ere bai. Baina bietan neurri bera erabili digu: zortziko haundia. Alda gaitezen orain neurritz, eta har dezagun zortziko txikian egindako saio bat.

Mattin du orain ere uztarlagun. Aheztarra dugu “ezkerra”: herriko mera edo alkatea. “Eskubia”, berriz, artzaina dugu: herriko erretora. Alkateak elizako obrak atzera uzten omen ditu, eta erretorak ez diola asoluzionerik emango haiek egin arte. Izan daiteke besatirakarik. Entzun:

Jaun mera, heldu nitzazu
orai zuregana,
etzazula jendea
hoinbertze engana;
baduzu bazterretan
zernahi emana,
eta egiteko da
elizako lana.

Ederki abiatu da urepeldarra. Arrazoi ximple eta argi eta zehatz batekin ematen dio hasera; “eta egiteko da elizako lana”, Aheztarrak badu erantzuna. Hona: “eta zuk ez duzu nahi elizako baizik”. Beraz, erretorak elizakoa besterik ez du ikusten. Merak, berriz, lan asko izaki haietaz kanpo. Ea zer dioen urepeldarrak:

Jendeak ezarririk
zaude ohoretan,
enekilan makurtu
nai duzu bet-betan;
ez da zure urratsa
ibiltzen horretan,
deus ez duzu zarri nai
elizako obretan.

Bagenekien erretorak denak beretzat bakarrik nahi zituela. Ez genekiena zera da: dena beretzat nahi duenari, merak batere eman ez egiten diola. "Deus ez duzu zarri nai elizako obretan". Bada aldea, arranok ezpalu, batari ala besteari entzun! Ea zer ateratzen duen orain aheztarrak: "beharra-goak badira nere iduriko". Eliza ez omen da "eroriko", eta merak badauzkake erortzeko arriskuan daudekeenak, eta haiek dirake lehenik arrañatu edo konpondu beharrekoak. Badaki merak zer ari den, eta herriko dirua non eta nola gastatu behar den. Entzun dezagun jaun erretora:

Zurea beti aintzina,
gibela enea,
ageri du etzirela
herriko semea;
ni ere ikusteko
aski naiz ernea,
zugatik galtzen ai da
erlisionea.

Urepeldarraren bertso horretan "arrazoin azkarrak", fuerteak, sumatu ditu aheztarrak; baina bere hurrengoan lehenari eusten dio eta honela bukatzen: "behar gehio dutenak badira bakarrak".

Artzainak ez dio ukatuko beste beharrik ez dagoenik; baina bai eskatuko, mera herriaren

kargu egina dagoenez gero, herriko gauzen artean fedea ere konta dezan. Hona bertsoa:

Mera batek badauka
obligazione,
gaitz laiteke bertzenaz
zure eta ene;
herriaren zaintzeko
hor zira zu berme,
baina, otoi, harrazu
fedea're barne.

Mattinek beltza botako dio hurrengoan lagunari. Ahaztueraziko dizkio fede kontuak. Entzun bukaera; “fedea salduko duzu zuk ere dirutan”. Ez al da arrazoi astuna apaiz arretatsu baten papera egiten ari den batentzat? Erantzunak horrela erakutsiko digu. Hona hemen:

Zuk erran arrazoinik
zoini ez ba gaitzi?
Lurra bezain apalik
hor bainuzu utzi;
bertze lekua frango
zuk arrañarazi,
ta Jainkuaren etxeak
ez dia merezi?

Min du erretorak. Izan ere, “zoini ez ba gaitzi” —mingarri— horrelako gauzak entzun beharra? Salaketa hori, nornahirentzat itsusia bada ere, apaiz batentzat ez al da lotsagarria? Hala ere, erantzunean galdera bat egiten zaio “bertze lekua frango” konponerazi dituen mera jaunari: ea ez al duen merezi eliza konpontzeak.

Merak, bere erantzunean, eliza bere horretan ere ez dagoela gaizki adierazteko, Jesusen Jaiotza-

ren kontua dakar. Harek ez zuela, alegia, toki apai-
nik behar izan: "Hari aski zitzaion asto-barrukia".
Badaki nola erantzun jaun merak diru eske ari
zaion erretoreari.

Baina esan badu esan du ahezta argiak asto-
barruki kontu hori! Laister ikusiko du nola konpon
daitekeen eliza. Hona saioaren bukaerako azken
bertsoa, eta Mattinenari erantzuna:

Eliza berritza
ezta, ez, ezina,
egiten balitz nuke
nik e atsegina;
nehork ez dia entzun
zure irrintzina?
Astoa baginuke
zu jiten bazina.

Ze algarak bota ote zituen jendeak asto kontu
horrekin! Mattinek berak ere egingo zuen seguru
asko par ateraldiarekin. Hori da hitzetik hortzerako
danbatekoa! Neronek ere, aspaldi batean irakurria
izanagatik, gogoan nuen oraindik "astoa baginuke
zu jiten bazina" hori. Mattinek esplikatu bezalako
eliza hornitzen hasteko moduak ederki egiten ditu
Xalbadorrek, eta saioari erremate egoki bat emate-
koak ere bai. Egun hartakotik hori bederen era-
mango zuen etxera entzuleak.

Eta horrenbestez, bertsozale adiskide, ez al
dugu ordua galdezka hasteko zertsu dirudigun ure-
peldarraren plazako ariera hau? Orain artekoa zer
iruditu? Pasatzen al du plazako etsamina buruz-
buruzko ihardun horretan? Plazaren baietza derri-
rrezkoa dela esanik utzi dugu, norbait bertsolari
deklaratua izan dadin. Ez al dugu onarpen hori?
Bertsolari izateko "tirria" bizia zuen haur hura eta
bere solasetan eta bere mendiko bakardadean ber-

tso kontua besterik ez zuen hura, plazan ere bertsolari al dugu?

Zu eta ni etsaminatzaile izatera, irakurle, ez da dudarik baietz. Zenbat bertso eder neurritz, errimaz, arrazoiz eta paregabeko perpausaz! Hori trinkotasuna estrofetan! Hori osotasuna! Hori argiaren ederra esanetan! Bai, badugu bertsolaria. Gizon atera zaigu plazan. Ez du jan, lehoi amorratua omen dirudien publikoak. Hala ere aukera izan dezake bere bertsolari bizitzan, pizti hori orruka hasten denean nolako zukurutza sartzen duen ikasteko.

Ikusiak ikusita eta ikasiak ikasita, bere horretan utz genezakeen buruz-buru delako ihardunkera hau, irakurle. Baina ezin dut etsi beste saio bat eskaini gabe. Askok eta askotan aipatu eta goraipatu izan didaten saioa da, eta hemen doakizu, gaia nola eman zitzaien eta guzti agertuz.

Delako aldamioko hura da. "Xalbador eta Uzta-pide ari dira, lurretik eun metrora dagoan aldamiyo batean pintatzen. Bat-batetan, azpiko aldamiyoa hasten da kraskatzen. Batek bereala salto egiñez, menturaz bestea salba diteke, aldamiyoa ez bailitzake orduan arras kraskatuko. Entzun ditzagun".

Uzt.: Lurretik eun metrora zaigu
aldamio bat ageri,
bitatik batek saltatu bear,
badira milla komeri;
ta, Xalbador, zu eroritzeak
pena ematen dit neri,
bitatikan bat erortzekotan
naiago det nik erori.

Xal.: Kasu hunetan nehoiz munduan
gertatu ote da nehor?
Beheragotik ere guziak
nahiz gintazken erorkor.

Ez, Uztapide, nihaur banoa,
otoi etzaitela eror,
berdin zu hantxet hil eta gero
hila litake Xalbador.

Uzt.: Xalbador lagun orren aurrean
erantziko det txapela.
bañan badakit bitatikan bat
salbatu ez ditekela;
biotzak dio sentitzen duna,
ez nun esango bestela,
lagun urkoa maitatzen baidet
nere burua bezela.

Xal.: Zendako behin, oi Uztapide,
ote zintudan ikusi?
Zer debruk bada ote zintuen
eni hola maitarazi?
Ez gaiten hemen bat ere geldi,
biak lurrerat goatzi,
gutarikan bat hor hiltzekotan
bertzea zendako bizi?

Uzt.: Ongi diozu, lagun maitea,
ez dezu itz egin zakar,
eta zuri zer erantzun ere
pentsatua daukat azkar:
alkarrentzako sortu giñan da
zertarako bizi bakar?
Biok gelditu edo erori,
guk artu dezagun alkar.

Xal.: Hau da memento ikaragarri
txarra pasatzen duguna,
ni memorioz gaizki naiz edo
mementu hau ez da ona;
hau da amets gaixtoenatarik
nonbaitik heldu zaukuna,

bi maitetarik bat galdu behar;
bizia edo laguna.

Uzt.: Badakizute zer izaten dan
munduko trantze txar ura,
gauzak seriyo artutzen dira,
ezta bakarrik itxura;
azkenerako au datorkio
Uztapideri burura:
iltzen bagera zer egingo da,
biak baguaz zerura?

Horra delako saioa. Horra zazpi bertsoak. Lagunarenak ere oraingo honetan oso-osoan ezarri ditut, eta ez dut uste alperrik lekua hartzen daudenik. Uztapidek bertso bat gehiago kantatzen du urepeldarrak baino. Jaialdietan inoiz gertatzen da hori. Txapelketetan inoiz ez, jakina denez. Hasi eta bukatu zestuarrak egiten du saioa, eta Xalbadorrek ez du berdintzen lagunaren laugarrena. Ezta behar ere!

Izanez ere, gaiari eman dion bukaera eman eta gero, zer besterik esan zitekeen? Eta batez ere, zer biribilagorik eta mamitsuagorik eta guztizkoagorik? Badut nik lagun bat, bertsozale eta bertsologo berezko eta ikasia, behin eta berriz Xalbadorren bertso hori gogoerazi didana. Hori noski bukaera! Hori gaia biltzea eta biribiltzea noski! Ez du arrazoi faltarik. Nekez argiago eta ederkiago bil zitekeen gaiaren drama guztia.

Hala ere Xalbadorren ihardunak badu beste alde eta alderdi eta argirik saio honetan.

Lehen-lehenik ohartxo bat gaiemailearen alde. Horri esaten zaio bi bertsolariak berdinean jartzea gaiaren aurrean! Beti ere horrela beharko luke, baina askotan hutsegiten dugu, bertsolariak buruzburu botatzen ditugunean. Gogoan izateko gauza

da berdintasunaren hori, batez ere bertsoak epaitu behar direnean. Ez dadila gaia batarentzat erosoagoa izan bestearentzat baino. Uztapideren eta Xalbadorren arteko honetan ez dago desberdintasunik.

Bada hala ere oreka bentzi dezakeen beste zerbait. Aurrena hastea da hori. Hasera ematen diot, bide bat markatzen du, bide jakin bat, eta zail dezake bestearen iharduna, eta aterabiderik gabe utzi ere bai. Horrelatsuko zerbait badela esango nuke nik eskuartean dugun saio honetan.

Zein dugu auzia? Hankapean duten aldamioa kraskatzen hasten dela eta ez dela gauza bien zamari eusteko; eta, bieran batek salto eginez bere bizia jokatzeko ez badu, biezat heriotza datorrela; baina batak bere bizia arriskatzeko badu, bestea salba daitekeela. Zein saltatu eta zein gelditu da, beraz, auzia.

Eta zer egiten du Uztapidek bere lehenengo bertsoan? Auzia ebakita utzi: "bitatikan bat erortzekotan / naiago det nik erori". Horra arazoa konpondua. Zer aterabide gelditzen zaio besteari orain? Aurkituko al du ihes egiteko zulorik urepeldarrak?

Bai; aurkitzen du. Ikusten du nondik sartzen den argia. Hari segiz eskapatuko zaio zestuarrari. Ez duela balio haren soluzioak esango dio. Auziak lehenean segitzen duela: "berdin zu hantxet hil eta gero / hila litake Xalbador". Uztapide erortzeak ez du laguna salbatzeko balio, Xalbador berdin hilko baita, lurraren kontra eztanda eginda edo bere laguna hiltzen ikusita. Beraz, Uztapideren erabakiak ez du arazoa konpontzen. Alper-alperrik da. Egoerak ez du soluzionerik.

Bertsoa, errima barne, aparta izatez aparte, dialektika fina eta landua da urepeldarrak darabilena. Ederki eskapatu zaio zestuarrari, ustez ataka ongi itxita utzi duen leizezulotik.

Eta hurrengo bertsoan hari berari segiko dio paregabeki. Uztapidek, bere bigarren bertso biribilean, lagunaren postura gorai patuz, lehengoari eusten dio, kristau dotrinan ikasi duen “lagun urkoa maitatzen baidet / nere burua bezela” harekin. Ederki!

Urepeldarrak, bere lehenengoan ebakitzen hasi duen bide beretik segitzen du. Eta hori alea edo bihia bigarren hori! Nolako zinezkotasuna hartzen duelako bi lagunek bizi duten trajediak edo egoera ikaragarriak! “Zendako behin oi Uztapide...?” galde-tuz hasten da, eta “Zer debruk bada...? eginez jarraitzen. Eta agindu-erregura pasatzen da hirugarren puntuan: “Ez gaiten hemen bat ere geldi, / biak lurrerat goatzi”. Izan ere “gutarikan bat hor hiltzekotan / bertzea zendako bizi?” Horri esaten zaio egoeraren larriak bertsolaria antzesle bihurtzea bere esan behar guztietan eta esateko maneretan.

Ba al zegokion gaiari eta urepeldarrak hartu duen bideari hizketa-modu edo erretorika egokiagorik? Zeinek eta nola adierazi bortizkiago aterabiderik gabeko itomena? Esan horietan eta esateko manera horretan senditu egiten da tragedia. Hor dago bertsolari batetik besterako aldea. Batak kontatu egiten du tragedia, eta besteak bizi eta kantatu eta antzestu. Eta nola gainera!

Hori bertso alea edo bihia, berriz esanda ere, Xalbadarren bigarren hau! Nik ez dut ezagutzen bapateko bertsorik, ez erretorikaz, ez joskuraz, ez garapenez eta ez bukaeraz, hori baino biziagorik. Diamante puru-purua da urepeldarraren bigarren hau. Hori gauza!

Zestuarrak lagunaren pentsamendu bera azpimarratzen du bere hurrengoan: “Biok gelditu edo erori / guk artu dezagun alkar”. Trinkoa bertsoa gure Uztapiderena.

Eta urepeldarraren hirugarrena da delako nere lagun bertsozale eta bertsologo harek behin eta berriz aipatu eta goraiatu izan didana. Egoeraren sineskaiztasuna kantatuz segitzen du bertsolariak. Burutik eginda ez badago, “memento hau ez da ona”. Eta, amets bat balitz ere, “amets gaixtoeneta-rik”. Izan ere, ez al da ikaragarria eta sineskaitza “bi maitetarik bat galdu behar: / bizia edo laguna”. Hori trantzea! Hori estura! Hori trajedia! Eta hori bukaera bertsoarena!

Zestuarrak laugarren bat ere kantatzen du; baina artzainak ez. Ez dauka kantatzerik. Ez dago ezer hoberik esaterik eta gaia haruntzago eramate-rik. Bertso hori kantatu eta ixildu egin behar da. Eta hori da Xalbadorrek egiten duena.

Xalbadorren ihardun neurritz gaineko hau irakurri eta gero, *Uztapideri* izeneko bertso-sail edo andana hura datorkit neri gogora. Nolako aitormena egiten diolako artzainak bere lagunari bertso horietan, eta nolako omena! “Maitagarria ez banaiz ere / maitale suhar nauzuna” zoragarri hura, eta “gure denboran ezagutu den / bertsolaririk osona” delako beste hura, eta horrelatsuko beste hainbat eta hainbat goresmen. Bihotza zabal-zabal eginda, nolako begirunez mintzo zaiolako zestuar haundiari!

Baina beste aitormen guztien artetik, honako hau datorkit neri burura, harako “bi maitetarik bat galdu behar: bizia edo laguna” hura entzunda: “zu baino lagun hoberik ez dut aurkitu ene bizitzan”.

Lagun horren hiltzea zinetan eta benetan hartuta sortuak ez ote dira aldamioko bertso horiek? Alboan hura bera du, bere bizitzako lagunik hoberen hura. Argialdi aparteko horren kausa, bestek beste, *Uztapide* bera daitekeelakoan nago ni. *Uztapideri* izeneko bertso-saila baino lehenagokoak dira beste hauek; eta, haiek ez ezik, bere lagunik hobe-

renari omenezkoak, nik uste. “Oi adiskide onak tuztenak / dirade gizon urosak” (zorionekoak) (*Bertsolariak*, A. Onaindia, 328 orrialdea) esanda joan zitzaigun artzaina. Eta haien galtzea zer? Izatea zorion-iturri bada, zer haien galtzea? Trajedia bat. Hala kantatu digu Xalbadorrek hizpide dugun saio honetan.

Oraintxe bai buka dezakeegula, adiskide bertsozale, buruz-buruzko ihardunari dagokion atala, eta baita ere deklara ahoa betean: “Badugu bertsolaria”. Orain bestelako ihardun motetan nola moldatzen den ikustea gelditzen zaigu bakarrik; baina ez bertsolaririk badugun edo ez jakitea. Hori badakigu.

Puntuari erantzutea

BURUZ-BURUKO ariera dela esan badugu ere berezkoena eta ohizkoena bertsolaritzan, bada beste ariketa motarik, bertsozale, dakizun bezala. Horietako bat puntuari erantzutea da. Doinu eta neurri eta errima eta guzti, norbaitek kantatzen du lehenengo puntua, eta handik aurrerakoa bertsolariak osatzen du. Horri esaten diogu puntuari erantzutea.

Nik esan behar banu, hau da ariketarik gaiztoena. Zenbaitek lau oinak emanda egiten denarekin zabaldu ohi du ahoa, harrituz bezala, zailena delakoan. Ez da horrelakorik, non eta lau oinak guztiz lokaitzak ez diren, *Lehenengo oroitzapenak* kapituluan aditzera eman genuenez.

Ihardun honetan, besteak beste, pentsatzeko astia izaten du bertsolariak kantatzen hasi aurretik, bertsoa ez baita abiatua, puntua emandako haretan bezala. Beraz, bertsoa berak nahi duen erara bidera dezake. Bestalde, errimak bilatzen ibili beharrik ez dauka. Han ditu paperean. Baldintza horiek alde dituela, ariketa horrek ez du aparteko nekerik, ez eta meriturik. Konpara bitza nahi duenak bertsolari bat berak molde batean eta bestean kantatutako bertsoak, eta ikusiko du zeinetan luzitzen duen gehien.

Bertsorik ahulenak bestek hasi eta segiz osatzen direnak izan ohi dira komunzki. Han ez dago ezer pentsaturik, ez pentsatzeko astirik. Segi egin behar zaio bestek hasitako bertsoari eta bestek ezarritako errimari eta besteren pentsamenduari. Lan asko, denak ongi egiteko.

Mendian, “alde guztietarat entseatzen” zen gure artzaintxoak, zer moduz moldatzen ote zen bere bakardadean, bestek jarrita bezalako puntuari erantzuten zionean? Ardiek somatzen ote zuten alderik halakoaren eta bestelakoen artean?

Ez dugu mendikoen berririk. Ez izan behar han magnetofonorik! Guri plazak esango digu hangoa zertsu zitekeen; eta, batez ere, plazakoak erakutsiko digu Xalbador zer moduz moldatzen zen ihardun mota horretan.

1962ko *Errege eguneko bertso-saioa (Auspoa, 10)* delako hartan puntu bakarra jartzen diote. Honako hau:

— Edari gustokoa
matsaren zumua.

Xalbadorrek:

Laister pentsatu dezu
zuk ene asmua;
baiñan hemen ez dagola
daukat nik damua,
libre uzten banauzu
edatera nua.

Zeinen zuzen sartzan den gaiean eta zeinen ederki lotzen dituen pentsamenduak! “Edari gustokoa / matsaren zumua”. Noski. Edozeinentzat; eta, zer esanik ez, “maite dutala kupela” dioen harentzat. Eta... bertsoan larritasun puntu batekin ari

denaren eztarriarentzat? Eta berezko grina eta lanaren mina biak batera dauzkanarentzat? Ez da, beraz, misterio gaijartzaileak puntu horrekin Xalbadorren “asmua” “pentsatu” izana; “baiñan hemen ez dagola / daukat nik damua”. Gogoia bai, beharra ere bai; baina mamarik ez. Han ez dago; baina nonbait balegoke. Ezin joan ordea bila. Gaiemaile eta lan emaille den hura du eragozpen. Beraz, “libre uzten banauzu / edatera nua”.

Horra puntuari primeran erantzun eta bertso betea egin, errima gixen-gixen eta guzti. Behin eta berriz irakurtzea gustoa ematen duen horietakoa da bertso hori.

Hurrengo hau ere urte berekoa da; baina urtearen bukaerakoa eta 1962ko txapelketa nagusikoa. Hona:

Hor daude exerita
Joxe ta Meliton...

Xalbadorrek:

Ni ere orain artean
halaxe nindagon:
egin duten bazkariak
egin badeie on,
oraino bertze pixka bat
hola bitez egon.

Xinplerik bada, ximplea bertsoa. Hutsaren hurrengoa da puntua, eta haren araberakoa erantzuna. Izango dira bertso arinak, baina hauxe baino arinagorik! Arina bezain ongi josia ere bada, eta biziki polita, barne egitura guztiaz. Bikote hori bezelaxe zegoen Xalbador ere oraintsu arte: “ni ere orai artean / halaxe nindagon”. Beharrak altxaerazi du. Beste horiek, bazkariaren grazia gozatuz, dau-

dela oraindik beren horretan: “oraino bertze pixka bat / hola bitez egon”. Arina eta hutsa bezain polita bertsoa.

Segirako hau ere egun berekoa da. Honek badu mamia. Ikus:

Urte zarreko koplak
aspalditik datoz...

Xalbadorrek:

Urte zaharra ere
hurbil dugu gaurkoz;
nik ere kantu hoier
kentzen dietet poz,
gaur ere kanta ditzagun
zabaldurik bihotz.

Abenduak 30a du. Horixe dela hurbil “urte zaharra”. Egokia sarrera. Bi urteen arteko pauso hori ospatuz kopla eta kantu asko dabil. Badaki bertsolariak: “nik ere kantu hoier / kentzen dietet poz”. Eta besteak eta bere burua kantatzen segitzera gonbidatzen ditu. Ez nolana: “zabaldurik bihotz”. Libra ditzatela beren barrenak, herriaren arnasa dakarten kantu horiek berrituz. Ederki egina bertsoa, eta ederki betea eta tajutua.

Ondorengo beste biak 1965eko txapelketakoak dituzu. Hona lehenengoa:

Igeldoren azpian
dago Donostia...

Xalbadorrek:

Hori ez dago, Alfontxo,
enekin anztia;

bakotxetan hemen nago
ni ere pastia,
maizago etor nindaike
baneuka astia.

Donostiak beti argitu die begia eta bihotza bertsolariei. Eta zeini ez! Horregatik ezagutzen dute: "hori ez dago, Alfontxo, / enekin anztia". Badabil bertsolaria Donostia aldetik; baina ez nahi haina aldiz: "maizago etor nindaike / baneuka astia". Horra ongi tajutua bertsoa, eta erakutsia Donostia-arentzat begikotasuna. Lehen ere ez zuen erakutsi gabea, delako "Donostiren par-parean / gelditu zeraut izarra" harekin.

Gero ere izango du hiri hau goresteko egokiera, eta ez du alperrik galduko. Donostia maite du euskaldunak. Eta bertsolariak!

Egun hartako bigarrena honako hau duzu:

Zuk egiten al duzu
oiean ametsik?

Xalbadorrek:

Gauza hortan ez daizut
esango ezetzik;
gaur ere atzartua
han nindagon goizik,
barta ere ez dut egin
ametsikan baizik.

Ez da erraza hiru esaldi zuzenagoz eta zehatzagoz eta biribilagoz erantzuten. Hori osotasuna eta trinkotasuna bertsoarenak! Zeinen gauza polita, hasteko, galderari baietz erantzuteko erabiltzen duen formula lehenengo puntuan! Ametsik egiten duen galdetzen zaio, eta "gauza hortan ez daizut /

esango ezetzik” erantzuten du. Eta ez dela gezurra adierazteko, lorik hurbilena kontatzen du: “gaur ere atzartua / han nindagon goizik”; eta “barta ere ez dut egin / ametsikan baizik”. Hori da bertsoa zutik jartzea, hori!

Biharamoneko gudua gogoan duela oheratu den bertsolariak amets egitea ez da misterio gauzez; eta Xalbadorri ere, nonbait, horixe gertatu zaio. Eta, galdetu zaionean, erantzun egiten du modu paregabe horretan. Hori pentsamenduak jostea, hori hizketaren ederra, horiek fraseak, hori bertso guztizkoa! Askotan ez du gai haundirik behar bertso haundiak egiteko.

Hurrengo laurak, urepeldarrak jokatu zuen azken txapelketakoak dira, 1967ko ekainaren 11koak, egun seinالاتu hartakoak.

Hona lehenengo puntua:

Bene-benetakoa
nere sinismena...

Xalbadorrek:

Ene barruan betitik
bizi izan dena.
Horrek deraut gaur pozten
triste den barrena,
horrek nauela bizi
horra aitormena!

Bertsoaren edertasun trinkoak ez du duda haundirik. Balantza haundirik ez egiteko moduko harria jarri dio oinean. Harako Txirritaren “txatxu arraiua” hura gogorazten dit. Hori sendotasuna bertsoarena!

Baina ez da hori azpimarragarriena oraingo honetan. Jartzen zaion puntuari ematen zaion

jarraipena da bereziarena. Ez ideazkoa; hizketan ari den pertsonarena baizik. Norena da puntua, emalearena ala erantzulearena? Ez al dirudi bertso osoak pertsona berarena? Ez dago galde-erantzunik. Den-dena, puntu eta beste, bat beraren kofesione bat bezala da.

Hori da puntuari, ideetan ez ezik, estiloan ere jarraitzea. Ez da erraza batasun gehiagoko bertso-rik egiten, norbera bere kabuz ari dela ere; eta puntu bati jarraikiz, berriz, zer esanik ez.

Goazen hurrengora. Aurrekoaren segirakoa da. Hemen duzu:

Tabernaria zurekin
aberastu al da?...

Xalbadorrek:

Goizean han hartu nitun
ardoa ta salda;
haren ta ene artean
zerbaitxo're bada,
aberastu ote den
zuk berari galda.

Hemen ez da aurreko bertso konturik. Hemen entzun eta erantzun da, eta bai ederki egin ere: “aberastu ote den / zuk berari galda”.

Baina erantzun biribil hori baino lehen bada esplikazionerik. Gaiemaileak zerbait badakiela ematen du Xalbadorren taberna inguruko ibiliez. Eta hori konfirmatzen dio lehendabizi: “goizean han hartu nitun / ardoa ta salda”, Izanez ere, “haren ta ene artean / zerbaitxo're bada”. Bada, beraz, harremanik tabernariaren eta Xalbadorren artean. Puntu-jartzailea ez dabil guztiz erratua. Aberaste kontu horiek eta, ordea, ez dira bestek

jakin eta esan ditzakeenak. Hori berari galdetu behar zaio.

Bertsoa zoragarria da. Dena erantzun, dena esplikazione, dena fintasun. "Aberastu ote den / zuk berari galda". Asentu bikaineko bertsoa duzu, adiskide bertsozale.

Hurrengo biak txistuak entzun ondorengoak dira. Ordu gorri hura pasata gerokoak, irakurle. Zutik nola iraun zuen ere gure bertsolariak! Nola ez dakigu. Iraun zuela bai, badakigu. Eta nola gainera! Sute hura bere bertsoz itzaltzen du lehenik. Eta gero honako puntu honi erantzuten dio:

Negurtu behar duzu
Uztapiderekin...

Xalbadorrek:

Gure bien negurria
nik aurretik jakin;
halere lankide baitut
hartzen dut atsegin,
gaur ere geldituko da
txapela berekin.

Neurri kontuekin datorkio puntua, eta berak badakiela zein den erantzuten du: "gure bien negurria / nik aurretik jakin". Lagunaren aldera bentzitzen du pisuak. Eta zer? "Halere lankide baitut / hartzen dut atsegin". Nola ez! Ez al zion bada aitortu "zu baino lagun hoberik ez det / aurkitu ene bizitzan"? Horregatik du atsegin harekin kantatzea, nahiz "gaur ere geldituko da / txapela berekin".

"Negurria" nahi al zenuen jakin, gaiemaile? Hor duzu erantzuna. Orain badakizu nik "aurretik" banekiena.

Zuzen-zuzen sartzen da puntuaren arrastoan, garbi ikusten du egoera eta argi deklaritzen berari galtzailearen alderdia dagokiola. Ez dago gehiago zer esanik. Haundia da bertsoa.

Eta egun hartako laugarrena orain:

Zerraldoan dijoanak
gero arte dio...

Xalbadorrek:

Zure esanak, Alfontxo,
jarri nau serio;
jendea tristatzen da
au dela medio,
sortzeak hiltzea du
beti ondorio.

Hori bertsoaren egokitasuna! Errimaren bukarako "o" horiek bezain biribila da. Hor ez dago koxkarik, ez dago zimurrik, ez orbainik eta ez inolako beste akatsik. Hori perfekzioa, axal eta mami! Horko sikologia, horko soziologia, horko filosofia! Zer da zerraldo bat ikuste hutsak dakarrena? Seriotasuna. Zer da "zerraldoan dijoanak" sortarazi duena? Tristura. Eta zer egin? Etsia hartu bakar-bakarrik: "sortzeak hiltzea du beti ondorio".

Horri esaten zaio bertsoa. Puntua emanda kantatutakoetan hoberik ez dut nik ezagutzen. Zuk bai, ene adiskide bertsozale?

Ariketarik gaiztoena esan dugun honetan, apartekoa da urepeldarrak erakusten duen trebezia. Hasteko, puntuak dakarren pentsamenduari edo intentzioari nola itsasten zaion da harrigarria. Urte Zahar kontuekin datozela abenduaren 30ean? "Urte zaharra ere / hurbil dugu gaurkoz" eginez sartzen da. Zerraldoa aitatzen diotela? "Zure esa-

nak, Alfontxo, / jarri nau serio” dio. Amets kontuak galdetzen dizkiotela? “Gauza hortan ez daizut / esango ezetzik”. Eta horrelaxe zoldadurak beti puntuarekin.

Bada bertso bat hemen sartu ez dudana, baina puntuarekiko loturagintza hori erakusteko aparta. 1967ko txapelketakoa da. 97 da orrialdea. “Bertso bat botaziozu zeure buruari” dio puntuak. Eta hone-la hasten du erantzuna Xalbadorrek: “Gaiztorik ezin bota egin nereari”.

Hori etorria eta hori sikolojia! Nola hasiko da bada harrika bere buruari? Nola hasi gaiztakeriak esaten norberarentzat? Eroa behar luke izan. Erdie-roak ere bai-baitaki norberari kalterik ez egiten. Beraz, “gaiztorik ezin bota / egin nereari”. Fina sarrera. Hala ere, egiari berea zor baitzaio, ez dio loxintxa haundirik egiten bere buruari: “abantail gutxi det eta / akatsa ugari”. Horrela bukatzen da bertso eder hura.

Baina puntuari itsaste hori hasera besterik ez da. Jarraipeneko puntuetan erakusten duen batasuna pentsamenduetan, eta argitasuna ideetan, eta egokitasuna esanetan, paregabea da. Horiek esaldiak! Denak berezkoak, denak legezkoak, denak tajuzkoak, bai gramatika arauz, bai hitzen propietatez, bai esanen argitasunez eta garbitasunez eta betetasunez. Ongi ebakia eta josia dena.

Konparazio batera, harlanduz egindako horma iduri dute bertso hoiek. Harri huts da hura. Harriari ezartzen zaio harria, tartean inolako juntagailurik gabe, eta besterik gabe juntatuak gelditzen dira sekulako. Horrela dira Xalbadorren bertso hauek: dena esan eder, esan zehatz, esan garbi, pentsamendua pentsamenduaren gain, inolako juntagailurik gabe eraikiak.

Bai, irakurle: erakutsi digu artzainak aparteko trebezia puntuari erantzuteko ariketa honetan.

Neronek puntua emanda kantatutako bertso batekin bukatu nahi nizuke atal hau. *Herria gogoan* (Auspoa, 152) liburuan ageri da, 57 orrialdean. Ez dakit zeinek jaso den. Zintatik neronek papereratu da. Bitxia da bertsoa. Hona nik eman puntua eta harek egin bertsoa:

Gabaz eta egunaz
beti ametsetan...

Xalbadorrek:

Ametsetan, baina beti
lurreko gauzetan;
etxean ez, baina kusten
direnak bertzetan,
gero atzarrita hantxet
nago ni gaitzetan.

“Bitxia” esan dugu bertsoa. Ez al da hala deitzeko modukoa hirugarren puntu hori, irakurle? Noiz ikusi da horrelako hiperbaton berezirik? Baina ez al dago argi eta tajuz egina? Horixe dagoela!

Hala den bezala, bitxia, laugarren puntuaren errima. Hamarretatik bederatzitan “penetan” dator bukarea horretan ahora. Xalbadorrek, ordea, “gaitzetan” dio. Aurreko errimen eskabidez eta aginduz sartu du hitz hori. Horri esaten zaio errima-belarria edo sena.

Baina axaleko eta axalezko bitxikeriak dira horiek. Eta mamiari dagozkionak? “Ametsetan” noski; “baina beti lurreko gauzetan”. Behera begira egiten dugu nonbait amets, urepeldarraren iritziz. Badagokeela beste modurik aditzera eman nahi ote digu? Nik baietz uste.

Eta nola adierazten digulako ametsaren iturria hurrengo puntuan. “Etxean ez, baina kusten dire-

nak bertzetan” omen ditugu ameskai. Norberari falta zaion eta bestek badaukan hura beti gure gutizi. Urdeak ere eskas duen ezcurrarekin egiten omen du amets. Hitz gutxitan ederki adierazia ametsaren jatorria.

Eta laugarren puntuak erakusten digun sikologia? Amets goxoak ondoren mikatza beti. Eta hura zenbat eta goxoago eta desilusioa haundiago eta ametsondoa mikatzago. Zer esan behar zen gehiago eta ederkiago?

Bertsolari deklaratu genuela, irakurle bertsozale, gure artzaina buruz-buruko moldean? Hala berean egiten dugu puntuari erantzuteko hontan. Nik esan behar banu, gainera, han bertsolari eta hemen bertsolariago.

Bakarka, gai bat kantatzen

BEREZKOENA eta ohizkoena zela bata. Gaiztoena zela bestea. Eta hau? Nola deitu behar da, bakarka gai bat kantatzen bertsolariak egiten duen iharduna? Pertsonalena esango bagenu? Zergatik deitzen dudan horrela?

Buruz-burukoan besteren pausoan ibili beharra gerta dakizuke. Elkarrizketa bat da. Entzun eta erantzun ari zara. Eta aurreak erakusten baitu atzea nola dantzatu, uste ez duzun lekutik jo dezake lagunak, eta nahiko ez zenukeen bidea harrerazi, eta gustoko ez duzun doinuarekin dantza eginez. Nolabait esateko, norberarenak ez diren posturak hartu behar izaten ditu bertsolariak erantzun beharraren erantzun beharrez eta lagunak jarritako baldintzen indarrez. Eta zer esanik ez bestek lehen puntua kantatuta osatu behar den bertsoan. Han are eta baldintzatuago dago bertsolaria.

Berak bakarrik gai bati aurpegi ematen dioenean, ez dago horrelakorik. Hemen bere-berea duen iturria ideki dezake, eta libreki kanta, norberak nahi duen hura esanez, eta nahi duen bezala, eta datorkion moduan, inoren bortxaketarik gabe. Hitz batean, bere-beretik diharduke eta berea kanta.

Eta orduan ditu ere bere-bereak bai merituak eta bai desohoreak. Ez dago inori aitzakirik ematerik, ez dakit nondik jo duela eta badakit nondik jo balu, eta bat eta beste. Bere-berea du, abantail eta akats, ihardun guztia.

Baina utzi ditzagun izen eta deitura kontu hauek, eta ikus dezagun izana. Ea nola moldatzen den gure urepeldarra ariketa honetan.

Eta hasi gaitzen bertso bakarra eskatuz emandako bi gairen erantzunetatik. Bederatzi puntukoa da lehenengoa. Gutxienez sei puntu dituen eskatzen zaio, eta berak eta beste batzuek bederatzikoa kantatzen dute. Jateko prest dagoen bixigu bat dute gai. Bertso hau da nik Xalbadorri bederatzikoan ezagutzen diodan bakarra bat-batean. Hona nola den:

Bixigoa hor dago
parrillan gainean,
jateko tenorea
jin da azkenean;
hori ikusi eta
jarri naiz lanean,
jus goxo bat jarri da
ene mingainean;
baneuka menean,
sar laike ohean
eta bai labean,
nago xuxenean
hobeki legokela
ene barnean.

Polita da bertsoa. Seigarren puntua nolahalako xamarra bada ere, horrera artekoa eta hortik atzerakoa oso politak dira. Zortziterdi-bederatzi bat merezi luke. (Honi esaten zaio epaile gaitza). 1962ko txapelketakoa da (*Auspoa*, 22, 99 orrialdea).

Hurrengo hau zortziko haundi bat da, 1967ko txapelketakoa (*Auspoa*, 67, 71 orrialdea). Bazkaria serbitu dion neskatxari bota behar dio. Honela dio:

Nik bazkaltzean gaur bi aldetaik
hartua dut atsegina:
bazkari ona eta gainera
zerbitzailea apaina;
gaur arte ez nun inoiz probatu
ekarri duzun kozina,
naiago nuke nik zerbait baino
gure etxean bazina.

Ongi egindako bertsoak ezagutzen ditut; baina hauxe baino hobeki egindakorik ez dakit ezagutzen dudan. Hori liraintasuna bertsoarena! Nekatx bat balitz, "miss" izendatuko nuke herri-literaturan. Hori aurpegikera, hori gorpuzkera, hori ibilera eta hori par-murritza delako "naiago nuke nik zerbait baino / gure etxean bazina" hori. Liluragarria!

Bakarreko bi horien ondotik, bertso biko saioak har ditzagun. Lehenengo biak 1965eko txapelketakoak dira, eta elkarren segirakoak gainera (*Auspoa*, 43, 92 orrialdea). Bildurra du gai aurreneko bikoak. Hona bertsoak:

Alfontxo, ene gaurko kasua
nondikan duzu zuk jakin?
Bildurra delako gauza txarra
batek badauka berekin;
eta erraiten ahal nuke nik
nihaurren buruaz berdin,
ene barnean daukat gaur eta
ez du nai hunek aldegin.

Jainko Jaunari egiten diot
otoitz gartsu ta beroa,

beldur sobera ez dadin izan
altxa dezagun gogoia;
bainan bildurrak ere badauka
nunbaitik bere erroa,
batere bildurrik ez duena
ere deitzen da eroa.

Hoinbertze nerbio edo zain kontu aterazten duen txapelketa bat izanik, Xalbador ere larritasun egoera horretantsu zegokeen une hartan. Eta horrela dagoela, gainerik, bi bertso kantatzeko bildurra gai? Harridurazko galdera batekin gaiemaileari berari hasten zaio kantari izugarri poliki: "Alfontxo, ene gaurko kasua / nondikan duzu zuk jakin?". Alegia, lehen bildurrez nago eta zu berriz kontu horrekin? Oso bertso polita ateratzen zaio, bukaerako aitormen xingle-xingle horrekin: "Ene barnean daukat gaur eta / ez du nai hunek aldegin".

Badu beste saio bat ere gaiemailearekin elkarriketan hasten dena Xalbadorrek. 1967ko txapelketakoa da (*Auspoa*, 67, 118 orrialdea). Ijito bat jarri dute urepeldarrak bere diruak dauzkan bankuko buru. Artzainak gogor ekiten dio gaiemaileari. Hona:

Aizu, Alfontxo, ni ez nezazu
zure gai txarrekin ito,
ni menperatu beharrez hemen
aria zira askito;
gauzak horrela direla bainan
ni ez naiz horrekin kito,
dirua irabazlea ni ta
aren jabea ijito.

Bere barrunaren zauri bizi bat ukitu baliote bezela oldartzen da bertsolaria, eta ez dezala gehiago horrela trata agintzen dio lemazainari. Lehen ere

“ni menperatu beharrez hemen / aria zira askito”
esaten dio. Eta ondorenean ederki biltzen du bertsoa harira: “gauzak horrela direla bainan / ni ez naiz horrekin kito”. Horiek esanak eta esateko manierak Xalbadorrenak! Eta auzia bi hitzetan adierazten digu bukaerako puntu honetan: “dirua irabazlea ni ta / haren jabea ijito”.

Bertsoa bitxia da eta guztizko berritasunez hornitua. Dena da hango, dena orduko, dena hartarako, dena joaneko ura, ez geldia, ez ibilia, ez presakoa, ur bizi-bizia. Horri esaten zaio bertso berria hasi eta buka. Hori da inprobisazioa, hori bat-batekotasuna.

Baina bil gaitezen “bildurra” gaiarekin bota duen bikora. Lehenengo polita ikusi dugu, eta ikus dezagun bigarren sendoa. Hori bukaera gaiari eman diona! “Batere bildurrik ez duena / ere deitzen da eroa”. Nik gure ikasleei esan izandu diedan bezala, txoraa da, ama hil edo loteria tokatu, beti parra egiten duen bakarra. Bildurrik eza ere ez da zentzuzkoa. “Baina bildurrak ere badauka / nunbaitik bere erroa”. Pertsonaren izatearen sustraietan bilatu behar da. Ederki bildua eta biribildua uzten du gaia artzainak.

Hurrengo bikoia, gure garaiko bertso bat-batekoetan, ezagunena ez bada ere, ezagunetakoa bada. Nonnahiko bertsozaleek behin eta berriz eta miletan kantatua dana eta kantatzen dutena. Hila duen emaztearen soinekoari kantatzen dio. Buruz bada-kikezu, bertsozale, saio hura; baina ikus ere egin ezazu zure begien aurrean. Hemen duzu:

Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala
ainitz gehiago luza;



Xalbador.

orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik;
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan bertzerik,
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

Hauxe ere bada bikoa, irakurle. Ederrik bada, hauxe ederra. Alargundu baten egoeraren beltza pintatuz hasten da, eta lehenbaitlehen buka dadila desiatuz: “dolamen hunek, oi!, ez dezala / ainitz gehiago luza”. Gero gaiak hornitzen du, berak asmatutako dato batekin: “orai urtea ziloan sartu / andreñoaren gorputza”. Hori berak asmatua da. Ez dio gaiak horrelako gauzarik adierazi. Eta puntu paregabe honekin bukatzen du bertsoa: “haren arropa hantxet dilindan / penaz ikusten dut hutsa”. Hori pintura! Hori kuadroa! Eta hori hizketaren fintasuna! Gogoan erabili eta erabili, eta ez du gogaitzen. Beti, berak bederatziko hartan dioen bezala, halako “jus goxo bat” sumarazten du eta hartzen zaio.

Bigarrenak ere ez du, berriz, lehenengoaren lotsarik. Alargunduaren beltzarekin hasten du hau ere. Eta ez dauka gordeta edukitzeko bere dolua. Egun argitan egingo du negar. “Ez dut pentsatzen nigar eiteko / ene begiak hesterik”. Munduak jakingo du senar alargunaren negarraren mina, eta jakin beza emazteak haren leialtasunaren haundia. Ez zegoen dudarik lirismo batean lehertu behar zuela

bertsolariaren bihotzak, eta horixe egiten du: leher. Ikus: “Ez pentsa gero, andre gaxoa, / baden munduan besterik, / zure arropa berriz soinean / har dezaken emazterik”.

Jo du goia, bertsozale, sendimenduen haundiak eta ederrak eta sakonak eta zinak eta minak, eta hor dario bertsolariari urrezko itzez edo hitzezko urrez eginiko txikorda bere buru-bihotzetatik, sorgin-graziaren liluratan, soinekoa eta haren jabea eta senarraren zina kiribilduz eta esanen zeharbidaren laxoa puntaren puntan duela. Harrapatu du gailurra bat-bateko lirikak. Gehiago eskatzea ezina eskatzea litzateke.

Eta hirugarren bat bikoekin bukatzeko. 1967ko txapelketakoa da (*Auspoa*, 67, 99 orrialdea). Irria du gai bertsolariak. Hona bi bertsoak:

Geure izakera gordetzen degu
gizasemek geienetan,
arrazoirikan ez izanda're
iduri dugu penetan;
oi, irria, zu bizi huntako
beharra zira benetan,
sor dakigula maiz irri hori
beti gure ezpainetan.

Irria beti ez ditaikela
bihotz barnetikan egin,
gogorik ez balin bada ere
hori egin daike berdin:
nahiz irria gezurra izan
eta berari eman min,
bederen beti eginen dauzu
bere inguruan atsegin.

Bitxia benetan gaia tratatzen hasteko manera gure artzainarena. Irria gaia entzun eta gizonaezko-

on izakera salatzen hasten da. Gorde egiten omen dugu. Zein da salaketa? "Arrazoirikan ez izanda're / iduri dugu penetan". Bere burua mirailan edo ispi-luan ikusita ari ote zaigu horrela urepeldarra? Nik dakidan batek ez luke ezetzik esango. Gizasemeok, nonbait, ez dakigu gure sendimenduak kanporatzen; eta, barnealdetik pozik gaudela ere, edo ilun ez behintzat, bekozkoarekin agertzen gara kanpotik. Irria egin genezakeela ere, gu beltz; eta irria "bizi huntako" "beharra" izan. Horregatik bukaerako desio hori: "sor dakigula maiz irri hori / beti gure ezpainetan".

Eta hurrengo bertsoan irriaren funtsa esplikatzen digu, hain irrifartsu ez zen artzainak. Eta nola esplikatatu ere! "Irria beti ez ditaikela / bihotz-barne-tikan egin". Beti ez da oskarbi. Askotan goibel da. Orduan ere, ordea, egin daiteke hori: "gogorik ez balin bada ere / hori egin daike berdin". Kantu famatu hura datorkit gogora Xalbadorren hori irakurrita. Hala dio: "nik ezpainetan irria dizut / bi begietan nigarra". Bai; gordean negarrez dagoen bihotzak eragin dezake ageriko irria. Baina zer irrimota dugu gordeko negarraren ordeaz kanporatu den hori? Hori irri faltsoa da. "Gezurra" da, eta "min" ematen dio norberari. Hala ere, "bederen beti eginen dauzu / bere inguruan atsegin".

Zer irakaspena Xalbadorrek irriaz ematen diguna! Zeinen zehazki eta sakonki adierazten dizkigun artzainak gezurrezko irriaren nekea ta beraren eginkizun soziala.

Usurbilen behin egin zuen bakarkako saio hura datorkit gogora. "Ni naiz" zuen gaia hiru bertso kantatzeko, eta honela dio bigarrenak (*Odolaren mintzoa*, 345 orrialdea):

Asko alditan, atsegingarri
zuentzat izan beharrez,

alaiarena egiten dakit
maitasunaren indarrez;
bainan barrua goibeldua maiz
mundu huntako gaitz txarrez,
alai agertzen naizela ere
bihotza daukat negarrez.

Bertsolarien bizitzan inork uste baino maizago-ko kontua ez ote dugu ezpainetan irria eta bihoztean nigarra delako hori? "Irriaren giltza" omen genuen aheztarra bera ere, ez al zuen lagun urepeldarrak "nigarrez ikusi"? Xalbadorrek dioen "alaiarena" egin behar hori, beste zenbait nekeren artean, ez da, nik uste, bertsolaritzaren zamarik txikiena. Bihoakie, bertsozale, zure eta nere eskerrik zinezko-ena.

Dena dela bertsolariena, irriaren sikologiaz eta soziologiaz gehiago eta hobeki esaten ez da errez bertso bakar batean. Bada bertsoa, irakurle, Xalbadoren bigarren horixe ere.

Bateko eta bikoak utzi, eta hirukoetara pasa behar dugu, bakarka gai bat kantatzen egiten duten ariketa mota hau bukatzeko. Hiruko hau da neurririk erabiliena. Inoiz launa ere eskatu izan zaie; baina oso gutxitan.

Eskatzen ez zaiena, edo ia sekulan eskatu izan ez zaiena txapelketetan, txiste bat hiru bertsotan kontatzea da. Behin eskatu zitzaien, 1965koan. Txisteak segira bat eskatzen du azkeneraino, etengabeko erritmo bat; eta bertsoak, berriz, bakoitzak behar du bere errematea, eta ez dago biribildu gabe uzterik. Eta ez da erreza, juxtu-juxtuan, hirugarren bertsoaren bukaeran erremateen errematea ematea, txiste batek eskatuko lukeen bezala. Behin jarri zen, eta berriz ez da jartzen, eta nik ez nuke inoiz jarriko. Bertso bakarra kantatzeko, akaso bai. Hiru kantatzeko, ez dut uste.

Jarri izan den aldi bakar horretan, han tokatu zen urepeldarra, eta honela kantatzen eta kontatzen du bere txistea (*Auspoa*, 43, 94-95 orrialdea):

Ahezke hortan lenago omen da
apaiz haundi bat izana,
jendeari par einarazteko
nehoiz beldur etzana;
behin batez ere egin baitzuen
hark izigarriko lana,
prozisiora mendira joan ta
han gelditu zen etzana.

Ez dela egia dirudi horrek,
kasik ez daike sinetsi,
zer parrak ere zituen gero
jenderi eginarazi!
Mendi gainian etzanta ditu
harek bi begiak hetsi,
lokartu zen ta artzain zar batek
zapatak dazko ebatsi.

Goizean lokartu zen eta
iratzartu zen atsaldez,
akidurarik haundienean
aurkitzen baitzen herabez;
gero so egin bere anker ta
zapatarikan baterez,
hasi zen artzainer ea hura zen
herriko apeza galdez.

Nik aitzakiren bat edo beste atera diot gai mota horri, baina urepeldarrak erantzun duen bezala erantzunda, ez dirudi halako aldrebestasunik baduenik gai-mota horrek. Lehenengo hitzetik hasi eta azkenekoraino, hasi eta buka, primeran darama txistearen haria Xalbadorrek, bai pentsamenduz eta

bai erritmoz. Ez du eteten, ez da galtzen, ez dago aurrera-atzerarik, eta puntaren puntan bukatzen du kontaketa. Lokartu denean zapatak ebatsi edo lapurtu dizkioten apezak, atzarri edo esnatu zenean, bere bururik ezin du ezagutu, hanketan ez baitauka bere zapatarik, eta han “hasi zen artzainer ea hura zen / herriko apeza galdez”. Oso ongi burututako ariketa da txiste kontaketa hau. Froga zail honetan ere, bertsozale, gailen gure artzaina.

Ondorengo bi hirukoak 1967ko txapelketakoak dituzu. Bien ala biek ere badute mamirik eta axalik.

Irakur ezazu lehen-lehenik, bertsozale, aurrenekoaren gaia hitzez-hitz: “Xalbador, beste hiru bertso kantatu behar dizkiozu salatzaile bati, *denuncia* sartu dizun bati”. Honela ematen zaio gaia, eta hala kantatzen du:

Mingain gaiztoak gu hontaratzen
gaitu nola edo hala,
hoien mingaÑak arkitzen baitu
beti lanpide zabala;
bazinakiten baserri baten
prestu zintzo nindagoala,
min gaizto batek salatu omen du
kontrabandan nandaillala.

Anai-arrebak, gogoan hartu
emango dedan bertsuari,
egia zerbait izango baita
arkitzen naizen kasuan;
Lengo batean salatzaile hoi
bide makurretik zuan,
bere burua salbatzeko nau
ni or ezarri putzuan.

Zeruko santu guziak eni
ari zaizkit errepikan,

salatze horier sekula santan
ez eiteko kasurikan;
hoiek bota nai izanagatik
egon gaitezen zutikan,
hoben esanak ez du balio
mundu huntako baizikan.

Badu saio honek alderdi edo abantail aparteko-rik, nahiz bertso bakoitzean eta nahiz osotasunean.

Berari *denuncia* sartu dion salatzaile bat du gai bertsolariak. Baina... zertaz salatu duenik? Hori ez dakigu. Ez zaigu esan. Laister ikasiko dugu. Ez, ordea, aurretik ofizio txar horrek dituen erreztasunez jabetu gabe. Ikas: “mingain gaiztoak gu hontaratzen / gaitu nola edo hala, / hoben mingainak arkitzen baitu / beti lanpide zabala”. Aurkituko ez du, bada “lanpide zabala” gaizki esan nai duenak? Zer ez daiteke asma, eta zer ez da asmatzen, hartara jarrita? Eta esan? Baita semea dela aita ere esango du zenbaitek esatez. Eta, bekaizkeria lagun, zer suma dagoenak, gaua bera ere beztuko luke. Hargatik “mingain gaiztoak gu hontaratzen / gaitu nola edo hala”.

Eta zer salaketa egiten diote urepeldarrari? Entzun bera: “min gaizto batek salatu omen du / kontrabandan nandaillala”. Ikasi dugu zer izan den salaketa, eta oinarri egokia jarri zaio gaiaren tratamendu osoari. Jakin dugu hori eta ikasiko dugu besterik.

Esan zaigu zertaz salatua izan den. Entzun dezagun zergatik izan den salatua: “lengo batean salatzaile hoi / bide makurretik zuan, / bere burua salbatzeko nau / ni or ezarri putzuan”.

Ederra zuen bertsoak hasera. Jendeari arreta eskatuz hasten da, “gogoan hartu” esanez, “egia zerbait izango” dela-eta “arkitzen” den “kasuan”. Deigarria sarrera; eta are eta deigarriagoa jarraipen

hori entzun eta gero. Hori bertsoa, behatzen zaion aldetik behatzen zaiola! Guztizkoa da axal eta mami. Giza-konportamenduaren sustraietara jotzen du urepeldarrak salaketaren arrazoiak bilatzerakotan. Bazuen sikolojia gure artzainak. Ederki!

Eta hirugarrena orain. Biribila hauxe ere. Hori bertsoaren trinkotasuna! Hori erritmoa eta hori espresakera! Esaldi guztiak dira sendoak eta bizkorrak, zein baino zein pisuagoak denak. Ez al dauka, izan ere, laguntza makala. “Zeruko santu guziak” ditu lagun, eta esan eta esan ari zaizkio, “errepikan”, “salatze horier sekula santan / ez eiteko kasurikan”. Jakina da salatze horien helburua: gizona “putzuan” sartu. Ez beldurtzeko egiten du deihadar. “Hoiiek bota nai izanagatik / egon gaitetzen zutikan” dio. Hori kuraia! Izan ere, “hioen esanak ez du balio / mundu huntako baizikan”. Salataileak egin nahi duen kaltea ez da guztizkoa. Mugatua da. “Ez du balio mundu huntako baizikan”. Eta Xalbador ez da errenditzen muga horietan. Badu haruntzagorako ertenbidea.

Filosofia hori onartu ala ez, bertsolariaren lojika argia da, argumentuak zehatzak eta arrazoiketari ematen dion indarra, berriz, lur jota dagokeen edozein jeikierazteko modukoa. Hori bertso puska!

Baina, bertsoak bakoizka kalitate haundikoak izanik ere, hiruren bidez gai osoari ematen zaion tratamendua da apartekoa. Nola hornitzen duelako gaia, eta nola eraikitzen pieza osoa. Eta bakarkako ihardun hauetan inola ahaztu behar ez den zerbait da batasun eta osotasun kontu hori. Xalbadorrek hasi eta zabaldu eta bildu eta biribildu egiten du guztiz berea. Eredurik behar bada, horra hor bat, irakurle.

Eta horrenbestez, bertsozale adiskide, ikus dezagun azken hirukoa. Honela ematen diote gaia: “Iru bertso oiari, ohatzeari”. Hona iharduna:

Ohea bezain zer baliatzen
ote da gure bizitzan?
Leku pausakor hobeagorik
nehon ez daiteke izan;
handik kanpora ertetzen gira
egin beharren peskizan,
astia izanez goizean ere
geiago egonen nintzan

Ohe maitea, zurekin badut
nik egundainoko hartze,
nahiz artetan ematen duzun
kolpeño bat edo bertze;
bizitze onik zu gabe ez da,
hortaz beti dut aditze,
ez zeradea zuhaur izan zu
maitasunaren ohantze?

Ohe gaixoa, zu maitagarri,
zutaz ez nitaikexil,
zutaz behartu gabe egun bat
munduan ez daikexil;
denak horrarat datoz azkenian
izanikan ere abil,
zutan sortu ta zutan aziak
zutan behar dugu guk hil.

Kezka apur batekin hasten dut nere iruzkin edo komentarioa hiruko hortaz. Osoan eta bere horretan erakusten duen dizdira hori lausotuko ote diodan da ene beldurra, eskuetan argazki bat erabiltzen duenak egin ohi duena egingo ote dudana alegia.

Esate baterako, sarrerako hasperen edo suspirio sakon hori entzun eta, zein hasten da iruzkin moduko zerbaiten bila? Ez al du berak erakusten entzulearen nahiz irakurlearen bihotza airarazten duen fintasun argi bat? Zenbat goxatu hartua ote

genuen gure bertsolaria bere “ohe maitean”? Lizardi zenak “Aita gure” bat agintzen zion sortzaileari esker onez. Urepeldarrak ere bazukeen bere zorra kitatzeko zerbait eginik. Izan ere, “leku pausakor hobeagorik / nehon ez ditaike izan”.

Eta “handik kanpora ertetzen gira / egin beharren peskizan”. Zorigaiztoko, edo oneko, lana edo beharra edo eginbeharra! Zenbat aldiz minez utzarazten digun ohe maitea! Eta azken aldiz adio esan behar izan dion ordua datorkio gogora artzainari: “astia izanez goizean ere / geiago egonen nintzan”. Fin hasi du eta fin bukatu bere bertsoa urepeldarrak. Eztia zen ohea aitatzek eragin dion hasperena, eta eztia da hura uzteak sortu dion minen aitormena. Ez du aitzakirik bertsoak.

Bigarrenak tonu lirikoagoa hartzen du. Altzoan leukakeen maiteari bezala hasten zaio: “Ohe maitea, zurekin badut / nik egundainoko hartze” (zorra). Maite deklaratu du oraingoan ohea, eta hartzedun haundi. “Egundainoko hartze” dio. Eta ez du ttipitzen zor hori “artetan” “kolpeño bat edo bertze” emateak. Galdetu nahi izan nion behin, bigarren puntu horretan zer esan nahi zuen, eta galdetu ere egin nion; baina harek neri erantzuna eman baino lehen sartu zen tartean norbait, eta jakin gabe gelditu nintzen. Nere galdera entzun eta egin zuen keinutik ulertu ahal izan nuenez, neronek jakin beharko nuen hori, gauza ebidentea zelazko espantu bat atera baitzuen.

Eta delako zor horren haundia zehaztera dator hurrengo bi puntuetan. Hona: “Bizitze onik zu gabe ez da, / hortaz beti dut aditze”. Zergatik zorra? Zergatik “bizitze onik” ez? Entzun: “Ez zeradea zuhaur izan zu / maitasunaren ohantze?” (Ez al zerade zerorri izan zu maitasunaren kabi?). Hori definizioa ohearena gure artzainak emana! Lizardi zenak eman zigun ederrik *Oia* izeneko bere olerkiaren

lehen estrofan. “Neke sendalaria” zela esan zigun, eta “lanaren saria” eta “nagian nausia”, besteak beste; baina ez dira artzainarena baino ederrago. Pertsonalagoa da Xalbadorrena, gizon heldu eta ezkondu batentzako, hots, “maitasunaren ohandze”. Harrezkero badu gure kutun horrek definizio bat gehiago artzainari eskerrak.

Ederra, beraz, esana. Eta esateko modua? Behin eta berrizkoa du urepeldarrak galderaren urruntasunean bere pentsamendua uzte hori, esanari esateko moduarekin suspense baten pisua erantsiz, urrutitik putzura jausi den harriak bezala, entzuleen bihotzetan sentimenduzko palasta haundiagoak eragin ditzan.

Zerbait afirmatzeko galdera-modua erabiltzea helduleku erretoriko aparta da; eta zer esanik ez hor egiten den esaldi perfeziozko horrekin egiten denean. “Ez zeradea zuhaur izan zu / maitasunaren ohandze?”. Hizketako arau guztiñ arauera da paregabea. Bai, bertsozale. Zehatza eta zuzena eta argia eta garbia eta betea da errematea.

Eta hirukoaren azkena. “Ohe gaixoa, zu maitagarri” eginez hasten zaio, eta “zutaz ez nitaike ixil” esanez jarraitzen. Lehen ere badio deklarazio galanta egina; baina ez du aski. Izan ere, “zutaz behartu gabe egun bat / munduan ez daike ibil” aitortuko dio. Lizardiren “neke sendalaria” gure gorputz nekatuek egunero eskatzen duten medizina dugu. Eta egunerokoek egunero hartara ekarriko ez bagaituzte ere, azkeneko nekeen nekeak eta miserien miseriak eta beharren beharrak eta azkenen azkenak bai, ekarriko gaitu bertara: “denak horrarat datoz azkenian / izanikan ere abil”. Alperrik dira gure bestelako ahaleginak. Bakailo-bideek ere “horrarat” jotzen dute. Ez daiteke bestela. Derriorra horrela da, hots, “zutan sortu ta zutan aziak / zutan behar dugu guk hil”.

Egun hartan epaimahaiarentzat kantatutako guztietan, hau dugu azken frasea edo esaldia edo perpausa edo esana. Ez nolanahikoa. Hori da egun bat bukatzeko modua. Eta hori da "oiari" kantatutako hirukoari Xalbadorrek ematen dion bukaera. Errematea da gero hori!

"Salatzalleari" gaiarekin egindakoa eredu deklaratu dugula? Hau ere egin dezakegu lotsa haundirik gabe. Zeinen sarrera fina egiten duen, "leku pausakor hobeagorik" ez dela hotseginez eta "goizean ere" hura uzten izan duen damua aitortuz. Bigarrenean "maitasunaren ohantze" definitu digu. Zer ez ote zuen esan nahi gure artzainak, amodioaren gune berezi hori horrela definitzean? Eta, azkenik, gure kondaira osoa laburbiltzen du ohearen baitan: sortu, hazi eta hil. Ez da erreza hobeki tratzen gaia, eta biribilago moldatzen pieza.

Ez dakit txalorik jo zitzaion ala ez Xalbadorri bere saioa bukatu zuenean, ni ez bainintzen han eta zintarik ere ez baitut entzun ordukorik. Nik hau dakit bakarrik, bertsozale: inoiz txapelketarik bukatu bada gailurraren puntaren puntan, 1967ko hura izan zela, bai esanetan eta bai esateko maneretan: "zutan sortu ta zutan aziak / zutan behar dugu guk hil".

Datorrenean egingo ditu hogeitamar urte txapelketa hura jokatu zela. Bada gerozkoan hozberorik izanik, eta badu bertsolaritzak urratsik emanik, dela tankera berriko bertsolariz, dela eskolako ikasketez, eta bat eta beste. Kostako da, hala ere, Xalbadorren bakarkako ihardun hauek baino ezer beteagorik eta diztiratsuagorik eta bikainagorik aurkitzen.

“Hura da, hura, bertsolaria”

HORI omen zioen jendeak egun haretan Aldude herrian. Mattin zenak kontatzen du *Ahertzetik Mattinek Xalbadorri* izeneko bertso batzuetan (*Auspoa*, 108, 79 orrialdea).

Bertsolariak omen ziren izatekoak herri baxenafartar horretan. Mattin ere deitu zuten, eta han joan zen bere Ahertzetik betiko prestutasunez. Saltzeko haina “onbore” ere bazeraman berekin; baina denbora gutxiko.

Hona “Aldudera-ta” zer entzuten duen: “Sukarreakin oian da bera, eta gaizkiago ama; pena da, baina ezin ditake Xalbador etor gaur huna”.

Ez zen bada urrun Xalbador. Auzoherri du Urepelek Aldude, eta pareren bat kilometro besterik ez da batetik bestera. Eta gainbehera ia guztia. Zenbait alditan laisterka ere joanen zen gure artzaina arnasarik asko berotu gabe, bere etxetik Alduderraino. Egun hartan ez ordea. Bera “sukarreakin oian” zen eta “gaizkiago” zuen bere ama.

Ez zuen halakorik asko espero ahezta umoretsuak. “Ez nuen uste deusek gibela / nintzazken zu ikustetik” dio biribilki; eta “geroztik grinan bizi naiz” erantsiz seinalatzen du nahigabearen haun-



Mattin.

dia. Hartarainokoxea izan zen ustekabea eta ustekabearen latza.

Ez zen bakarra izan gure bertsolari maitagarria notiziak jo zuena. Hona hirugarren bertsoa:

Berri txar hori laster pasa zen
guzien beharrietan;
guziak ginen doluan jarri
hain ginenak lorietan.
Halako latz bat ere sendi zen
gure buruzagietan:
kobla ederren itzaina falta
zela bertsolarietan.

Horra, bada, Mattin ez-ezik, "lorietan" ziren besteak ere "doluan jarri". Ez zuen zerua ilundu aheztarrarentzat bakarrik. Besteek ere, buruzagiek barne, "halako latz bat" senditu zuten, eta loria dolu bihurtu zen. Izan ere, berria ez zen nolanahi-koa: "kobla ederren itzaina falta / zela bertsolarie-tan". Hori moxtadea!

Eta noiz eta egun haretan, gainera, falta. Ohiz-ko jaialdi bat izan balitz ere, Mattinen apaltasun gehiegizkoz dioen bezala, "gu iduriko jendia" biltzen den horietakoa, tira; baina egun hartan bazen, ordea, Alduden "zer nahi gizon argitu: / mera, zenatur, mediku, apez, / kalonje ta apezpiku". "Gu iduriko jendia" delako hori "kontentatzen" omen da Mattinen eta abarren "zirto ta bitxikeria" horiekin ere. Horiekikoa egin dezakete, hor nonbait, aheztarrak berak eta ere. Beste horiekikoa ez ordea. Berri-ro ere apaltasun guztizkoz honela aitortzen dio lagunari: "suieta hoiki axala baizik / ez ginioten hunkitu". Eta "beste bertsurik entzunen zuten / zuk bixtan izan bazintu" eginez amaitzen du bostgarren bertsoa. Horiek laudorioak lagunak lagunari! Eta hori bihotzaren ederra aheztarrarena!

Ezta horretan bukatzen Mattinen jarioa. Badu oraindik zer esanik. Eztu aski orain arte deklaratu diona bere lagunari. Entzun laugarren bertsoa:

Nik, lagun gisa, aitortu gabe
zuri ez nindaike pasa,
Alduden zutaz jenden artean
erabilki zen solasa:
“Hura da, hura, bertsolaria,
harek badu gero klasa!
Bai egiazki ageri dela
gaur Xalbadorren eskasa”.

Bertsozale adiskide, ikusten nolako obligazio-
neak hartzen dituen bere gain egiazko lagun batek?
“Ez nindaike pasa” esaten dio aheztarrak bere
buruari. Kontatu beharra dauka, Xalbador falta
zela eta, egun haretan artzainaz “erabilki zen sola-
sa”. Obligazione zaio Mattinen bihotz zabalari
goresmeneko solas horien berri bere lagunari ema-
tea. Ez daiteke “pasa”, “lagun gisa”, gauza horiek
kontatu gabe. Gora gure Mattin bihotz haundiko!
“Zorionekoak bihotz garbidunak!”. Zorionekoa Mat-
tin! Hori da esker ematea lagunak lagunari!

Zer pentsatu ote zuen artzainak bertso eder
horien gozoak begietan eta belarrietan jo zuenean?
Noraino ez ote zen airatu artzainaren barrena, eta
zertaraino aldi berean apaldu, halako aitormena
norberaren merituei baino gehiago lagunaren bihotz
paregabeari zor zaiola ohartzuz? Nork uste dezake,
izan ere, norbere abantailak abantail, tankera
horretako adiskide bat merezi duenik? Bai; bertso
horiek Xalbador asko goresten dute; baina Mattin
ez gutiago goratzen.

“Hura da, hura, bertsolaria” omen zioen jen-
deak Alduden egun hartan. Hori da norbere
herrian, edo herriantsu, igarle izatea. Hura zuen

artzainak jenderik bereena, hurbilekoena, haren ezagutzaileena eta ulertzaileena. Jende horrek zioen “harek badu gero klasa”, eta “ezagutzen da haren eskasa”.

Horrela mintzo da artzainaren auzoherrian bildu den bertsozalea, eta horrelaxe jasotzen du haren lagunak batere gezurrik gabe. Gezurra Mattinek? Entzun, entzun, hurrengo bertsoa:

Ahalaz beti maite izan dut
gauza zuzen jujatzia:
zuk bertsoari emaiten duzu
merezi duen jauntzia.
Eta zu gabe gu nola ginen
errex da konparatzia:
iduri zuen aitzia neguan
hostotarik biluzia.

Gezurra Mattinen esanetan? Ez dago beldurrik. Berriketako seriotasunarekin ari zaio lagunari Aldudeko berri ematen. Harritu ere, berriz, ez dirudi egin duenik bertsozaleen solasak. Haiiek sumatu zutela Xalbadorren “eskasa”? Bai “irriaren giltza” omen genuenak ere. Esplikatu du, zinez ez-errez, —“ahalaz beti maite izan dut / gauza zuzen jujatzia”—, klarki ere, konparazio baten bidez, zer iduri zuten egun hartan bertsolariak urepeldarrik gabe. Hori “errex da konparatzia: / iduri zuen aitzia neguan / hostotarik biluzia”.

Ai, gure Mattin, gure Mattin! Ez da aspertzen bat aheztarrak bere lagunari egiten dion aitormen paregabe horren ederra behin eta berriz aitutzen; eta are eta gutxiago da aspertzen bat bertso horien jabearen bihotz garbia goresten eta goresten. “Atzo ikusi dugu zure bihotza” deklaratu zion behin urepeldarrak aheztarrari, “irriaren giltza” negarrez ikusi zuela eta jarritako bertso batzuetan (*Odolaren*

mintzoa: Mattin nigarrez ikusi dut). Ez zuen nolana-
nahiko ikuskaria izan egun haretan Xalbadorrek.

Bertsolari deklaratu dugula, irakurle, zuk eta nik “Urepeleko artzaina”, eta bertsolari haundi eta zenbait alditan paregabe? Ez gara bakarrak. Hor dugu gure alde “Ahetzeko Mattin”. Bazukeen guk haina entzuna aheztarrak Xalbador, eta baita beste inork baino gehiago ere; eta bestek ez bezala ezagutu zuen hura, hona nola ari zaion gorespenetan bere ofizioko gizonari. Arrazoi ematen digu guri, eta arrazoi ematen die, hala berean, egun jakin hartan Aldudera bildu ziren bertsozale haieri, Xalbadorren “eskasa” sumatu zutela ziotenean. Nola ez zuten bada sumatuko, udaberritik negurainoko aldea baldin bazegoen artzaina haiekin izan edo ez izan?

Hor duzu, irakurle, Mattinen erabateko iritzi hori Xalbador bertsolariaz. Aurki al zitekeen iritzi emaile hoberik “pertsutan osoki jakina” (*Odolaren mintzoa: Dohaina eta lana*) omen zen hura baino? “Pertsutan osoki jakina” eta egiazko eta egiaren laguna. Hor uzten dizut bere osoan eta betean eta klaroan eta ederrean.

Badugu besterik ere, bertsozale, aheztarrak eta guk bezalaxe, Xalbador aparteko bertsolari deklaraten duenik. Damuz, itzaltzen ari zaigun ahots bat bada hor Zarautzen, Errezilen sortua, *Basarri* ezizenez ezagutua, behin eta birritan txapeldun izana. Ez dauka saltzeko artzaina. “Xalbador bezalako dozenerdi bat bertsolari” baleude eginez ari da, 1962ko Errege eguneko ihardun haren ondoren. Hartuko omen luke hizkuntzak laguntza ederra urepeldarraren antzeko dozenerdi bat bertsolarirekin.

Eta txapeldunetik txapeldunera. Etxanoko seme esanezinalakoa dugu orain, plazako Xalbadorrek harritzen duena gehiena eginez. ETBn ginen batean esan zuen hori Amurizak, eta han jasoak

egongo dira haren hitzak, norbaitek nahiko balitu entzun.

Eta nola bukatu gure alde dauden txapeldunen zerrenda, bertsozale, Lopategi haundia aitatu gabe? Harek esan ez zuen egin. Harek egin egin zuen. Bere txapela eskaini zion "Fernando Eireri", "Eire" esan bazuen ere, denok bagenekien "Aire" esan nahi zuela.

Zertarako da orain, bertsozale, zure edo nere aburua, hitz erdi sakratu horiek entzun eta gero? Guri haxe bakarrik esatea dagokigu: Amen!

“Txistuak jo dituzute...”

ARGITIK ilunerako jauzia dugu, irakurle, aurreko kapitulutik oraingora. Hura Mattinen bihotza bezain gardenena genuen, eta hau pikea bezain beltza. Beltza da, izan ere, orain kontatzera noakizuna.

Gogora dezagun eguna, ordukoek berri deza- ten, oraingoen ikas eta datozkeenak aurki. 1967a da urtea, ekaina hilabetea eta 11a eguna. Arratsalde partetik gertatu zen gertatzekoa. Nik Gipuzkoako Beasain herrian jakin nuen. Urbasa mendian Añorgako gazteekin eguna pasata nentorren, eta ezta- rriak bustitzeko gelditu ginen Beasainen. Hango tabernariak eman zigun berria.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa zen egun hartan Donostian. Zortzik egin zuten beren iharduna goiz partean, eta horietatik hiru pasa zituzten arratsalderako. Xalbador, Lopategi eta Gorrotxategi ziran hauek, eta Lazkao-txiki zena sartu zen horien tartean, arratsaldeko lehen iharduna egiteko. Saio horretan erabaki behar zen zeinek jokatu txapela berria Uztapide txapeldunarekin. Mahaiak Xalbador hautatu zuen aurrerako.

Hautatu bazuten hautatu zuten. Hura iskanbi- la, noski! Inpernuko atea zabaldu balitz bezala, hango oihu eta zarata eta txistuak! Hura sua eta

hura egoeraren gorria! Noizpait, hala ere, jendeak arnasartze alde edo, baretzera egiten du burrundak, eta kanta dezake Uztapidek bere agurra, eta kantatzen du. Xalbador hasten da hurbiltzen mikrofonora eta berriro zabaltzen da grinaren atea, eta txistuak hasten. Txaloak ere badira, ordea, eta iskanbilak bajatzera egiten du, eta hontan urepel-darra kantari hasten da. Hona bertso gogoangarri hura *Auspoa* 67 alean datorren datorrenez, ondoko esplikazio eta guzti:


“Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa
neure gustora nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik...

(Jende guzia txaloka asten da, ta ezin jarraitu du denbora-puska batean; gero onela bukatzen du bertsoa:)

zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet orainik!

(Oraingoan jendea eskuak puskatzerañoko txalotan asten da, ta, txistu-soñurik gabe, txapelketak aurrera jarraitzen du.)” Honeraino *Auspoa*.

Zeinek asma? Zeinek iger? Zeinek suma zertsu gertatu zen Xalbadorren barruan ordu gorri hartan? Eta nola esan? Nola konta? Nola adierazi inork inori? Sendimendurik hezeenez eta beroenez eta ondogabeenez horniturik zegoen bihotz harek, txistuzko erauntsi hartan zer pairatu zuen aditzera



*Uztapide ta Xalbador, Donostia'ko pertsulari xapelketan,
1967.VI.11'an.*

eman nahi izatea, itsuari argiaren berri eman nahi izatea bezain ezinezkoa dela edozeinek daki. Denok dakigu. Baina harria izan zela hura artzainarentzat ez dago esan beharrik. Ez zirela harentzat joak izan? Hura zela eta joak, bai. Eta hura jo zutenak ere, bai. Jo ote zuten gero?

Ez dago entzun besterik saio hartako bertako bertso zenbait. "Zergatik haurrak, jaiotzen diranean, negar egiten duten" gaia jartzen zaionean, honela bukatzen du:

Zeren Yeinkoak bere jaiotzan
errana dion haurrari:
gure mundu hau tristea dela,
benetako negargarri.

Zer zegoen une hartan artzainaren bihotzean negarra besterik? Zer, tristuraren beltz hutsa besterik?

"Ijito mutil gazte bat, zuk dirua daukazun bankuko kobradore izendatu omen dute" dio beste gai batek. Eta honela hasten da bigarren bertsoan bertsolaria:

Narras kusten dut nik hortan ere
gaur naguen ingurua,
ez dago hain leitu erreza
mundu huntako liburua.

"Hortan ere" narras ikusten du bere ingurua. Txistuen narraskeriaren gainekoa ote? Hemen ere ez ote dario zauri beretik?

Baina "ote" eta "omen" kontuak ahazten dira ederki, honako lau oin hauek "iñor, gogor, jator, bizkor" entzun eta bere bertsoa kantatzen duenean. Hona:

Neure ustez lanean
jokatu naiz jator,
jakinduri gutxi bainan
solasetan bizkor;
txistu jotze, hargatikan,
atzeman dut gogor,
ni baino tristeagorik
ez du jarri inor.

Aurkitu du bere tristura erakusteko aukera. Eta ez du alperrik galtzen. Ezta gero ere azken agurra egiterakoan. “Ez dakit egun zer pasatu den / nik frontoi hunen barruan” dio, gertatuaz harriturik bezala. Zer pasatu den ez daki, baina berari zer gertatu zaion bai: “Bertzen txistuak entzunik ez naiz / ni oso pozikan jua”, Zeharbidezko esamolde horrek jakinaren gainean uzten gaitu zer nolako giroa dagoen bertsolariaren barrunbe haretan. Behin eta berriz darama eskua zaurira. Eta beste miletan eraman balu ere, irakurle, harrituko al ginen zu eta ni?

“Txistu jotze” horren aitamenak ez zaizkio egun berean agortzen artzainari. Zein harri hortaz! Geroxeago eta geroago ere eragingo dio zauriak auhenik. Eta noiz egokiera aukerakoagorik bere *Gipuzkoa maitea (Odolaren mintzoa)* gaiarekin ari denean baino?

Lehen ere aitaturia zuen txistu kontu hori, eta orduan ere Gipuzkoa tarteko zela. O, *Gipuzkoa, maitatu zaitut (Odolaren mintzoa)* du bertsoaldeak izena. Hemen kantatzea debekatu egin zioten, eta horren mina dela eta egiten du bertso sail hori. “Bitan hor ene boleguari / moztu dizkate egoak” eginez hasten du bigarren bertsoa. Zein dira bi aldi horiek? Bat oraingo debekua. Eta bestea? Har dezagun hirugarren puntua: “len ere hortxe behin ixuri / nituen negar beroak”. Nondik eta noiztik eta zer-

gatirik ez zaigu izendatzen lerro horretan; baina lan haundirik ere ez dugu ulertzen zerengatik izan zitezken malko haiek. Donostiako purrustaldi hura baino ordu gorriagorik eta une mingarriagorik noiz gerta zekioken, izan ere, Urepeleko artzainari?

Baina beste zerbaitez ari dela eta iraisean bezala atera zaion aitamen hori, izendun bihurtzen da *Gipuzko maitea* kantuan. Zehazki eta gordinki ematen zaigu beraren berri. Eta ez nolana hiko kantuan.

Izan ere, beha ezazu, irakurle, nola hasten zaigun kantari bertsoalde horretan artzaina: "Zabalik ene dohain guzien atea". Hauxe da, hauxe, hasteko modua! Bere osoan eta betean eta guztizko garden-tasunean abiatzen da bertsoak egiten. Badu zer-bait apartekoa esan beharra. Dena den, zabaltzen dio "dohain guzien atea" bere bihotzari. Zerk eragin du artzainaren bihotzean horrelako irakinaldia? Zeini ari zaio? Zein du solaskide? *Gipuzkoa maitea* delakoa.

Eta zein da hori? Haren nortasunaren ama: "Daukadan nortasunak zu baizaitu ama". Hasteko modu harek ezagun zuen ez zuela nolana hiko suieta. Zein, eta haren nortasunaren ama, bertsolari-ama. Nola ez zen bada airatuko gure artzaina bere bertsolari izatearen ama kantatzean?

Badu, bai, antzik bertsoalde honek, sabelean ekarri zuen andreari eskeinitako *Ene ama zenari* harekin. Nola batean hala bestean bihotz-isuri aparteko bat dago. Zabal mintzo da bertsolaria bietan, eta guztiz da hustutzen, pena eta poz, bai hemen eta bai han.

Eta, jakina, zein harri? Penak kontatzen hastean, Donostiako hura agertzen da oraingoan. Baiña disimulurik eta iraiserik gabe. Hemen ez dago ezizenaren beharrik. Zer dela eta ariko da, izan ere,

tapatzen ezer? Ez al zaio bere amari ari? Beste *Ene ama zenari* hartan ere erabateko kofesione bat ateratzen zaio, eta hemen ere berdin. Harreman osoa jaulkitzen du. Eta nola gorde Donostiako egun ikaragarri hura?

Entzun ditzagun bederatzi eta hamargarren bertsoak:

Behin hargatik poza zitzaidan markistu,
entzulek eskainirik bost minutu xixtu;
gogoz banintzan ere une hartan histu,
errespeto haundi bat ni baitan zen piztu.

Eman zidaten jaso ahalako pena,
ahal bezain umilki hartu nuen dena,
pentsatuz zitaikela egin zidatena
amak haurrari egin oharrarazpena.

“Eman zidaten jaso ahalako pena”. Jaso zuela badakigu, ez baitzuen penaren zamak bota. Han segitu zuen zutik eta bertsoan. Eta nola! Zenbatekoa izan zen da ez dakiguna, eta jakingo ez duguna inoiz, penak izan egiten baitira, eta ez esan. Orixe zenaren harako hura datorkit gogora: “Neurtitzik ez da munduan zorigaitz aren dina”; eta olerki berean aurreraxeago: “ezin-esanaren miña; miñen ezin-esana”. (*Ama naigabetuari* olerkia).

Beraz, ez dezagun lardaska guk “jaso ahalako pena” hura, irakurle, berebizikoa izan bide zela edozeinek asmatzen baitu, nahiz inork ez suma zenbatsukoa. Berak esan zuen: “aunitz maite duenak aunitz sofritzen du”. Eta noiz gehiago sofriri, sofrierazlea “maitea” denean baino? Harako hura egi hemen ere: “*Amor meus, pondus meum*”; hots, “nere maitea, nere neke”. Eskerrak bizitzaren edertasun guztia ere maitez eta nekez hornitzen den.

Nik, zorlonez, ez nuen jo txisturik, bertsozale. Esan dut lehen ez nintzela han; baina izan banintz ere, ez nuen joko. Miresgarriegia zitzaidan Xalbador, hura aurrera pasa zutela eta, hari txistuka hasteko. Izugarritzko txaloak atera eraziak bazizkidan ordurako bere bertsoekin.

Jabetua nintzen, bestalde, haren bertsoek entzuketik irakurrira irabazi egiten zutela, eta beste batzuenek galdu. Harenek gora egiten zuten bezala, besteek behera egiten zuten. Irakurriaren bahe honek asko laguntzen du bertsolari baten maila nolako den ikusten. Entzun hutsean pasa egiten den zenbait akats eta abantail, hor ederki nabarmentzen da. Horrelaxe nintzen ni jabetu zenbateko bertsolaria zen urepeldarra, eta ez nion txisturik joko arratsalde gogoangarri hartan.

Bestek ere ez zion jo behar. Ez, noski, neri eragozten zidan zera horrengatik. Arratsalde hartan entzun zituen, edo zitukeen, bertsoengatik ez zion jo behar bestek ere txisturik. Hura aurrera pasa zutela eta, haserre edo samur? Zergatik ez zuten bada pasa behar? Zeinek kantatu zituen dozena bat edo gehiago harek bezalakoak? Zeinek?

Nik esker eta ohore ematen diot orduko mahaiari. Zena zela bera, nik ez baitakit zeintzuk osatzen zuten. Biba zuek, arratsalde hartan Uztapiderekin txapela jokatzeko Xalbador aurrera pasa zenutenok!

Jotzekotan egun hartan, bertsozale adiskide, badakizu noiz jo behar zuten txistuak? Jotzekotan... Orduan ere hobe baitzen txistuak baino txaloak jotzea, eskuak urratu eta puskatu eta gastatu arte. Badakizu noiz? Urepeldarrak Oia gaiarekin bere hirukoa bukatu zuenean. Han hasi behar zuen jendeak, ondo izatera, zutik jarri eta txalo eta txalo, urepeldarraren bihotzari gainez eragiteraino poza-
ren pozez.

Orduan zitekeen, txapela gora behera, artzaina eskertua eta gomendatua eta konsagratua, eta hala zitekeen haren bertsoen edertasuna esanezinhalkoa aitortua.

Baina ez zuen horrelako txaloaldirik jo jendeak, eta bai halako txistuak, eta hauek markatua gelditu zen egun hura, egun gogoangarria.

Beste behin ere izan zuen egokiera entzulegoak txistuak jotzeko —txaloak hobe—, eta pizteko eta sutzeko eta urtzeko ederraren ederrez. Orduan ere Xalbador zela eta; baina alderantzizko egoeran. 1967koan aurrera pasa zutelako berotu zen entzulea, eta pasa ez zutelako egin behar zuen 1965ekoan.

Ordukoa da hildako emaztearen soinekoari kantatutako biko paregabe hura, eta ordukoa belduraren beste biko aparta, eta ordukoxeak txistea kontatuz kantatutako hiru haiek eta beste.

Baina ez zuen suak hartu publikoa, eta ez zuen erantzun tokatzen zitzaion moduan; eta, jakina, ez zuen txapelik jokatu urepeldarrak, eta jantzi gutxiago.

Hala ere Xalbadorrek txapela guztiek baino gehiago balio duen saria jaso zuen bere egunik gorrien hartan. Zera, alegia: han jo zitzaizkion txalo haiek, bertsozale asko eta asko begietatik malkoak saltoka zituztela, esku-zartaka hasi zirenean, harako hura entzun eta:

txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet orainik.

“Ez nauzu ni xapelduna”

HORRELA mintzo da artzaina *Herria gogoan* Liburuan (*Auspoa*, 152), 62 orrialdean. “Ez nauzu ni xapelduna” eginez bukatzen du bere bertsoa. Harrigarria ateraldia.

Ez al dakigu bada denek hura ez dela xapelduna? Nork eta nori esan ziezaiokeen hori, norbait uste horretan zegokeelakoan eta Xalbadorrek berak gezurta ziezaion? Zeini ari zaio? Zein burubero da, hura txapeldun jo duena? Amets konturen bat ez ote izango hor?

Ametsa, izatekotan ere, ez artzaiarena berarena behintzat. Xalbadorrek ez dio bere buruari txapeldun izateko aparteko abantailik eta dohainik ikusi izan.

Iritxi zitekeen, bai, hura ere gain horietaraino, baldin eta egia izan balitz haren gaztetako uste hura, alegia, “Jainkoak, apostoluak Izpiritu Sainduz dohatu zituen bezala ebanjelioaren predikatzeko, bertze gizon batzu dohatu zituela pertsulari izaiteko” (*Odolaren mintzoa*, 34 orrialdea). Horrela bai, bazitekeen hura ere txapeldun eta zernahi; “bainan hori ez da egia” (*ibidem*) dio artzainak, nahiz oraindik ere ba omen diren “hori uste dutenak”,

“Bistan da —dio orrialde berean— Jainkoak ezarri duela hazi zerbait gure baitan”; “bainan biziki

ahula da” harengan ezarri duen “pindar” hura. “Ufatuaren bortxaz zaizko artetan gar zirrista batzu atera”. Pindar edo prasa ahula gure artzaiarengan aurkitzen dena. Zein harri daiteke, beraz, “nehork ez lezake sinets eni segurik zonbat gosta zautan hein huntaraino ere heltzea” dioenean? Eta bere burua horren motz ikusten duenak amets egin txapeldun izatearekin?

Gogoia eta grina bai, bazituen pertsulari izateko. Hortan ongi dohatua zegoen. “Tirria bizi bat hautemaiten” zuen bere baitan. Horrekin ere zerbait egin daiteke; baina zerbait bakarrik. Intentzioaz gain beste zerbait behar da bertsolari izateko, eta zer esanik ez txapeldun izateko. Eta nola jantzia ikusten du bere burua gure artzainak beste dohain horietaz?

“Pertsulariak, lan hortarako zaletasunaren edo gogoaren ondotik baitezpadako (derriorrezko) duen dohaina, rimaren edo berdin bururatzen diren hitzen bilatzeko errestasuna” omen du. Delako errestasun hori duena, “titxolaria deitzen” omen dute beraiek. Eta zertan nabarmentzen da norbaitek baduela dohain hori? Entzun: “Hoiari, zuk hitz bat atera orduko, burrustan heldu zaizkiote hura iduriak gogorat”. Dohain horiek biak, gogoia eta errimatozia, dituenak, errex egin dezake pertsua” (*Odo-laren mintzoa*, 57 orrialdea).

Eta ez dituenak? Titxolaritasuna falta zaionaren berri artzainak berak emango digu, bera omen baita eta horren lekuko. Ikus nolako zinezkotasunez eman ere ematen digun 58 orrialdean:

“Nahi duenak ez beza sinets, bainan eni bigarren hori eskastu izan zaut beti. Ez du pertsularia izan behar, ni baino titxolariago izateko. Gogoarekin bakarrik ere zerbait egin ditaikela badut ahatik lekukotasuna. Ni hortaz izan bainaiz gehienik dohatua”.

Sinestu egingo al diogu? Ez al zaigu zilegi, hor dioena gehiegi esatea dela pentsatzea, bere garaiko bertsotean errimarik gizenenetakoa eta bariatuenetakoa erabili zuen batentzat? Zeini entzun zaio Xalbadorri baino errima beteagorik eta mardulagorik eta ez-ohikoagorik bere garaian? “Gogoarekin” izango zuen eskuratua, ez etorriaren fruitua; baina bazuen ederki lortua.

Sinets diezaiogun artzainari errimarena, eta entzun dezagun sinesten lanik ez duen zerbait. Hona: “

“Rimaren ondotik, negurria da pertsu batek eskatzen duen baldintza nagusia. Enetzat segurik, negurrian huts egitea —eta gero eta gehiago gertatzen zaut— rimaren bilatzeaz sobera hartua naizelakotz izaiten da, nik uste” (*Odolaren mintzoa*, 60 orrialdea).

Errima ekarri ezin, eta negurrian huts eta pentsamenduetan halahola. Hori da ondorio “baitzepadako” edo derriorrezkoa, dohain hori gabe. Eta gure artzaina ez izan dohatua errima-etorri horretan, berari sinestera behintzat. Hura bezain “titxolaria” edo errima-etorriduna izateko ez omen dago bertsolaria izan beharrik.

Eskasia horiekin nola egin amets txapeldun izatearekin? Hori nola burutik pasa? Ez. “Ez nauzu ni xapelduna” dioenean, ez da bere burua gezurtatzen ari. Ez dauka bere buruari horrelakorik esan beharrik. Zeini ari zaio bada? Zein da, beste guztiek badakitenaren aurka, Xalbador txapeldun dela amets egin duena?

Haur bat da ameslaria. Xabier du izena. Xalbadorren emazte Leonniek kontatzen du *Herria gogoa*n liburuan, 61-62 orrialdeetan. Hona: “Xabierrek aments egin zuen, ez zela Basarri xapelduna, baina Xalbador zela”. Bitxia amentsa!



Aizpurua-Telleria familia Xalbador eta honen seme Mixelekin. Bertso hauetan aipatzen den Xabier, aitaren aurrean dagoena da.

1968ko otsaileko kontua da Xabierren hori, eta aurre hartan jokatu zen, ain zuzen, delako Sariketa haundi hura, eta Basarri eta Xalbador berdin eman zituzten, nahiz errezildarrak lau punturen alde bazuen puntuazio orokorrean, eta dirutan ere berdin utzi zituzten, lehenengoarentzat eta bigarrenarentzat izendatuta zeuden kantitateak batuz eta bien artean erdibana eginez. Gertakari horren ondorengoa da Xabierrena. Haurrak jakinerazi zion artzainari bere amentsa, eta 1968ko otsailaren 28an egin zion Xalbadorrek erraspostua bi pertsutan.

Hona urepeldarraren "erraspostua":

Xabier maite, hori da aments
zoroa egin dezuna!
Bainan ni ere amenslari naiz,
beraz zu ene laguna.
Gauazko gauzak dira amentsak,
ager bekigu eguna;
ez goregi har egia, bainan
ez nauzu ni xapelduna.

Iñigo zure anaia eta
zure arreba Arantza,
Idoia ta zu sortu zaituna
o zer nolako zugaitza!
Ez dezute, ez, gutxi edertzen
Euskal-Herriko baratza,
zuek ikusiz guk nola galdu
gure euskal esperantza?

Xabierren senideak izenez aitatzen dira bigarren bertso horretan. Ez hala gurasoak; eta hauek ere merezi dute izenezko aitamen hau: Kasimiro Aizpurua eta Maitere Telleria. Badu meriturik familia honek Xalbador zenaren ospean. Ez dakit nik,

hauek izan ez balira, urtez urte Urepelen hogeit hamar urte hauetan ospatu den artzainaren omenezko egunik izango genuen.

Eta familia horri zor zitzaion aitamena egin eta, gatozen lehenengo bertsora: “Ez nauzu ni xapelduna”. Hori da urepeldarrak Xabierri egiten dion gezurtapena. “Aments zoroa egin” du haurrak.

Baina gezurtapena, gezurtapen al da gero? Ukatzen al du artzainak ametsak dioena? Esaten du, bai, “gauazko gauzak dira amentsak, / ager bekigu eguna”. Ez dute funtsik ametsek. Lilura huts dira. Argitu orduko deuseztatuak gelditzen zaizkigu. Horrerraino biribilki mintzo zaigu urepeldarra. Eta gero? Zer da “ez goregi har egia” hori? Ez al da egi osoa eta bakarra eta dudarik gabekoa, hura ez dela txapelduna? “Bainan” bat behar al zuen “ez nauzu ni xapelduna” horrek? Zertarako? Ez da “xapelduna” eta kito. Zergatik uzten zaio amentsari eta amenslariari ateka bat zabalik? Egia goregi hartzea al da artzaina ez dela xapeldun esatea? Zer dela-ta?

Ez zaigu esaten zergatik. Guk, hala ere, usaina hartzen diogu, eta susmo bat pizten da gure baitan, harako Anoetako txistualdi harek eragin omen zizkion sentimentuen berri jakitean bezala. “Errespeto haundi bat ni baitan zen piztu”, “pentsatuz zitaike-la egin zidatena amak hurrari egin oharrarazpena” dio. Ba al zen artzainaren barnean zerbait, irakaspen on baten beharrea zegoena?

Joxe Miel Barandiaran zenaren hura datorkit burura. Egun batez hartzen du amak besondotik hamabost-hamasei urteko mutikoa eta han darama alez edo bihiz jositako sagar arbola baten aurrera, eta “Ikusten hori —esaten dio— zamak apaldua? Pertsonak ere zenbat eta jakintsuago eta apalago behar dik izan”.

Ez ote zen horrelako zerbaitu izan Xalbadorrentzat Anoetako “oharrarazpena”? Ez ote zen, txistualdi haren zurrunbiloan, halako ahots eztiren bat ere iritxi artzainaren bihotzeraino, zioela “ez haiz hi bakarrik”? Ez al dago garbi mezu bat izan-zuela Anoetakoak urepeldarrarentzat? Nork duda?

Eta dudarik ez duena, beste egun hartako Xalbadorren haserre edo samurraldi hura da. Zergatik, eta orduko *Argia* aldizkariak, urepeldarraren bertso batzuk inprentaratzerakoan, hitz baten partez beste bat jarri zuelako.

Uztapideri du izena bertso andana harek, eta han, lagunak lagunari egindako zenbait gorespenen artean, honako hau dago: “gure denboran ezagutu dan / bertsolaririk *osona*”. Aldizkariak, ordea, *onena* atera zuen.

Ez zen gozoa jarri gizona, akats edo huts hori irakurri zuenean. Bazen beste inprenta-akatsik ere bertso haietan, baina nik ez dut gogoan “onena” delako hori besterik aitatu zidanik.

Errima mehetu izanarena ote zen gure artzainaren desgustua? Badakigu Xalbadorren esanak eta hitzak ez direla alde-aldera jarritakoak izaten. Ordezkorik ametitzen ez duten horietakoak dira artzainaren ele edo esaldi asko eta asko. Hori gauza jakina da.

Baina, halaxe ere, *Argia* aldizkariaren aldaketa horrek, hitz bat aldatzeaz gain, ez ote zituen ere aldatzen Xalbadorrek bere baitan eginik zeuzkakeen zenbait balorapen? “*Osona*” Uztapide deklaratu duenak, ez ote du uste, *onena* beste norbait daitekeela?

Eta nor zitekeen hori, “ez nauzu ni xapelduna” ez dela guztiz sinetsi behar esan duena besterik? Harek badaki, eta besteok ere bai, ez dagoela “xapelduna” izan beharrik *onena* izateko.

Beraz, "ez nauzu ni xapelduna", baina bai onena? Uste hori baino erdiustelagorik bazitekeen haren buru-bihotzetan bere mundualdiko berrogei ta hamasei urte haietan zehar.

Heriotza!!!

L 976KO azaroaren 7an gertatu zen. Arratsaldeko 6ak inguru horretan eman zuen azken arnasa Xalbadorrek. Hotz eta motz, eta hitz gutxitan esanda, horrelaxe izan zen; baina gertakizun hura beraren zirkunstantziek egin dute gogoangarri Euskal Herri osoarentzat.

Arratsaldeko 6ak inguru hori zen, bai, ordua. Zer ordu, ordea! Jendea, jendetza hura, Xalbadorren omenezko jaialdia burutzen ari zen une hartan, eta omendua azkenetan zegoen alboko etxe batean.

Ez zegoen bakarrik. Han zituen medikuak haren bihotzari eragiten. Ez alperrik! Ni hurbildu nintzenean, ahalegin horretan ziharduten. Berehala etsi zuten. Haiek baino lehenago nik.

Han zuen emaztea ere bere ondoan. Juxtu-juxtu iritxi zen garaiz, bere senarraren azken nahia jasotzera. Doi-doia esan ahal izan zion non utzi zuen idatzita bere testamentua. Halako aldizkariaren orrien artean aurkituko zuela esan zion. Dozenerdi bat lerro ziren guztira, artzainak bere eskuz idatzita utzi zuen testamentua. Gaizo Leoniek ere laister igeri zion alarguntsa zela egun hartatik aurrera.

Eta zer zela eta utzi zuen bere testamentua idatzita artzainak? Zer zebilen buru hartan, erabaki hori hartzeko? Beldur bat. Beldur zen, ez ote zen

kapable izanen egun haren zama jasaiteko, eramateko, jasotzeko. Omenaldira etortzeko igaro zuen bere etxeko atea, berriz bere oinez igarotzeko ez ote zen gauza izango zen beldur Xalbador.

Behin eta berriz adierazia zion bere emazte Leonieri, ea ez al zuen omenaldikoan jendearekin ongi ez gelditzea edo kunplitzea beste beldurrik. “Ez duzu beste beldurrik?” galdetzen zion Leonieri, hau gauza bat eta beste antolatzen ahaleginetan zebilela ikustean egun hartarako. Zapata berriak ere “zertarako erosi?” galdetzen zuen artzainak. Beldur zen egun hartan egingo zuela harenak. Ez medikuek eta ez bestek, baina berak bazekien zenbat indar zegoen bihotz haretan, eta somatzen zuen nolatsuko eskerra erakutsiko zion jendeak, eta barrena lehortuko zitzaion beldur zen. Eta harek uste bezalaxe gertatu zen gertatzekoa. Azkeneko aldiz atera zen oinez bere etxetik, eta bestek eraman behar izan zuen hurrengoan berera, eta bestek azkeneko aldiz handik atera.

Lehendik ere bazuen halako eskarmentu txiki bat. Donibane Lohitzuneko omenaldia ez zegoen urrun. Urte hartan bertan izana zuen, ekainaren 20an. Han ere lanak izan zituen zutik irauten, berak dioenez:

“Enetzat egun haundia bazen ere, etzitzautan nik nahi baino lehen iragan: ene ez ontsaren gainerrat, lanik aski eman zautaten gorespen haiek guziek, eta eskaini zitzauzkitan presentek kausatu bihotz pilpiraren jasaiteak”.

“Bihotz pilpiraren jasaiteak” lan eta neke eman baldin bazion Donibane Lohitzuneko omenaldian, nola ez beldur izan Urepelekoan gerta zekiokkeenaz? Hango jendearen emana, eta hura jendearen erakutsi nahia bere maitasuna Xalbadorri! Ez zezakeen jasan amodiozko zama hura, eta leher egin zuen artzainaren bihotzak, jendetza hura omenaldiko

azken kantuak ematen ari zela, arratsaldeko 6ak inguru horretan.

Omenaldiaren haseran han zen taula gainean. Ez zen luzaz egon, baina bai "Mattin maiteak" egin zion bertsozko omena entzuteko haina denbora. Ez ote zioten aheztarraren ezarriak, eta bihotzak batez ere, kantatu zizkion bertso haiek eman lehen kolpe hiltzailea Xalbadorren bihotzari? Eta pentsatu guztiak esan ez zizkiolarik! Bazkaritakoan bere ondoan jarrarazi zuen artzainak. Ez zeukan saltzeko bere "Mattin maitea". Hona nola kontatzen duen aheztarrak, bere *Etxe xokotik kantari* liburuan, 56 orrialdean: "Bihotza urtzen zeraut huntaz oroitzian: berekin jar arazi bainau bazkaltzian" (*Auspoa*, 151). Hori esker suharra "irriaren giltza" omen genuenaren!

Eta han kontatu zion Mattinek artzainari, Mixel Itzainak nola eskatu zion bertso batzuetan agertzeko zer izan zen bien artekoa; eta hantxe esan ere zion bertsoak pasatuak zituela buruan, eta zertsu kantatzeko asmoa zuen. Eta, besteak beste, entzun zer esan nahi zion Mattinek Xalbadorri eta honek zer erantzun zion:

"Bertsu batean erraten nion, bazuela bulta bat elgarrekin genbiltzala; ni haren aldean beti umil egoiten nintzala; hura zela iguzkia ta ni, berriz, haren itzala.

Ta hunela erran zautan:

— Hoi ez diat nahi kantatzea!" (*Auspoa*, 151, 49 orrialdean).

Aheztarrari "urtzen" zaiola bihotza? Urepeldarrari urtu zitzaizon behintzat. Eta zeini ez, lagunaren miresmenezko aitortza horren aurrean?

Ez zion, beraz, hori kantatu; baina bai besteak, eta entzun ahal izan zituen lagunaren gorespenak. Askoz gehiagorik ez, ez zuen entzun. Beharrezkoe-



Xalbador gorputz.

na entzuna zegoen, ordea: “bazkaltzian” “berekin jar arazi” zuen laguñaren omena.

Beste bertsolariak kantuan hasi eta berehala joan zen taula gainetik. “Ixtanteko hemen niz” esan zidan neri aurretik pasatzean, ni ere bertsolarien lerroan han bainengoen ertzean. Baina ez zen gehiago itzuli.

Ikusi zutenek esanda jakin genuen, lurrera erori zela plaza bazterrean; eta bazkaltzekoan sartuak han bota zituela. Berez zutitu omen zen, eta alboko etxe batera lagundu zioten han zeudenek, eta ohe batean etzan arazi zuten.

Medikua berehala zuen han. Ez bat bakarrik. Bi ere bai. Haietako batek, Labegerie jaunak, ekarri zuen berria taula gainera: Xalbador gaizki zela. Emaztea ere deitu zuten jende artetik. Zerbait gene-kienongan halako kezka bat sortu zen. Zeinek pentsa, ordea, azkenetan zenik? Ikara bat, bai, sartu zitzaigun, bi aldiz ere esan baitzigun Labegerie jaunak eri zela Xalbador. Nik halako larritasun bat senditzen nuen; eta, opari-eskeintza hurbildu zenezan, taulatik jeitxi eta, aterbearen atzekaldetik barrena, gure gizona sartu omen zuten etxera joan nintzen. Jendea hasia zen ordurako etxerako bidea hartzen.

Sartu nintzen poliki-poliki barnera, eta medikuak ikusi nituen artzainaren bihotzari eragiten eginahala guztian, eta Leonie negarrez, eta besteren bat edo beste. Ikusia zegoen ikusi beharra, eta jakina jakin beharra. Hila zen Xalbador. Bukatuak ziren omenaldia eta omendua.

Hura ilunabarra eta hura gaua egun hartakokak! Haiek sorpresak jendeak hartu zituenak! Jaialdia bukatu gabe, gauak jo baino lehen, etxeruntz abiatu ziren asko eta asko irratiz enteratu ziren, gorpu zela haiek omendu zuten artzaina. Otoetako irratia piztu gabe etxeratu zirenek, berriz, etxean

sartu orduko, gabonak emateko betarik gabe, beren zai zeuzkaten familikoen bidez jakin zuten zer gertatu zen Urepelen ilunabar hartan. Harri eta zur eginda jendea iluntze hartan Euskal-Herrian!

Batena entzuteko, entzun dezagun Mari Trekurena, Mattin zenaren emaztearena:

“Mulienerat arribatzean, gure Mattin eta Xanpun jaun andereak sartu ziren tristerik, eta galdatu nioten:

— Nola ibili zaitze Urepelen?

Galde hoi egitearekin, halako behatze samin bat agertu zen hiruen arpegian. Laster konprenitu nuen bazela zerbait joaiki etzenik.

Xanpunek orduan:

— Xalbadarren omentzerat izatu gira eta Xalbador supituki hil zaiku.

Ene barnean halako ukaldi bat sentitu nuen. Mattin, aldiz, nere ondoan jarri zen, begiak nigarrez beteak” (*Mattin, nere gizona, Auspoa* 158, 132 orrialdea).

Mattin negarrez orain ere! Baina oraingoan ez zuen urepeldarrak “Mattin nigarrez ikusi”, Añorgako hartan bezala. Ikusi izan balu bere sahetsean bazkaldu zuen laguna hala unkitua!

Horrela zabaldu zen berria, kolpe han eta kolpe hemen. Izan ere. omenaldi-egunean eta omenaldia-
ren bukaeran, omendurik gabe gelditu ziren, beraiek jakin gabe, Urepelera bildu ziren Xalbador zaleak. Hori da marka!

Handik iru egunera, azteazkenean, egin ziren hiletak. Haiek munduak berriro artzainaren herrian! Ez zen eguraldi ederra; baina jendea ez zen ikaratu. Bi malko bazen isuririk bitarte horretan artzainarengatik, eta beste bi bota zituen jendeak hiletetan. Hura berotasuna!

Eta ilunabar-ilunabarrean ehortzia izan zen artzaina, eliz-kanten oihartzunaren eta Artze anaien txalapartaren kunkunaren artean. Goian bedi Xalbador pertsularia.

Haundia!!!

(Argia, 1976-XI-24. J.M. ARANALDE)

HAUNDIA zen ederrez aurtengo azaroaren 7an zabaldu zuen eguna. Nork esan, bezperako eta aurreko egunetako eguraldia ikusita, halako goizgiroa izan behar genuenik igande hartan? Euskal Herriko luraren aurpegia gehien edertzen duen giroa genuen: haize egoa, baxenapartarrek esaten duten bezela. Nola ote zegoen “beti laket izan zaut Urriko aroa, / mendietan mulizkan sendituz hegoa” dionaren bihotza? Bazirudien zerua bera ere alde genuela egun seinalagarri hartan. Hala esan ere genion Urepelera iritxi ginenean:

— Jainkoak ere maite zaitu zu.

— Ba, eztakit batere —erantzun zidan—. Nik galdegina nion ba Jainkoari egun hau goxoa izan zadin; baina gure Leonik gauza bera Ama Birxinari galdegin omen dako. Eta orain ez dakigu zeinek egina daitekeen.

Zeru osoak hartu zuen parte, nik uste, Xalbadorren omenaldian, Euskal Herriak bezalaxe. Diferentzia bat bada hala ere zeruaren alde: haiei gauak ez ziela eguna beztu guri bezala..

Haundia zen Urepelen bildu zen jendetza azaroaren 7an.

Goizena joan nahi izan zuenak ere bazituen goiztiarragoak bera baino. Urrundik joan beharrak

berekin du nunbait hori. Nork ez daki urrunekoak izaten direla lehenik irixten direnak alde guztietara? Goizik hasi zen jendea agertzen Urepelen, eta egun osoan joan eta joan, ordu oroz agertzen zen norbait berria. Bidean geldituak ere baziren. Jaun batek esan zigunez, bertsolari baten izenean ez omen da egundaino ikusi horrenbeste jende Ipar-Euskal Herrian. Hura omen zen hango egiazko Aberri Eguna.

Haundia zen Xalbadorrek egun hartan eman zuen musu mordoa, potta andana. Hainbeste adiskide on ikusi zuen, izan ere, Euskal Herriaren bi aldeetatik bildua! Neronek ere eraman nion haurño bat agur egitera, eta nolako bi musu lehertu zitzaizkiolako haur haren masailetan. Zer ez ote zuen eman nahi izan bihotz harek egun hartan? Jakin gabe gelditu beharko dugu, ustez ezagutzen zutenek ere hala geldituak baitira.

Haundia izan zen bere adiskide eta “ardureneko” bertsolari-lagun Mattinek egin omena. Lehendik ere, hitzez eta bihotzez, Mattin bezalako miresle gutti izan zuen gure urepeldarrak; baina egun hartan bezala gutxitan zabaldu du aheztar ttipi haundiak bere urrezko bihotza. Zer eskerra zerion eta zer miresmena egun hartan Mattini! Irria ere beti bezalaxe egin arazi zion gure “Santxok” alboko “Kixoteri”. Ez dakit zein den alargunago egun, Mattin ttipia ala Xalbadorreneko etxeakoandre Leoni. Eskerrak biek ere badakiten berekin dutela Euskal Herri osoaren maitasuna, galdu dutenaren ordainetan.

Baina... haundia, ilunabarra izan zuen Urepelen azaroaren 7ak. Zer zuen haize harek? Zeren bildur zen? Senditzen ote zuen ez zuela gehiago “xaramela” haietakorik entzunen Urepeleko mendietan? Hori ote zuen bere ikara, hala dardaratzeko eta zakartzeko? Hari ere bazihoakion, nunbait, beste inork ez bezala senditzen eta eskertzen eta maita-

tzen zuen laguna. Hori zuen min eta hori jakineraz-
zi nahi zigun holakorik asko pentsatu gabe jaialdia-
ren ederrean murgildurik geundenoi. Gaixo haizea!,
norbaitek esango lukeen bezala. Nolaz ez genion
antzeman besteok orduaren haundiari?

Oi haize, oi haize! Lagun izango zaitut hemen-
dik aurrera nik ere. Artean ez nuen pentsatu zuk
ere lagun zenuenik guk lagun genuena. Hemendik
aurrera igerriko diot zure mezuari. Jo zuk ene bela-
rrietan, albotik laixterka joan zaidan hura ahazten
dudanean bizitzaren liluraz, edo nik dakita zeren
arduraz. Biok lagun kurritu behar dugu gure
"Emaus" bide hau, galdu usteko hura gure solasen
lekuko dugula.

Ez da, ez, hil. Ez duzu ikusten, hor piztu den
izen xuri hori: XALBADOR?

Bai. Urepeleko aterpean izen bat piztu zen
jaialdiaren bukaeran, izen xuri bat: Xalbador. Ure-
pelen piztu eta Euskal Herri osora hedatu haizea-
ren hegaletan. Gure ezpainen ez dute beste izenik
kontatu eta kantatu joan den hastean. Haren
heriotzearen burrundak gure bihotzari hautsak
ufatu dizkionean, hor erakutsi du bere garra haren-
ganako gure maitasunak. Zer jendetza Urepelen
asteazkenean! Bertsolari-lagunez, herriz eta apaizez
nola bete zelako eliz hura! Ez zen ordu egokia
askorentzat; baina esker onak ez du ezagutzen,
nunbait, ez-egokitasunik, eta han joan zen jendea,
aurreko igandean bezalaxe. Urepelek badakike
gaurtik aurrera zertsu zen haren semea. Bat eman
duenak beste bat ere eman dezake eta haren zai
gelditzen gera.

Eta "O Donostia eta zure ingurua!". Zer zen
Buen Pastorko jendearen emana? Hori herria zure
herria, Xalbador! Uste nuen leher egingo zuela
katedralak gure kantuen durundiaren durundiz.
Haren "nortasunak" Gipuzkoa duela "ama" idatzirik

utzi digu urepeldarrak. Eta gezurrik ez zuenaren bihotzak, hori ere egia esan zuela eta ez "poesia" egin beharrez bakarrik, ederki erakutsi du lehengoa Gipuzkoak bere Eliz Nagusian. Bainan jakin ere jakin zuen nolako eskerra zegoen "seme" omen zuen haren bihotzean. Han entzun ahal izan genuen:

Lagundua naiz gizon emazte jatorrez,
askotxoren alderat betea naiz zorrez;
ez naiz hasiko denak izenda beharrez,
hartzedun haundienak huts egin bildurrez.(1)

Zer ohorea Gipuzkoarentzat!

Urepel aita, Gipuzkoa ama, bakarra den Euskal Herria guraso, hemengo aldia egin duen Xalbadorrek. Haren izpirituak lagun gaitzala bi aldeetako euskaldunok elkartzen. Haren arnasa izaten bada gure arnasa hemendik aurrera, "txukatu" ahal izango dugu "mendien negar den Bidasoako ura"; eta Euskal Herria izango da, izatez eta legez, herri bakar bat. Egun hura izan daiteke lehengo Urepelekoa baino haundiagoa, eta orduan izango du Xalbadorren izpirituak merezi bezalako ohorea.

(1) *Odolaren mintzoa*, 317 orrialdea.

“Ene bihotzaren egun”

(Doinua: “Haurtxo txikia negarrez dago...”)

IA hiru egun gorpu etxeko ganbaran edo gelan egon zen Xalbadarren aurrean izandako sendimenduen berri emanez hasten dira ondoren datozen bertso hauek; eta gure artekoa zer izan zen kontatuz segitzen dute.

“Ene bihotzaren egun” deklaritzen dut artzaina 5gn bertsoan. Eder-argi-iturri bat zen neretzat gizon hura. Beti zerbait berriaren pozetan hurbiltzen nintzaion.

Ez beza inork pentsa asmatutako zerbait denik “Alduderat orduko” bihotzak hasten zuen dantza hori. Beti zigarro bat pizten nuen, auzo herri horretatik haien etxea bistatzen nuenean.

Malkoena ere ez da alegiazko zerbait. Egiatzkoa da. Telefonoz dei egin zidan behin, haienera lehenbaitlehen agertzeko eskatuz. Lagun bat eta biok joan gintzaizkion biharamunean bertan. Eta hantxe, sukaldean, beheko suaren koxkan jarrita, negarrez hasi zitzaigun. Emaztea eri zuen ohean, eta bera ere ez zen ongi. Hura etxeko tristura egun hartakoa!

Ez da ere gezurra, “nik esan gabe jakin zenuen zure penak eta pozak beste norbaiten gogoarentzat etziradela arrotzak” delako hori. “Ez dakizu zer poza

daukadan” esan nion behin, egun seinalatu batez; eta “bai, badakit” erantzun zidan. Sari bat irabazi zuelako zen nere poza eta harek bazekien hura bezalaxe pozten ninduela ni haren garaipenak.

Badira aski argitasuntxo horiek, hura hil berri-tan egin nituen bertso hauek dakartena jasotzeko.

1 Lo beltzak joa ikusi zaitut
ohean luze etzana,
gehiago deus ez zetorren
zuregandik neregana.
Artean bat ginenok, Xalbador,
orduan ginauden bana,
puskatua genuen betiko
gorputzezko harremana.

2 Zenbat aldiz bihotz honek zerbait
esan nahi ote zizun!
Jauzi ere pozik egingo zen
iratzarten ote zintun.
Zu berriz hantxet ixil-ixila,
hain hubil eta hain urrun!
Egundaino ez nuen senditu
orduan hainbat hoztasun.

3 Gure arteko haria berriz
nahi nuen nik bilatu,
etenik omen genuenaren
bi puntak korapilatu...
Ia-ia mirari bat ere
zerura nuen galdatu...
Ez nuen, ez, berehalakoan,
Xalbador, etsia hartu!



Xalbador eta Joxe Mari Aranalde.

4 Bi aldetara behatuz nabil
aurki ote zaitzakedan,
ea nonbaitetik zure zantzu
biziren bat datorkidan.
Erantzunik ezaren hotza dut
senditzen hemen eta han.
Lurrari beharko diot gaurtik.
zuretzako musu eman.

5 Zuk ez dakit ni zenbateraino,
nik guziz zintudan lagun;
loreak intza bezala ene
barneak hartu baizintun.
Ni baitan on zitaiken guzia
ondu ta edertu zenun.
Hargatik nitan ez zera hilko,
ene bihotzaren egun.

6 Behin ikasi nuen bidea
zuen etxe atarira,
eta geroztik badut eginik
hortik hamaikatxo jira.
Alduderat orduko begiak
xuxenik zuen tegira...
Hura ikusi eta bihotzak
ai zer nolako pilpira!

7 Urepeletik zueneraino
zeinen malda erosoak!
Ez dakit zein zoan laisterrago:
zangoa edo gogoak.
Eskua latza bezain bihotza
eskaintzen zenun gozoak...
Bitan esan gabe ematen zen
etxe barnera pausoa.

- 8 Supazterrak hitzegin baleza,
baleukake zer esanik!
Gure hangoa zoramena zen
ala festa, dakita nik?
Mahainaren betea alborat
uztekoa ez izanik,
sukalde hartan bagenuen guk
bestelako jan-edanik.
- 9 Beti ez ginen egon izandu
elkarren ondoan alai:
eguzkirik gabeko egunak
ere bagenituen bai.
Zure begiak ikusi ditut
malko beroz bustiak blai...
Negar haren testigu izana
ez dut deusez trukatu nai.
- 10 Malkorik ez nizun, ez, xukatu,
ez baineukan ahalmenik.
Hortarako gai ez izanaren
"errua ez daukat, ez, nik".
Baldin ukan banu gogoaren
araberako kemenik,
ez zuen lanik izango inork
kondatzen gaur zure penik.
- 11 Nik esan gabe jakin zenuen
zure penak eta pozak
beste norbaiten gogoarentzat
ez ziradela arrotzak.
Geroztik, eta zurea hartu
zuen arte hillen hotzak,
min beraren ardatzean ziren
mugitzen gure biotzak.

12 Bakandu ginen eta hor gaude
bakoitza gure ertzean.
esperantzazko egunaren zai,
besterik ezer ezean.
Bilduko gaituen esku harek
biok beregan hartzean,
lot gaitzala betiko, Xalbador,
hausten ez den ardatzean.

Aurkibidea

Eskaintza	7
Ohar bat eta beste	9
Lehenengo oroitzenak	11
Urepel(e)	15
"Hameka urte inguruan"	18
"Ait'amek etsitua zuten enekin"	22
Gizonaz beste zerbait	30
"Pertsuzalea"	37
"Kasik nihaurek nahi ez nuela"	43
Eskola berrira	49
Izena zure kontu	54
Plazan: egun "munta haundikoa"	61
Agurra	68
Buruz-buru	75
Puntuari erantzutea	95
Bakarka gai kantatzen	107
"Hura da, hura, bertsolaria"	125
"Txistuak jo dituzute..."	132
"Ez nauzu ni xapelduna"	141
Heriotza!!!	149
Haundia!!!	156
"Ene bihotzaren egun"	160



Joxe Mari Aranalde

Liburu honek Xalbador zenaren bertso-gintza aztertzen du. Izan ere, ez al zuen horrelakorik merezi bertsolarietan olerkariena eta olerkarietan bertsolariena izan zenak?

Baina, horretaz gain, urepeldarraren bizitzaren argibide asko aurkituko ditu orri hauetan irakurleak. Bai eta haren barruko izkutuen berri jakingarri asko ere.

Liburuaren idazkerak, berriz, egilearen bi alderdi salatzen dizkigu: Xalbadarren miresle bat dela eta, denbora berean, haren adiskide mina izan zela. Zenbat aldiz irakurri eta hausnartu ote ditu haren bertsoak? Zenbat ordu gozo igaro ote zituen artzain bertsolariarekin hizketan? Hori dena gogotan har beza liburu hau ongi ulertu nahi duenak.

ISBN 84-89080 22-4



9 788489 080225